

EKONOMIA ITUNA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Ekonomia Ituna






Maiatzaren 23ko 12/2002 LEGEA, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia-ituna onartzen duena.

Azalpen oharra

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Lege osoa eta bere eranskina jasotzen dira bertan.

A U R K I B I D E A

I- SARRERA: DIPUTATU NAGUSIAREN AURKEZPEN GUTUNA _____	04
II- HISTORIAKO AURREKARIAK _____	07
III- ITUNA, 1981-1999. ALDAKETA ETA EGOKITZAPEN NAGUSIAK _____	12
IV- EKONOMIA ITUNAREN NEGOZIAKETAKO KRONOLOGIA _____	15
V- KUPOAREN BATZORDE MISTOAK _____	20
VI- EKONOMIA ITUNAREN LEGEA, 2002KO MAIATZAREN 23KOA _____	27
VII- TERMINOEN GLOSARIOA _____	84
VIII- 13/2002 LEGEA, MAIATZAREN 23KOA, EUSKADIKO KUPOA 2002/2006 BOSTURTEKORAKO ZEHAZTEKO METODOLOGIA ONARTZEN DUENA _____	91
IX- GALDERARIK OHIKOENAK _____	102



Ohore handiz aurkeztera noa liburu hau, autogobernuaren oinarrizko erakundeetako bat den Ekonomia Ituna gure artean zabaltzeko asmoa duena.

Ekonomia Ituna autogobernuaren eta gure nortasun berezituaren oinarrizko tresna da. Horregatik, behar-beharrezkoa zen foru erakunde horri ahalik eta arretarik handiena ematea eta, era berean, erakustea Ituna ezin zela zalantzan jarri eta une historiko batean gerta daitezkeen eztabaida politikoen gainean dagoela.

Itunaren edukiari buruzko eztabaida bizi-bizia izan da Ekonomia Itunaren Legearen negoziazio denbora osoan. Gauzak horrela, Ituna indartuta atera da oztopo guztiak gainditurik, eta, Miguel Herrero de Miñón-ek dioenaren arabera, "Euskadi, Espainiako gainerako erkidegoak eta guztien estatua protagonista dituen" ituna lortu da.

Negoziazio zail haiek amaituta, itun horren barruan azpimarratzekoa dira Ekonomia Itunak izaera mugagabea izatea eta zerga guztiak itundu izana, XX. mendearen hasieraz geroztik Francisco Gaskuek eta Federico Zabalak, besteak beste, proposatzen zuten bezala.

Behin Ekonomia Itunaren Legea argitaratuta, une hau aprobetxatu nahi dugu hura zabaltzeko eta haren funtsa, jatorri historikoa eta lege itundu berri honen prestaketarako negoziazioen gorabeherak nahiz edukia hedatzeko. Ekonomia Itunaren onarpena dela eta, liburu hau argitaratu nahi izan dugu: arau xedapenak jasotzeaz gain, Ituna ulertzen lagundu dezaketen hainbat dokumentu jaso dira, haren testuingurua azaldu eta lege kontzeptuak sailkatzeko asmoz.

Horregatik, liburua hainbat ataletan banatuta dago:

Lehendabizi, historia laburra jaso da, eta argi utzi da foru erakunde hori foru lurraldeen eskubide historikoen aztarna baino ez dela, eta erakunde horren sakoneko sustraiak azpimarratu dira.

Bigarrenik, mugarri historiko batzuk zerrendatu dira liburuan, Ekonomia Itunari buruzko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen onarpenaren bide malkartsua erakusteko asmoz.

Ondoren, Ekonomia Itunari buruzko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen testu arauemailea jaso da.

Azkenik, hainbat termino edota kontzeptu ulertzen zailak direnez, terminoen glosarioa sartu da liburuan. Ekonomia Ituna zabaltzeko ideiaren barruan, glosario horren helburua da hura zabaltzen laguntzea eta horrela Itunaren garrantziaz jabeatzearaztea interesa duten guztiak.

Ekonomia Itunaren historiaren barruan, akordioa lortzea izugarri nekeza izan da hitzarmena berritzean. Espero dut liburu honen ekarpenek irakurleei aukera ematea oraingo Legea negoziatzean izandako gorabeherak ulertzeko, bai eta negoziatzia behar-beharrezkoa zela konturatzeko ere, gauza asko baitzeuden jokoan.

Geure erakundeen ezagutza sakontzea haiek defendatzeko modurik eraginkorrena da. Izan ere, lehendabizi, erakunde bat eta haren abantailak aintzat hartzeko, ezagutu egin behar dira eta, bigarrenik, erakundeak ezagututa gure historiaren zati bat ulertuko dugu, etorkizun hobea lortze aldera.

2003ko urtarrila



Roman Sodupe Olaizola
Gipuzkoako diputatu nagusia



II HISTORIAKO AURREKARIAK

Ekonomia Itunaren muina eta izaera ulertzeko ezinbestekoa da Itunaren jatorriaz eta bilakaera historikoaz bi hitz esatea. Aurreratu genezake Ekonomia Ituna forudun lurraldeetako eskubide historikoen ondorio edo legatu mugatutzat har daitekeela. Hala, orain Espainiako Konstituzioko Lehen Xedapen Gehigarrian jasota dago Ekonomia Itunaren aitortpena, foru lurraldeen eskubide historikoak babesten dituen xedapenean beraz.

"Eskubide Historikoak" esaten zaion kontzeptua eta tesia Austria-Hungariako inperioaren garaian taxutu ziren, XIX. mendeko bigarren erdia eta XX. mendeko lehen urteak hartzen dituen aldian. "Historische Staatrecht" delako kontzeptuak Habsburg-ekoen inperioan sartu aurretik Hungaria, Bohemia eta Kroaziako koroenak izandako lurralde eta eskubide maiestatikoak bihurtzea eskatzen zuen (García Pelayo). Eta, lurralde horien egoera eta euskal probintziena berdina ez izanik ere, termino hori hartzen da probintzia hauen erregimenaren berezitasunak adierazteko.

Horregatik, hasteko zehaztu egin behar dugu zertan zeutzan antzinako erara izendatuta Bizkaiko jaurerria, Gipuzkoako probintzia, Arabako ermandadeak, eta Nafarroako erresuma ziren probintzia horien eskubide historikoak.

Bada, Bizkaiko jaurerria eta haren antzera Gipuzkoa eta Araba, ordura arte konterri maila zutelarik batzuetan Nafarroako erresumaren mendean eta beste batzuetan Gaztelako erresumaren mendean egon izandakoak, XI.-XIII. mende artean, poliki-poliki eta eskualdeka, Gaztelako erresuman barneratzen joan ziren, batzuk indar militarrek hartuta eta beste batzuk beren borondatez. Bizkaiari dagokionez, hango lurraldearen zati baten gaztelaratzea Bizkaiko jaurerriko eta Gaztelako erresumako tituluak, biak, pertsona berean metatu izanaren ondorio izan zen.

Nolanahi ere, lurralde haiek Gaztelako erresuman sartzeak ezaugarri hau izan zuen beti: erregeak lurralde bakoitzeko foruei errespetu osoa zor ziela. Lurralde batetik bestera foruak desberdinak baziren ere, denboran zehar poliki-poliki bateratuz joan ziren, eta honela laburbil daitezke, sinplifikatuta:

- Merkataritza askatasunari dagokionez, barne aduanak zeuden. Berezitasun horrek 1841eko urriaren 29ko Dekretura arte iraun zuen (1839ko urriaren 25eko legean oinarrituta emana) eta, aduanak kenduta, merkatu nacional bakarraren sorrera ekarri zuen.
- Foru baimena. Horrek esan nahi zuen Batzar Nagusiek erabakitzen zutela, Estatuak edo Aita Santuak emandako arauak foruen argitan aztertu ondoren, arau horiek foruen

aurka zihoazen ala foruekin ados zeuden. Foruen aurkakoak izanez gero ez zitzairen Foru baimena ematen eta ondorioz ez ziren aplikatzen foru lurraldeetan.

- Justizia Administrazioaren gaia. Nafarroak bere lurralde eta instituzioen baitan zituen justizia eskumeneko instantzia guztiak. Bizkaian, berriz, lehen auzialdian alkatea zen organo eskuduna, eta bigarren auzialdian Bizkaiko Epaile Nagusia (Areto berezi bat zen, Valladolideko Kantzelaritzaren barnean). Gipuzkoan eta Araban, bestalde, lehen auzialdia alkateen eskuetan zegoen, baina bigarrena Gaztelako justizia eskumenaren mende.
- Zerbitzu militarra. Bake denboran soldadutza foruen kontrakoa zela jotzen zen, eta horregatik euskal gazteek ez zuten soldadutzarik egiten. Gerra garaietan, ordea, lurralde arteko elkartasunak Estatuaren lurraldea beste edozein soldaduk bezala defendarazten zien. Berezitasun horrek 1876ra arte jarraitu zuen indarrean.
- Zerga salbuespena. Gai honetan datza, beharbada, foru sistemaren muina. Zergetatik salbuetsita egoteak talka egiten zuen noski Estatu konstituzionalarekin, eta hortik etorri zen, zenbait gorabeheraren ondoren, gaur egun Ekonomia Ituna dena. Talka horren ondorioz Nafarroa 1841ean dagoeneko hasi zen Estatuari bere ekarpena ordaintzen. Beste forudun lurraldeetan erregimen hori 1877ko azaroaren 13ko Erret Agindua onartzearekin abiatu zen.
- Udal erregimena. Udalen nortasun sendoa udalen foru erregimenaren ezaugarri berezia zen. Izan ere, udalek autonomia zabaleko gobernu erregimena eta ondare aberatsa zituzten.
- Nafarroan Gorteak, beste lurraldeetan Batzar Nagusiak, eta denetan Diputazioak izatea. Egia da Nafarroako Gorteak krisi bidean zeudela, kleroa urria zelakoz eta adar militarrek interesik ez zuelakoz. Unibertsitateen adarra zen, ordezkariak izateko eskubidea zuten udalerriek osatzen zutena, Gorteetako zeregina bereganatzen zuena. Beste lurraldeetan, Batzar Nagusiak udalerriek osatzen zituztenez estamentu eta gorputzei haietan parte hartzea debekatuta, askoz errazagoa zuten konstituzio liberalaren egitura berrira moldatzea.

Euskal probintzietako foruak izan ziren zutik irauten bakarrak Felipe V.ak antolamendu berriko dekretuak eman zituenean eta haien bitartez "Espainiako monarkia unibertsala" deitu zaionetik Borboien Estatu baterakoiranzko aldaketa mamitu zenean. (Espainiako monarkia unibertsala delakoa erresuma multzo batek osatutako antolaketa politiko bateratu bat zen, honela jokatzeko zuna: erresumak instituzio publikoen aldetik elkarrengandik oso desberdinak ziren arren, oinordekotza kontuetan batasun zatiezin bat osatzen zuten). Une hartatik aurrera euskal probintziak probintzia salbuetsi izenez ezagutuko ziren.

Foruen kontzeptuak berezkoa du aldakortasuna, hau da, Historiako aldaketetara egokitze gaitasuna, eta horri esker gertatu izan da XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan foruak gorpuztu zituzten instituzioak desagertu eta foru sistema mamitzeko beste era batzuk sortu izana, hala nola, itun erregimena XIX. mendearen bigarren erdian, eta ekonomia eta administrazio esparruko erregimen berezi bat Francoren garaian bertan. Eta horrela behar du, izan ere gaur egun zentzu gutxi izango bailuke soldadutzatik salbuesteak edo merkataritzan barne mugak izateak Europako testuinguru berrian.

Dena dela, argi dago edozein erakunderen eraldaketa bere garaiko testuinguruan kokatu behar dela, eta ezin da ukatu XVIII. eta XIX. mendeetan egindako eraberritze guztiak giro zeharo aurkako batean egin zirela, liberalismoak aurrerapen nabaria izan baitzuen Espainian eta liberalismoaren ikuspegia Espainia baterakoi eta uniforme baten aldekoa baitzen, oso zaila bihurtzen zelarik euskal foruak sistema hartan txertatzea.

Hala, ikus daiteke nola XVIII. mendean foru eskubide batzuk murrizte aldera aldatze saio batzuk egin ondoren, 1808an Baionako Konstituzioarekin, eta 1812, 1837 eta 1876ko erasoekin iritsi zen euskal foruen murriztea eta, murrizterakoan, foru erregimena itun erregimen bihurtzea. Horrela, bada, itun erregimena foru sistema ulertzeko modu berri bat izanik, funtsean foruen sistema izan zenaren aztarren modu bat besterik ez da.

Hala, Baionako 1808ko konstituzioak 144. artikuluan foru lurraldeen sistema politikoa honela aipatzen zuen: "Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako probintzietako foru partikularrak lehenbiziko gorteetan aztertuko dira, probintzien beren eta nazioaren intereserako komeni dena erabakitze".

Artikulu honek dakarren aldaketaren muina da, harrezkero foruen funtsa, jatorria eta arrazoia ez zegoela beren autonomian, berezko antolakuntzan eta arautzeko gaitasunean, baizik eta foruen oinarri juridikoa, arrazoia, funtsa eta jatorria Estatuko Gorteetan ipintzen zuela, hau da, arrotza zitzaien zerbaitetan. Loperena Rotak esan bezala, sekulako aldea dago "foru" kontzeptuaren liberal-aurreko adieratik, foruak zuzenbide sistema bateko oinarri juridiko eta politikotzat hartzen zituenetik, kontzeptu horren beraren adiera liberal ondokora, horrek foru sistematzat "foru sistemaren eduki materiala bera, hau da, arau multzoa" hartu baitzuen.

Gorago aipatu dugun lehen erasoari dagokionez esan behar da 1812ko Cadizeko Konstituzioak ez zuela foruei buruzko hitzik jaso, Hitzaurrean ageri diren laudoriozkoak kenduta. Hala ere, 1812ko Konstituzioa indarrean egon zen bitartean, egiteetan foruak indargabeturik geratu ziren 1812-1814 eta 1820-1823 aldietan.

Horrela, 1837ko Konstituzioa heldu zen, eta hura indarrean zegoela etorri zen foruen kontrako bigarren erasoa, foruak ezabatzeke bidea urratu zuena. Izan ere, konstituzio horretan oinarrituta emandako 1839ko urriaren 25eko Legeak 1. artikuluan foruak formalki berretsi bazituen ere, honako itsats hau erantsi zien: "monarkiaren batasun konstituzionala eragotzi gabe". Era berean, 2. artikuluan baimena eman zion Gobernuari foru organoei entzun ondoren foruak aldatzeko, foruen eta monarkiaren onerako izanez gero. Negoziaketa entzunaldi horren emaitza izan zen Nafarroarako 1841ean emandako "Lege Paktatua"; azken batean foru instituzioen aldakuntza bat, haiek apalago bihurtu zituen.

Estatuarekin elkarriketarik egin ez zuten beste hiru probintziek lehengoan jarraitu zuten 1876ra arte; orduan Canovasek, 1837ko urriaren 25eko Legeak ezarritako foru negoziaketaren formalitatea zaindu nahirik, 1870eko apirilean emandako Erret Agindu baten bitartez diputazioei dei egin zien foruei buruzko konponbide batera iristeko. Probintziek ez zuten nahi izan eta Canovasek, 1839ko urriaren 25eko Legearen 2. artikuluan oinarri harturik eta iritzirik horrek espainiar guztiak berdintzen zituela Estatuari soldadutzarekin zerbitzatzeko eta zergak ordaintzeko betebeharretan, 1876ko uztailaren 21eko Lege Proiektua aurkeztu zuen Gorteetan. Bi helburu hauek zituen:

- Lehenik, soldadutzarako deialdiak lortzea, eta...
- bigarrenik, probintziek egin beharko zituzten zerga ekarpenak zehaztea.

Foru instituzioek errezelok agertu ondoren, eta udalekin batere akordiorik egin gabe, botere exekutiboak 1877ko azaroaren 13ko Dekretua eman zuen. Horrek jarri zituen aurrerantzean euskal probintzia horiek izango zuten ekonomia erregimen bereziaren oinarriak (itun erregimenarenak), zeren urtean-urtean probintzia bakoitzak ordaindu beharko zituen kuota osoak ezarri baitzituen. Foru diputazioek dekretu hori ez betetzean (hartara behartuta egonik Batzar Nagusien aginduaren aurka ez joatekotan) Gobernuaren aginduz foru diputazioak (euskal foru erregimeneko azken erakunde tradizionalak) deseginda geratu ziren, eta bitarteko diputazio batzuk izendatu ziren probintziako diputazio berriak erregimen orokorraren barruan aukeratu artean.

Hala, diputazio horiek jarri zituzten gaur egun Ekonomia Ituna deritzanaren oinarriak, hain zuzen kopurua gehiegizkoa zela-eta aipatutako dekretu horren aurka Gobernuari hel egin eta negoziaketaren ondorioz lortu zutenean 1878ko otsailaren 28ko Erret Dekretua ematea, hau da, euskal probintzietako lehen ekonomia ituntzat jotzen dena.

Ekonomia Itun horrek 8 urte iraun zuen eta, ondotik, 1887ko Aurrekontu Orokorren Legeko 14. artikulua bitartez onartutako bigarren ituna etorri zen, hura ere 8 urteko indarraldiarekin. Itunen iraupena aldatu egin da denboran zehar, baina iraunaldia luzatzeko joera nabari da, Hala, lehenbizikoa 8 urtekoa izan zen eta oraingoa mugagabea da, honen aurrekoa 25 urterako izan zelarik.

Beste ekonomia itunak data hauetakoak izan ziren: 1894ko otsailaren 1ekoa (hirugarrena), 1906ko abenduaren 13koa (laugarrena), eta 1925eko ekainaren 9koa bosgarrena). Bosgarren hori izan zen 25 urterako aurreikusitako lehenbizikoa, baina, hain zuzen, iraupen laburragoa izan zuen, Borboien monarkia amaitu eta II. Errepublika etorri zela eta.

Errepublika garai horretan Lizarrako Estatutua zeritzana prestatu zen. Testu horrek, gauzatzera iritsi ez bazen ere aipagarria denak, alde batetik Itunaren onarpena eskubide historikoak ez ukatzearekin bateratu zuen, eta, beste alde batetik, konfederazio ikuspegia ageri zuen argi eta garbi Euskal Herri barneko foru lurraldeen eta "Estatu Autonomoa" zeritzanaren arteko harremanetan.

Gerrate zibilaren garaian emandako 1937ko ekainaren 23ko Lege Dekretuak gauzak honela jarri zituen: Gipuzkoako eta Bizkaiko itunpeko zerga erregimena indarririk gabe utzi zuen; Araba, aldiz, erregimen hari "oso-osorik eutsiz", beste egoera batean jarri zuen; eta Nafarroak, berriz, "erregimen ekonomiko eta administratibo berezi bat" izaten jarraituko zuen.

Francoren erregimenaren garaian, 1952ko otsailaren 29an, seigarren Ekonomia Ituna eman zen, funtsean kudeaketa administratiboko ikuspegi soila zuena, Arabarako bakar-bakarrik. Haren ondotik 1976ko azaroaren 26ko Ituna (zazpigarrena) etorri zen, trantsizio politikoaren garaian onartua; horrek nolabait hurrengo ere iragartzen zuen, alegia, 1978ko Konstituzioa eta Gernikako Estatutua onartu eta gero, 1981eko maiatzaren 13ko 12/81 Legearen bitartez onartutako Ekonomia Ituna, eta hori bilakatu da (zenbait aldaketa bidean egin zaizkiola) gaur eguneko biztanleriaren gehiengoarentzat ekonomia itunaren erreferentzia.

Bukatzeko esan dezagun hainbat gorabehera bihurriten eta negoziaketa aztoragarriren buruan (ezin ukatu negoziaketak horrelakoak izan ohi zirenik ekonomia itunen historia guztian), 2002ko maiatzaren 23ko 12/02 Legea onartu zela, gaur egun indarrean dagoen 2002ko Ekonomia Itunaren araudia jasotzen duena.

III ITUNA, 1981-1999.

ALDAKETA ETA EGOKITZAPEN NAGUSIAK

1981eko maiatzaren 13ko 12/81 Legearen bitartez onartutako Ekonomia Itunak bigarren xedapen gehigarrian aurreikusten zuen, baldin Estatuaren zerga antolamendu juridikoan funtsezko berrikuntzarik egingo balitz, eta berrikuntza horrek itundutako tributu guztiei edo batzuei eragingo balie, bi administrazioek, ados jarrita, Ekonomia Ituna tributu horietan izandako aldaketetara egokituko luketela.

Orobat, Ekonomia Itunaren aipatutako xedapeneko Bat atalak oinarria ematen du bi administrazioek, elkarrekin ados jarrita, Itunari egoki iritzitako aldaketa guztiak egin diezazkioten.

Horrela egin zitzaizkion hemen azaltzen diren aldaketa hauek:

1985eko abenduaren 27ko 49/85 Legea, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna Balio Erantsiaren Zergari egokitzekoa.

Balio Erantsiaren Zerga Estatuaren zerga sisteman sartzeak funtsezko aldaketa bat ekarri zion Estatuaren zerga antolamendu juridikoari, eta horrek eragina zuen zenbait zerga itundutan, batez ere Enpresa Trafikoaren gaineko Zerga Orokorrean, Luxuaren gaineko Zergan eta zerga berezietan.

Egoera horrek behartuta, Ekonomia Ituna Balio Erantsiaren Zergari egokitu zitzaion.

1990eko ekainaren 8ko 2/90 Legea, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna Toki Ogasunen Lege Arautzaileari eta Tasa eta Prezio Publikoen Legeari egokitzekoa.

Tokiko finantza sistemaren arautze berriak eta, zehazkiago, toki entitateen zerga sistemaren arautze berriak, beste funtsezko aldaketa bat ekarri zion Estatuko zerga antolamendu juridikoari, eta eragina izan zuen zerga itundu batzuetan eta tokiko finantza jarduerako beste gai batzuetan.

Era berean, Estatuko tasa sistema aldatzeak eta, sistema horren barruan prezio publikoen finantza kategoria berria sortzeak, orduan gai horretan itunduta eta indarrean zegoena aldatzea eragin zuen.

Egoera horrek behartuta, Ekonomia Ituna tokiko finantza sistema berriari eta tasa eta prezio publikoen sistema berriari egokitu zitzaion, itunduta zeudenen orde berriak ezarri baitziren.

1990eko abenduaren 29ko 27/90 Legea, 1981eko maiatzaren 13ko 12/81 Legearen bitartez onartutako Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna zati batean aldatzen duena.

Sozietateen gaineko Zergari buruz itundutakoaren esparru zehatzean urteetan izandako esperientziak agerian jarri zuen gai horretako erregimen itunduan zenbait aldaketa sartu beharra. Xede horrekin, bada, eta Ekonomia Ituneko bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoan oinarriturik, zerga hori ituntzeko sistema berri bat erabaki zen, Kupoaren Batzorde Mistoak 1990eko urriaren 4an egindako bileran onartua.

Lege horretan, halaber, aldaketa batzuk egin zitzaizkion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen itunduari, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoan egindako aldaketan ondorio zirenak.

1993ko abenduaren 13ko 11/93 Legea, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna Balio Erantsiaren Zergaren Legeari eta Zerga Berezien Legeari egokitzea.

Europako Ekonomia Erkidegoaren esparruko zerga harmonizazioko prozesuaren ondorioz, Balio Erantsiaren Zerga beste era batera arautu zen 1992ko abenduaren 28ko 37/92 Legearen bitartez, eta zerga berezietan ere (adib. Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia) araudia aldatu zen 1992ko abenduaren 28ko 38/92 Legearen bitartez. Batak zein besteak funtsezko aldaketak eragin zituzten Estatuaren zerga antolamendu juridikoan, eta aldaketa horiek eragina zuten zerga itundu batzuetan.

Egoera horrek behartuta, Ekonomia Ituna egokitu egin zen.

1997ko abuztuaren 4ko 38/97 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna aldatzea onartzen duena.

Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko 1996ko abenduaren 30eko 13/96 Legearen bitartez Aseguru Primen gaineko Zerga ezarri izanak funtsezko aldaketa bat eragin zuen Estatuko zerga antolamendu juridikoan.

Orobat, 12/1981 Legearen bitartez onartutako Ekonomia Itunaren aipatutako bigarren xedapen gehigarriko Bat atalak oinarria ematen zuen bi administrazioek, elkarrekin ados jarrita, Itunari egoki zeritzen aldaketa guztiak egin ziezazkieten. Horretan oinarrituta, honako erregimenetan aldaketak egitea erabaki zen: zerga harmonizazioaren eta elkarlanaren printzipioetan; ez-egoiliarrek lortutako errendimenduak zergapetzen dituzten tributuen ordainarazpenean; Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aplikatu beharreko araudian; eta sozietate taldeen tributazioan.

Bestalde, Hidrokarburoen gaineko Zerga Berezia eta Tabakoaren gainekoa biltzeko zerga monopolioak desagertu zirenean, foru ahalmena bere osotasunera eraman behar zen, eta horretarako Ekonomia Itunari aipatutako zerga horiei buruzko ituna eranstea erabaki zen.

Bigarren ituntze mugatu horren eta foru ahalmena bere osotasunera eramate horren testuinguruan, beharrezkoa eta egingarria zen, esandakoaz gainera, alkoholen gaineko zerga berezia ere ituntzea.

2002ko maiatzaren 23ko 12/02 Legea, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena.

Lege horren bitartez gaur egun indarrean dagoen Ekonomia Ituna onartu zen.

IV EKONOMIA ITUNAREN NEGOZIAKETAKO KRONOLOGIA

_2001eko uztailen lehen harreman bat izan zuten Lehendakariak eta Espainiako Gobernuak lehendakariak.

_Telefonoz elkarriketa batzuk egin ondoren, 2001eko abuztuaren lehen astean negoziazioei irailen ekitea erabaki zen.

_2001eko irailaren 6an Eusko Jaurlaritzak lehen dokumentu bat bidali zuen Lurralde eta Erkidegoetako Zerga Politikako Idazkaritza Nagusira, laster egitekoak ziren bileretan zer gai aztertu beharko ziren azalduz. Dokumentu hori Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek elkarrekin adostua zen.

_Irailaren 19an bilera bat egin zen, Ogasuneko ministroa eta euskal ordezkaritzan lehendakariordea eta hiru diputatu nagusiak bertan zirela. Bi lantalde sortzea erabaki zuten, bata zerga alorrekoa (zerga itunduen gaiak aztertzeko) eta bestea finantza alorrekoa (Kupoari buruzko gaiak aztertzeko), eta orobat negoziazioak berehala hastea. Lantaldeek hainbat bilera egin zuten 2001eko irailen eta urrian zehar.

_2001eko urriaren 24an euskal ordezkaritzak Ekonomia Itunaren lehen testu artikulatua aurkeztu zuen. Aurretik Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek bilerak egin zituzten Itunaren proposamen testu bat erabakitzeko.

_Urri eta azaroko negoziazio horietan barna aurrerapenik ez zela egiten ikusirik, euskal ordezkaritzak barne bilera batzuk egin zituen eta bere proposamena 1981eko Ekonomia Itunera hurbiltzea erabaki zuen. Estatuak bere aldetik estatusari eutsi eta idazketako hobekuntzaren bat edo beste onartu besterik ez zuen egin. Bestalde, finantza gaietako lantaldeak urriaren bukaeran zenbait puntu adostea lortu zuen, nahiz eta auzi nagusiaren gainean, hau da, Kupoan, ados jarri ez. Euskal ordezkaritzak Kupoaren zenbatekoa finkatzeko bi metodologia proposatu zituen bitartean, Espainiako Gobernuak "Kupo handiago bat" begiztatzeko zifra bat proposatu zuen, zehazki 188.677 milioi pezetakoa (1.133.971.608 €) 2002rako.

_2001eko azaroaren 15ean Ogasuneko ministroa eta lehendakariordea elkartu ziren, eta lehendakariordeak dokumentu bat eta Kupo proposamen bat eraman zizkion. Hori euskal ordezkaritzaren bigarren proposamena zen. Idatzian, 174.265,6 milioi pezetan zenbatetsitako Kupo (ez likidoa) sinatzeko bete beharko liratekeen "gutxieneko edukiak" zein ziren ezarri zen. Proposamen orokor bat zen, Kupoaren zenbatekoa finkatzeko dokumentuko gainerako edukiak ontzat hartzea beharrezkotzat jotzen zuena. Ministroak hurrengo astean emandako erantzunean zenbait hobekuntza zeuden; horien artean garrantzitsuenak

Aurrekontuaren egonkortasun legeetan eta egiteko zegoen Zerga Lege Orokorrean Ekonomia Ituneko sistemaren berezitasuna jasotzeko hitza eman zuela. Gainerako gaiak aztertzeko hitza eman zuen eta 188.677 milioi pezetako kopurua berretsi zuen.

_2001eko azaroaren 22an Espainiako Gobernuak fax bat bidali zuen Eusko Jaurlaritzara eta foru aldundietara, Ekonomia Itunaren testuan dagoeneko 68 hobekuntza edo puntu adostu sartu zirela eta nahikoa zeritzola adieraziz. Desadostasunak alde batera utzi behar zirela adierazten zuen, eta bere asmoa zela akordioa sinatzeko Kupoaren Batzorde Mistoan biltzeko deia egitea edo, bestela, Itunaren luzapena tramitatzea. Euskal ordezkariaren iritziz, gauza pare bat alde batera utzita, haiek amore eman omen zuteneko 68 gauzak garrantzi gutxiak ziren.

_2001eko azaroaren 23an euskal ordezkariak Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek adostutako beste hirugarren proposamen bat bidali zuen, Ekonomia itunaren eta Kupoaren gaia behin betiko ixteko asmoz.

_2001eko azaroaren 27an Espainiako Gobernuak Itunaren testu bat proposatu zuen.

_Euskal ordezkariak 2001eko azaroaren 23an aurkeztutako hirugarren dokumentua oinarritzat hartuta negoziaketak egin ziren Ogasun Ministerioan azaroaren 27, 28 eta 29an. Euskal ordezkariak gogotik saiatu zen Estatuaren ordezkariak behin eta berriz aipatutako bidea, hots, Estatuak bere aldetik Ituna luzatzeko, har ez zezan.

_2001eko azaroaren 29an adostasunik gabe bilera bukatu ondoren, Ogasuneko ministroa hurrengo goizeko 8:00etan Kupoaren Batzorde Mistoan biltzeko deia egiten saiatu zen. Bilera hori ez zen egin, Batzorde Mistoan biltzeko bi aldeek adostasuna behar delako.

_2001eko azaroaren 30ean Ministro Kontseiluak, alde bakarreko ekimenez, Ituna Luzatzeko Lege Proiektua tramitean jarri zuen.

_Espainiako Diputatuen Kongresuko Alderdi Popularreko talde parlamentarioak aurkako botoa eman zion Aurrekontuaren Egonkortasuneko Legearen eztabaidan Itunaren foru sistemaren gaineko Eusko Alderdi Jeltzalearen transakzio zuzenketari, Nafarroako Hitzarmenerako onartutakoaren antzeko edukia izan arren.

_Alde bateko luzapena tramitean egon arren, euskal ordezkariaren iritziz abendua ere hil baliagarria zen negoziatzeko eta Itun berriari buruzko akordioen bat lortzeko. Kupoaren Batzorde Mistoan lortutako akordioak abenduaren 31rako Gorteetara bidaltzea zen kontua.

_2001eko abenduaren 12an lehendakariordea eta hiru diputatu nagusiak berriro elkartu ziren Ogasuneko ministroarekin. Bileran desadostasunak zertan zeutzan aztertu zuten eta lantaldeari eman zioten haien inbentario zehatza egiteko ardura.

_2001eko abenduaren 13an lantaldea bildu zen eta atzera pausoak antzeman ziren Estatuko ordezkariaren jarretan.

_2001eko abenduaren 26an azken negoziaketa aldia hasi zen. Lehendakariordeak Eusko Jaurlaritza eta foru aldundien artean adostutako akordio proposamenen beste dokumentu bat aurkeztu zuen. Euskal ordezkariaren laugarren testua zen hori.

_Akordio Proposamen orokor hori izan zen, berriro ere, 2001eko abenduaren 26 eta 27ko bileretako gida, baina bilerak berriz ere desadostasunean amaitu ziren.

_2001eko abenduaren 28an lehendakariordeak eta Ogasuneko ministroak idatziak bidali zizkieten elkarri. Ministroak esan zuen negoziaketako puntu guztietan jarri zirela ados, Euskadiko instituzio autonomikoek Europako instantzietan zuzenean parte hartzeari buruzkoan izan ezik.

_Estatuaren jarrera ikusirik Europako gaia beste modu batera planteatu zen. Eta 2001eko abenduaren 30ean euskal ordezkariak beste proposamen bat egin zuen, bosgarrena, zeinetan Europako gaia Itunaren Legetik kanpo uzten zuen, eta Itunaren Batzorde Mistoaren esku jartzen Euskadiko Erkidegoak Europan parte hartzeko mekanismoak adosteko gaitasuna.

_Ministerioak ez zion "erantzun formal" ofizialik eman azken proposamen horri.

_2001eko abenduaren 31n, Jaurlaritzaren aparteko bilera baten ostean, Lehendakariak Adierazpen Institutuzional bat egin zuen, honako puntu hauetan laburbil daitezkeen erabakien berri emateko:

- Itunaren hitzarmen izaera eta bi aldeketasuna hautsi izana salatzea.
- Espainiako Gobernua bere ordezkarietat ez hartzea Europako Ministroen Kontseiluaren aurrean.
- Espainiako Gobernuari bakarkako itunik edo zatitzailek ez egiteko eskatzea.
- Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluari gaitasunik ez aitortzea Ekonomia Itunari dagokionez.
- Ordaindu beharreko kupoa kalkulatzeko luzapenaren metodologia aplikatzea eta ondorioz 151.000 milioiko kopurua finkatzea.

- Negoziaketen jarraipenari begira jarrera ireki, malgu eta leialean irautea.
- Euskal gizarteari lasai egoteko mezua bidaltzea.

_Sortutako egoera ikusirik, 2002ko urtarrilaren 22an lehendakariordeak Ogasuneko ministroari idatzi zion, elkarrizketei eta negoziaketei berriz heldu nahia azalduz, hark egoki iritzitako moduan. Espainiako Gobernuak erantzun zuen esanez Ekonomia Itunari buruzko gaien muina adostuta zegoela, eta ez zela falta sinatzea besterik.

_2002ko otsailaren 6an beste eskutitz bat bidali zion lehendakariordeak Ogasuneko ministroari; bertan European agertzearen kontua foro eta datarik zehaztu gabe uztea proposatzen zuen, baina bi aldeketasuna errespetatzekotan.

_2002ko otsailaren 12an Ogasuneko ministroak negoziaketan desadostasun teknikoak bazeudela aitortu zuen Senatuan egindako agerpen batean. Berrito biltzeari baiezkua eman zion jende aurrean.

_2002ko otsailaren 20an bilera bat egin zen. Bezperan lehendakariordeak bera eta hiru diputatu nagusiak bertan izango zirela iragarri zuen. Ogasun Ministeriotik, berriz, hasiera batean teknikariak biltzea proposatu zen, baina azken orduan Ogasuneko ministroak bilerara joatea erabaki zuen. Egun hartan akordio bat lortu zen, euskal ordezkariak 2001eko abenduaren 30ean Itunari, Kupoari eta beste puntu osagarri batzuei buruz egindako azken proposamena onartu baitziren. Laugarren (4.) puntua bakarrik geratu zen kanpoan, European agertzeari buruzkoa. Puntu hori Ekonomia Itunaren testuan jaso gabe geratu zen arren, lehendakariordeak gau hartan bertan adierazi zuen gai hori oso garrantzitsua zela artean ere Eusko Jaurlaritzarentzat, eta ez zuela inola ere etsitzen, nahiz eta horren eztabaida beste foro batzuetara eraman beharko zen, beti ere bi aldeketasuna errespetatuta.

_2002ko martxoaren 6an Kupoaren Batzorde Mistoa bildu zen. Han onartu zen Ekonomia Ituna eta 2002-2006 bosturtekorako Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Kupo finkatzeko metodologia, baita zerga eta finantza gaietako beste akordio batzuk ere.

_2002ko martxoaren 22an Ministroen Kontseiluak Gorteetara Ekonomia Itunaren Lege Proiektua eta 2002-2006 bosturtekorako Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Kupo finkatzeko metodologiarena bidaltzea onartu zuen.

_2002ko apirilaren 18an lege proiektu horiek Diputatuen Kongresuan onartu ziren.

_2002ko maiatzaren 14an lege proiektu horiek Senatuan onartu ziren.

_2002ko maiatzaren 24an honako legeak argitaratu ziren Estatuko Aldizkari Ofizialean:
2002ko maiatzaren 23ko 12/02 Legea, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia
Ituna onartzen duena, 2002ko maiatzaren 23ko 13/02 Legea, Euskadiko Kupa 2002-
2006 bosturtekorako zehazteko metodologia onartzen duena, eta 2002ko maiatzaren 23ko
4/02 Lege Organikoa, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen
duen legearen osagarria.

V KUPOAREN BATZORDE MISTOAK


Lehen erabakia	1.- Onarturik geratzen da Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidearen arteko Ekonomia Ituna. Bere testua I. eranskin gisa jasotzen da akta honekin batera. 2.- Erantsita doan testu hori erakunde eskudunei helarazten zaie geroago tramita dezaten.
Bigarren erabakia	Egiteko dagoen Zergen Lege Orokorraren testuan Estatuko Administrazioak Ekonomia Itunaren berezitasuna aintzat hartzea bultzatuko du.
Hirugarren erabakia	2002. urtean lantalde bat sortuko da pertsona juridikoen ibilgailuen zirkulazio baimenean ageri den helbidea Aseguru Primen gaineko Zergan konexio puntu bezala erabiltzeko aukera azter dezan.
Laugarren erabakia	Inportazioarekin parekatzen diren eragiketen BEZa dela eta, lantalde bat sortuko da eragiketa horiek nola itundu aztertzeko. 2002ko ekitaldian lantalde horrek txosten bat aurkeztu beharko du honako gai honen inguruan: Fabrikazio Zerga Bereziei atxikitako produktuen inportazioarekin parekatzen diren eragiketak eta, bereziki, Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zerga Berezia atxikitako produktuenak foru aldundiek kudeatu ahal izatea.
Bosgarren erabakia	Lurralde historikoetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunek aitortzen dute Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergagatik bildutakoa bere osoan geratzen dela aurrekontuz kanpoko xedeei lotuta, eta ordenamendu komunitarioarekin bat etor dadin ondorengo printzipioak bete behar dituela: 1.- Zerga berria osasun alorreko edo ingurumena babesteko politikek ezarritako helburuen barruan integratuko da. 2.- Lortu beharreko helburuekin bat datozenean eta haiekiko proportzioa gordetzen dutenean izaten ahalko dira finkatzen diren zerga tasak lurralde komunean indarrean dagoen minimoa baino handiagoak. Hori dela eta, administrazio horiek hitz ematen dute Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergatik eratortzen diren etekin guztiak osasun alorreko gastuak finantzatzeko erabiliko dituztela. Nolanahi ere, zerga tasek lurralde komunean indarrean dagoen minimoa gainditzen dutenean, tasa horiek sortzen dituzten baliabideak ingurumen arloko jarduketak finantzatzera bideratu ahal izango dira.

Seigarren erabakia	Estatuko Administrazioaren ekimenez, abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoaren Amaierako Lehen.Bi Xedapena (Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Lege Orokorren Lege Osagarrian jasota), eta, orobat, abenduaren 12ko 18/2001 Legearen Amaierako Bosgarren.Bi Xedapena (Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Lege Orokorrean jasota), honela geratuko dira idatzita: “Foru erregimena dela medio, lege honetan xedatutakoa Ekonomia Itunaren Legean jasotakoa eragotzi gabe aplikatuko da Euskal Autonomia Erkidegoan”.
Zazpigarren erabakia	1.- Euskal Herriko 2002-2006 bosturtekorako Kupoa zehazteko metodologia onarturik geratzen da. Metodologia horren testua II. eranskin gisa jasotzen da akta honekin batera. 2.- Erantsita doan testu hori erakunde eskudunei helarazten zaie geroago tramita dezaten.
Zortzigarren erabakia	INSALUD, IMSERSO eta ISM erakundeek eskaintzen dituzten gizarte zerbitzuak eta osasun laguntza finantzatzeko sistema aldatu dela-eta, Batzorde Misto honek erabaki du Euskal Autonomia Erkidegoari transpasatu zaizkion zerbitzuen finantzazioak dagoeneko bereganatuak dituen gainerako kargen tratamendu bera izatea. Beraz, azaroaren 6ko 1536/1987 Errege Dekretuan, urriaren 2ko 1476/1987 Errege Dekretuan, abuztuaren 23ko 1946/1996 Errege Dekretuan eta apirilaren 2ko 558/1998 Errege Dekretuan traspaso horietarako ezarrita dagoen aurrekontu erregimena erabaki honetan xedatutakora eta 2002-2006 bosturtekorako Kupoa zehazteko metodologiaren Legean jasotakora egokitzen dela joko da. Kupoaren Batzorde Mistoaren akordioz, Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko transferentziak aztertzen dituen Batzorde Mistoko idazkaritzei Erabaki honen berri emango zaie batzorde horrek bilera egiten duen unean aintzat har dezan.
Bederatzigarren erabakia	Kupoaren Batzorde Mistoan ordezkaturik dauden erakunde eta administrazioek behin betiko likidatu eta kitatutzat jotzen dituzte oraindik gauzatu gabe egon daitezkeen eta Akordio hau izenpetu arte exijigarri litezkeen fluxu finantzario guztiak. 2001eko Kupoaren behin betiko likidazioak ez dira aurrekoan sartuko behin betiko eguneratze indizeari eta 37/97 Legearen 11.4 artikuluan ezarritako doikuntzei dagokienez. Era berean, 2001. urteko konpentsazio finantzarioak eta kontsumoko doikuntzak aplikatu zain dauden behin betiko likidazioak, eta, orobat, zergapekoek behar ez den Administrazioan ordaindutako zerga zorrak aurrekotik kanpo geratzen dira.

Hamabigarren erabakia

Akta honen zazpigarren erabakian onartutako metodologiaren bosgarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraiki, bi administrazioek sei hilabeteko epean finkatuko dute zein den Ertzaintzaren plantila handitzeak 2002. urtean, bosturtekoaren abiaburu urtean, dakarren kostu ekonomikoa. Erabakitzen den finantzazioak abiaburu urteko kupo likidoa gutxituko du, eta berrikusitako kupo likidoa izango da plantila handitzen den ekitaldiko Kupoa eta hurrengo ekitaldietakoa zehazteko erabiliko dena.

Akademian ematen duten hasierako prestakuntzaldian, ikasleko kostua ertzain bakoitzeko finkatutako kostu ekonomikoaren portzentaje bat izango da.



EKONOMIA ITUNAREN LEGEA, 2002KO MAIATZAREN 23KOA

AZALPENAK

Artikulu bakarra	27
XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA	28
XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA	28
AMAIERAKO XEDAPEN BAKARRA	28

EKONOMIA ITUNA

I. kapitulua: ZERGAK

1. atala	ARAU OROKORRAK	
1. artikulua	Lurralde historikoetako erakundeen eskumenak	31
2. artikulua	Printzipio nagusiak	31
3. artikulua	Zergak harmonizatzea	32
4. artikulua	Lankidetzaren printzipioa	32
5. artikulua	Estatuarenak bakarrik diren eskumenak	33
2. atala	PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA	
6. artikulua	Aplikatu beharreko arauak eta Zergaren ordainarazpena	33
7. artikulua	Laneko etekinak direla eta egindako atxikipean eta konturako sarrerak	33
8. artikulua	Konturako ordainketak, ekonomia jardueren etekinaren zioz	34
9. artikulua	Higigarrien kapitalaren etekinak direla eta, egindako atxikipean eta konturako sarrerak	35
10. artikulua	Atxikipean eta konturako sarrerak, zenbait ondare irabaziren zioz	37
11. artikulua	Kontura egin beharreko beste ordainketa batzuk	37
12. artikulua	Konturako sarreraren eraginkortasuna	37
13. artikulua	Errentak egozteko eta eratzitzeko araubidepean diren erakundeak	38
3. atala	SOZIALTATEEN GAINEKO ZERGA	
14. artikulua	Aplikatu beharreko arauak	38
15. artikulua	Zerga ordainaraztea	39
16. artikulua	Eragiketak non egin diren	39
17. artikulua	Zergaren konturako ordainketa	41
18. artikulua	Zergak bi administrazioetan ordaintzen dituztenen kasuan, Zerga nola kudeatu	41
19. artikulua	Zergaren ikuskapena	42
20. artikulua	Interes ekonomikoko elkarteak, aldi baterako enpresa elkarteak eta zerga taldeak	43

4. atala	EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA	
21. artikulua	Aplikatu beharreko arauak	44
22. artikulua	Zergaren ordainarazpena	44
23. artikulua	Konturako ordainketak	47
5. atala	ONDAREAREN GAINEKO ZERGA	
24. artikulua	Aplikatu beharreko arauak eta zergaren ordainarazpena	48
6. atala	OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGA	
25. artikulua	Aplikatu beharreko arautegia eta zergaren ordainarazpena	48
7. atala	BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA	
26. artikulua	Aplikatu beharreko arauak	49
27. artikulua	Zergaren ordainarazpena	50
28. artikulua	Eragiketen lekua	51
29. artikulua	Zergaren kudeaketa eta ikuskapena	53
8. atala	ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA	
30. artikulua	Aplikatu beharreko arauak	55
31. artikulua	Zergaren ordainarazpena	55
9. atala	ASEGURU SARIEN GAINEKO ZERGA	
32. artikulua	Aplikatu beharreko arauak eta zergaren ordainarazpena	58
10. atala	ZERGA BEREZIAK	
33. artikulua	Aplikatu beharreko arautegia eta zergen ordainarazpena	59
11. atala	ZENBAIT HIDROKARBUIROREN TXIKIZKAKO SALMENTAREN GAINEKO ZERGA	
34. artikulua	Aplikatu beharreko arauak eta Zergaren ordainarazpena	60
12. atala	ZEHARKAKO BESTE ZERGA BATZUK	
35. artikulua	Aplikatu beharreko arauak	61
13. atala	JOKOAREN GAINEKO ZERGAK	
36. artikulua	Aplikatu beharreko arauak	61
37. artikulua	Zergen ordainarazpena	61
14. atala	TASAK	
38. artikulua	Tasak ordainarazteko eskumena	61
15. atala	TOKI OGASUNAK	
39. artikulua	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	61
40. artikulua	Ekonomia jardueren gaineko Zerga	62
41. artikulua	Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	62
42. artikulua	Beste toki zerga batzuk	62
16. atala	KUDEAKETA ETA JARDUNBIDEKO ARAUAK	
43. artikulua	Ohiko bizilekua eta zerga egoitza	63
44. artikulua	Delitu fiskala	65
45. artikulua	Finantza etxeen lankidetzaren zergen kudeaketan, eta zergen ikuskatzailatzaren jarduketak	66
46. artikulua	Informatu beharra	66
47. artikulua	Enpresak batzea eta banatzea	67

II. kapitulua: FINANTZA - HARREMANAK

1. atala	ARAU OROKORRAK	
48. artikulua	Printzipio nagusiak	69
49. artikulua	Kupoa: kontzeptua	69
50. artikulua	Kupoaren aldizkakotasuna eta eguneratzea	69
51. artikulua	Itundu gabeko zergak direla eta izandako diru sarreretatik Euskadiko toki erakundeei eman beharrekoa	70
2. atala	KUPOA ZEHAZTEKO METOLOGIA	
52. artikulua	Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko kargak	70
53. artikulua	Balio Erantsiaren gaineko Zerga kontsumoari doitzea	71
54. artikulua	Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak kontsumoari doitzea	72
55. artikulua	Beste doikuntza batzuk	73
56. artikulua	Konpentsazioak	73
57. artikulua	Egozpen indizeak	74
58. artikulua	Bereganatutako eskumenak aldatzeak behin-behineko kupoa duen eragina	74
59. artikulua	Behin-behineko eta behin betiko likidazioak	74
60. artikulua	Kupoa ordaintzea	75

III. kapitulua: EKONOMIA ITUNAREN BATZORDEAK ETA ARBITRAJE BATZORDEA

1. atala	EKONOMIA ITUNAREN BATZORDE MISTOA	
61. artikulua	Kideak eta erabakiak	77
62. artikulua	Eginkizunak	77
2. atala	ARAUGINTZA KOORDINATU ETA EBALUATZEKO BATZORDEA	
63. artikulua	Kideak	77
64. artikulua	Eginkizunak	77
3. atala	ARBITRAJE BATZORDEA	
65. artikulua	Kideak	79
66. artikulua	Eginkizunak	79
67. artikulua	Arbitraje Batzordearen erabakiak	79
	LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA	80
	BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	80
	HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	80
	LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	80
	BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	81
	SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	81
	LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA	81
	BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA	81
	HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA	82
	LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA	82
	BOSGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA	82
	SEIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA	82
	ZAZPIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA	83
	AZKEN XEDAPENA	

VI EKONOMIA ITUNAREN LEGEA, 2002KO MAIATZAREN 23KOA

AZALPENAK

Ekonomia Itunaren zuzenbide marko positiboaren oinarria Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria da. Izan ere, xedapen hori dela medio foru lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatzen dira, bai eta foru erregimen horren eguneratze orokorra Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuaren barruan antolatu ere.

Konstituzioaren agindua betez, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaz onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak arlo horretako printzipio nagusia finkatu du: euskal lurralde historikoetako erakunde eskudunek beren zerga sistema eduki, finkatu eta arautu ahal izatea.

Foru arloko zerga ahalmena euskal nortasunaren bereizgarriaren osagai material gisa gauzatuko bada, aldi berean finantza eta zerga esparruko harremanak modu egokian antolatu behar dira Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean. Horretarako, Autonomia Estatutuak jasotakoaren arabera, Ekonomia Itunaren tradiziozko foru sistemaz edo hitzarmenez arautuko dira zerga harremanak. Printzipio horren ondorio logikoa da bi Administrazioen artean fluxu finantzarioak egotea, hain zuzen Itunean jasota geratu behar direnak.

Aipatu kontestuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren lehen Ekonomia Ituna maiatzaren 13ko 12/1981 Legeaz onartuta geratu zen. 2001eko abenduaren 31ra arteko iraupen mugatua finkatu zen Itunerako, Arabako probintziarekiko Itun eragilearekin jokatu zen bezala.

Lege hau dela medio onartzen den Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak 1981eko Itunaren printzipio, oinarri eta jarraibide berberei jarraitzen die, azken hoge urteotako esperientziaz baliaturik. Era berean, Ituna aplikatzean lege segurtasun handiagoa lortzeko bide edo prozedurak indartu dira.

Bestetik, Ekonomia Ituna mugagabea izango da aurrerantzean, jarraikortasuna bermatzen duen marko egonkor batean txertatzeko asmoz, Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuaren babesean. Horri lotuta, estatuko zerga sisteman izan daitezkeen aldaketetara egokitzeko bideak aurreikusi dira.

Horrekin guztiarekin bat etorririk, bi Administrazioek oraingo Ituna finkatu dute, elkarrekin adostuta eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko lehendabiziko Ekonomia Ituna onartzeko erabilitako prozeduraren arabera. Horretarako, Kupoaren Batzorde Mistoak Akordioa hartu du 2002ko martxoaren 6an.

Artikulu bakarra.

Onarturik geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Ituna, Euskal Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak 41. artikuluan aipatzen dena, lege honek eranskinean finkatutakoari jarraituta.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Idazkera berria eman zaio Aurrekontuen Egonkortasnari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorrreko amaierako bosgarren xedapenaren 2 apartatuari. Hona hemen testua:

“Foru erregimena dela medio, lege honetan xedatutakoa Ekonomia Itunaren Legean jasotakoa eragotzi gabe aplikatuko da Euskal Autonomia Erkidegoan”.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, indarrik gabe geratuko dira haren edukiaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapenak.

AMAIERAKO XEDAPEN BAKARRA

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

I. kapitulua: ZERGAK



I. kapitulua ZERGAK

1. Atala ARAU OROKORRAK

1. artikulua Lurralde historikoetako erakundeen eskumenak.

Bat. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek bakoitzak bere lurraldean zerga araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko ahalmena izango dute.

Bi. Lurralde historikoetako zerga sistema osatzen duten zergak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea foru aldundiei dagokie, bakoitzari bereak.

2. artikulua Printzipio nagusiak.

Bat. Lurralde historikoek ezarriko duten zerga sistemak printzipio hauek bete beharko ditu:

Lehenengoa. Elkartasunarekiko begirunea behar da, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan zehaztutako moduan.

Bigarrena. Estatuko zergen egitura orokorra kontuan izan behar da.

Hirugarrena. Estatuarekiko koordinazioa, zerga sistemen harmonizazioa eta lankidetzaz sustatu behar dira, Ekonomia Itun honetako arauak betez.

Laugarrena. Lurralde historikoetako erakundeen arteko koordinazioa, zerga sistemen harmonizazioa eta elkarrekiko lankidetzaz behar dira, Eusko Legebiltzarrak helburu horiek betetze aldera emandako arauak betez.

Bosgarrena. Estatu espainiarrak izenpetuta eta berretsita dituen nazioarteko itun edo hitzarmenen menpe egon behar da zerga-sistema, eta gauza bera gertatuko da gerora beste halakoren bati atxikitzen bazaio.

Bereziki, lurralde historikoetako zerga sistemak bat etorri behar du zergapetze bikoitza ekidite aldera Espainiak sinatuak dituen nazioarteko hitzarmenetan eta Europar Batasunak zerga harmonizazioari buruz emandako arauetan xedatutakoarekin, eta halako hitzarmen eta arauak aplikatzearen ondorioz burutu beharreko itzulketak bere gain hartu behar ditu.

Bi. Zergei buruzko Lege Orokorrean zerga arauak ulertzeko ezarritakoaren bidetik ulertu behar dira Ekonomia Itun honetako arauak.

3. artikulua Zergak harmonizatzea.

Zerga arauak sortzeko orduan, lurralde historikoek:

- a) Zergei buruzko Lege Orokorraren arabera egokitu behar dituzte terminologia eta kontzeptuak, Ekonomia Itun honetan ezarritako berezitasunak kontuan hartu behar badira ere.
- b) Benetako zerga presio orokorra Estatuko gainerako lekuetan dagoenaren parean mantendu behar dute.
- c) Espainiako lurralde osoan pertsonen joan-etorri askea eta pertsonak kokatzeko askatasuna errespetatu eta bermatu behar dira, baita ondasunen, kapitalen eta zerbitzuen joan-etorri askea ere. Ezin da bazterketarik gertatu; ezin dira enpresen lehiatzeko aukerak murriztu; eta ezin da baliabideen asignazioan distorsiorik eragin.
- d) Jardueren sailkapenak direla eta, abeltzaintza, meatzaritza, industria, merkataritza, zerbitzu, lanbide eta arte arloetan, lurralde erkidean erabiltzen den sailkapen berbera erabili behar dute, nahiz eta sailkapen zehatzagoa egiteko aukera eduki.

4. artikulua Lankidetza printzipioa.

Bat. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek Estatuko Administrazioari jakinaraziko dizkiote zergen arloko arauak egiteko proiektuak, arauok indarrean jarri baino nahikoa denbora lehenago.

Estatuko Administrazioak jakinarazpen berbera egin behar die lurralde historikoetako erakundeoi.

Bi. Nazioarteko akordioek Ekonomia Itun hau betetzeko orduan inolako eraginik baldin badute, akordio horietan Euskadiko erakundeek lankidetza ahalbidetzeko behar diren baliabideak jarriko ditu Estatuak.

Hiru. Estatuak eta lurralde historikoek, zergak kudeatu, ikuskatu eta biltze aldera eskumenez dagozkien zereginak betetzen dituzten bitartean, zerga horiek hobeto ordainarazteko beharrezkoak zaizkien datu eta aurrekari guztiak emango dizkiote elkarri, behar diren garaian eta eran.

Hain justu, administrazio batak eta besteak:

- a) Beharrezkoa duten informazio guztia emango diote elkarri, datuak prozesatzeko zentroen bitartez. Horretarako, behar den komunikazio teknika abiaraziko dute. Urtero, zerga mailako informatika plan koordinatua egingo dute elkarrekin.

b) Ikuskaritza zerbitzuek hainbat plan egingo dute, helburu, arlo eta hautaketa jardunbide koordinatu jakin batzuk batera ikuskatzeko. Gauza bera egingo dute, gainera, egoitza aldatu duten zergadunekin, zerga gardentasunaren araubidepeko erakundeekin eta Sozietateen gaineko Zergan eragiketen guztizkoaren proportzioan zergak ordaindu behar dituzten sozietateekin.

5. artikulua Estatuarenak bakarrik diren eskumenak.

Honako eskumen hauek estatuarenak bakarrik dira:

Lehenengoa. Zerga Berezien eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren barruan, inportazio eskubideak eta inportazio kargak arautzea, kudeatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea.

Bigarrena. Ekonomia Itun hau betetzen den begiratzea, goi mailako ikuskaritza eginda. Horretarako, eginkizun hori duten Estatuko organoek, urtero, betebeharrak horren emaitzak azaltzeko txosten bat egin behar dute, Eusko Jaurilaritzaren eta foru aldundien laguntzarekin.

2. Atala PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

6. artikulua Aplikatu beharreko arauak eta Zergaren ordainarazpena.

_Bat. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga itundutako zerga da eta araudi autonomoari lotuta dago. Lurraldearen arabera, eskumena daukan foru aldundiari dagokio zerga hori ordainaraztea, baldin eta subjektu pasiboaren ohiko bizilekua Euskadin badago.

_Bi. Familia unitate bereko subjektu pasiboek ohiko bizilekua lurralde desberdinetan baldin badaukate eta zergak batera ordaintzea erabakitzen badute, likidazio oinarri handiena duen kidearen ohiko bizilekuko lurraldeko Administrazioak izango du eskumena; likidazio oinarria kasuan kasuko lurraldeko arauari jarraituz kalkulatu da.

7. artikulua Laneko etekinak direla eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

_Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela eta eskumena daukan foru aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak Euskadin egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago.

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, Enpleguaren Nazio Erakundetik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko fondoetatik, pentsio planetatik eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak, eta enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak, baldin eta hartzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago.

c) Administrazio kontseilueta, ordezeko batzordeetako eta beste ordezkari organo batzuetako administratzaileen eta kideen ordainsariak, erakunde ordaintzailearen zerga egoitza Euskadin baldin badago.

Estatuak eta foru aldundiek eska dezaketen Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo diren erakundeen kasuan, bi administrazioei dagokie atxikipenak egitea, bakoitzari bere lurraldean burututako eragiketen guztizkoaren proportzioan. Horretarako, Sozietateen gaineko Zergarako azken aitorten likidazioan adierazitako proportzio bera aplikatuko da. Atxikipenok foru arautegiarekin edo arautegi erkidearekin bat etorritik eskatuko dira, erakunde ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergari buruzko, foru arautegia edo arautegi erkidea aplikatuz, eta irizpide beraren arabera eskumena daukan administrazio organoek egingo dute ikuskapena. Aurrekoa gorabehera, Zerga ordainarazteko eskumena daukan administrazioak ezarriko ditu aitorten likidazioa aurkezteko lekuari, erari eta epeari buruzko arauak.

Bi. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa hala izan arren, Estatuko Administrazioari dagozkio Estatuak bere funtzionarioei eta lan kontratuz eta administrazio kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari aktiboei eta pasiboei buruzko atxikipenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Aurreko paragrafoan xedatu dena ez zaie aplikatuko erakunde autonomoetako eta enpresa erakunde publikoetako funtzionarioei eta langileei.

8. artikulua Konturako ordainketak, ekonomia jardueren etekinen zioz.

Bat. Ekonomia jardueretatik datozen etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak lurraldea dela eta eskumena daukan foru aldundiak eskatuko ditu, bakoitzak bere arautegia kontuan hartuta, atxikipena egitera edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak ohiko bizilekua edo zerga egoitza Euskadin badu. Nolanahi ere, Estatuko Administrazioak eta foru-aldundiek bakoitzak berak ordaindutakoen etekinenak eskatuko dituzte.

Atxikipen eta konturako sarrera horiek ordainarazteko, lurralde erkidean aplikatutako tipo berberak aplikatuko dituzte foru aldundiek.

_Bi. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta konturako ordainketa zatikatuak egin behar direnean, lurraldearen arabera eskumena duen foru aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiarekin bat etorritik, zergadunak ohiko bizilekua Euskadin badu.

9. artikulua Higigarrien kapitalaren etekinak direla eta, egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

_Bat. Higigarrien kapitalaren etekinak direla eta egin beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak Estatuko administrazioak edo foru aldundi eskudunak eskatuko ditu, bakoitzak bere arautegia kontuan hartuta, honako arau hauen arabera:

Lehenengoa. Lurraldea dela eta eskumena duen foru aldundiak honako hauek eskatuko ditu:

a) Edozein erakunderen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak, baita obligazio eta antzeko tituluetako korrituak zein bestelako kontraprestazioak ere, etekin horiek ordaintzen dituzten erakundeek Sozietateen gaineko Zerga Euskadin bakarrik ordaintzen dutenean.

Estatuak eta foru aldundiek eska dezaketen Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo diren erakundeek kasuan, bi administrazioei dagokie atxikipenak egitea, bakoitzari bere lurraldean burututako eragiketen guztizkoaren proportzioan. Horretarako, Sozietateen gaineko Zergarako egindako azken aitortpen likidazioan adierazitako proportzio bera aplikatuko da.

Atxikipenok foru arautegiarekin edo arautegi erkidearekin bat etorritik eskatuko dira, erakunde ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergari buruzko, foru arautegia edo arautegi erkidea aplikatuz, eta irizpide beraren arabera eskumena daukan administrazio organoek egingo dute ikuskapena. Aurrekoa gorabehera, Zerga ordainarazteko eskumena daukan administrazioak ezarriko ditu aitortpen likidazioa aurkezteko lekuari, erari eta epeari buruzko arauak.

b) Autonomia Erkidegoak, foru aldundiek, udalek eta Euskadiko lurralde administrazioak eta erakunde administrazioak beste izakiek jaulkitako zor eta jesapenetako korritu eta bestelako kontraprestazioak, edozein tokitan ordainduta ere. Estatuak eskatuko ditu, ordea, Estatuak berak, beste autonomia erkidego batzuek, lurralde erkideko korporazioek eta Estatuko lurralde administrazio eta erakunde administrazioak bestelako enteek egindako jaulkipenei dagozkienak, baita euskal lurraldean ordaintzen badira ere.

c) Banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba eta balio bereko erakundeetako eragiketa pasiboetako korrituak eta gainerako kontraprestazioak, baita beste edozein kreditu etxetan edo finantza etxetan egindakoetatik lortutakoak ere, baldin eta etekinaren hartzaileak Euskadin badu ohiko bizilekua edo zerga egoitza.

d) Kapitalizazio eragiketetatik eta bizitza edo elbarritasun aseguruen kontratuetatik lortutako etekinak, baldin eta horien onuradunak, edo aseguru hartzaileak, erreskatearen kasuan, Euskadin badu ohiko bizilekua edo zerga egoitza.

e) Kapital ezarpenetik datozen bizi arteko errentak eta aldi baterako beste batzuk ere bai, onuradunak ohiko bizilekua edo zerga egoitza Euskadin baldin badauka.

Pentsioen kasuan, eskubidea sortu zuena ez baldin bada gaur egun pentsio hori jasotzen duena eta ordaintzen duena Estatuko Administrazioa baldin bada, atxikipena Estatuak eskatuko du.

f) Jabetza intelektualetik lortutako etekinak, subjektu pasiboa egilea ez bada; eta industria jabetzatik eta laguntza teknikoa ematetik lortutakoak, ordaintzen dituen pertsona edo erakundeak zerga egoitza Euskadin baldin badauka.

g) Ondasunak, eskubideak, negozioak, meatzeak eta antzekoak alokatzetik datozenak, Euskadin kokatuta baldin badaude.

Bigarren. Higiezinak hipotekatuz bermatutako maileguen korrituen kasuan, berme modura erabilitako ondasunak dauden lurraldeko administrazioak izango du atxikipena eskatzeko eskumena.

Hipotekatutako ondasunak lurralde erkidean eta euskal lurraldean baldin badaude, bi administrazioei dagokie atxikipena eskatzea. Horretarako, korrituak hainbanatu egingo dira hipotekatutako ondasunen balioaren proportzioan, berme asignazio berezirik ez badago behinik behin. Halakorik badago, kopuru hori erabiliko da hainbanatzeko oinarri modura.

Laugarren. Ondasun higigarrien hipoteka bidez edo eskualdakatarik gabeko bahitura bidez bermatutako maileguetako korrituen kasuan, bermea inskribatzeko hartutako lurraldeko administrazioak eskatuko du atxikipena.

Laugarren. Mailegu soilen korrituen kasuan, salerosketan ordaintzekotan utzitako prezioen kasuan eta kapitalak inon sartzearatik lortutako beste etekin batzuen kasuan, establezimendua dagoen lurraldeko administrazioak, edo atxikipena egiteko betebeharra duen erakunde edo pertsonak ohiko bizilekua edo zerga egoitza duen lurraldeko administrazioak eskatuko du atxikipena.

Bi. Artikulu honetan aipatutako atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko, lurralde erkidean aplikatzen diren tipo berberak aplikatuko dituzte foru aldundiek.

10. artikulua Atxikipenak eta konturako sarrerak, zenbait ondare irabaziren zioz.

Bat. Talde inbertsioko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean lortzen diren ondare irabaziei dagozkien atxikipenak, akziodun edo partaidearen ohiko bizilekua edo zerga egoitza non dagoen, Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela eta eskumena daukan foru aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere arautegia betez.

Bi. Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan emandako sariak direla eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak (sariok ondasun, ekoizkin edo zerbitzu jakinen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon zein ez) Estatuko administrazioak edo lurraldea dela-eta eskumena daukan foru aldundiak eskatuko ditu, sariak ordaindu behar dituenak ohiko bizilekua edo zerga egoitza lurralde erkidean edo euskal lurraldean duen, horren arabera. Estatuko Administrazioak eta foru aldundiek eskatuko dituzte bakoitzak berak ordaindutako sariei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak.

Artikulu honetan aipatutako atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko, lurralde erkidean aplikatzen diren tipo berberak aplikatuko dituzte foru aldundiek.

11. artikulua Kontura egin beharreko beste ordainketa batzuk.

Bat. Ondasun higiezinaren errentamendutik eta azpierrementamendutik lortutako etekinei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak lurraldearen arabera eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegia erabiliz, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak Euskadin badu ohiko bizilekua edo zerga egoitza.

Bi. Erakundeei ordaindutako kopuruen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, errenten egozketaren araubidearen indarrez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu beharra duten zergadunei egotzi behar zaizkienean, lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak eskatuko ditu atxikipen eta konturako sarrera horiek, bere arautegia erabiliz, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak Euskadin badu ohiko egoitza edo zerga egoitza.

12. artikulua Konturako sarreraren eraginkortasuna.

Hartzailearen errentaren gaineko zerga likidatzeko orduan, lurralde batean zein bestean egin diren konturako sarrerek balioko dute. Baina horrek ez du esan nahi, ordainketa horiek behar ez den administrazioari eginda ere, beste administrazioak dagokion kopurua jasotzeari uko egin behar dionik; alderantziz, azken horrek kopurua emateko eskatu ahal izango dio sarrera jaso duen administrazioari.

13. artikulua Errentak egozteko eta eratxikitzeke araubidepean diren erakundeak.

Bat. Etekinak egozteko araubidepeko erakundeen kasuan, kapitulu honetako 3. ataleko arauak bete beharko dira. Bazkideei egotzitako oinarriak ordainarazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauak —Ekonomia Itun honetan aipatutakoak— hartuko dira kontuan, bazkide horiek ordaindu behar duten zergaren arabera.

Bi. Eratxikitako errenten kasuan, araubide horren pean diren erakundeak kudeatu eta ikuskatzea erakunde horien zerga egoitza administrazioari dagokio.

Bazkide, erkide edo partaideei eratxikitako errenta ordainarazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauak —Ekonomia Itun honetan aipatutakoak— erabiliko dira, beraiek ordaindu behar duten zergaren arabera.

3. atala SOZIETATEEN GAINKO ZERGA

14. artikulua Aplikatu beharreko arauak.

Bat. Sozietateen gaineko Zerga itundutako zerga da, eta araudi autonomoaren pean egongo da zerga-egoitza Euskadin duten subjektu pasiboen kasuan.

Hala ere, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 6 milioi eurotik gorakoa izan eta ekitaldi horretako eragiketa guztien 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin dituzten subjektu pasiboek, lurralde erkideko arauak bete beharko dituzte.

Zerga-egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboek ere arautegi autonomia aplikatuko zaie baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 6 milioi eurotik gorakoa izan eta eragiketa guztiak Euskadin egin badituzte.

Bi. Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun emateak eta zerbitzuak direla eta, ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun erreargua kenduta, halakorik badago.

Ondasun emate eta zerbitzutzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga araupetzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak.

Aurreko ekitaldia urtebete baino laburragoa bada, goiko Bat idatz-zatian aipatu den eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, urte osoari dagokiona kalkulatu da ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta.

_Hiru. Atal honetan ezarritakoaren ondoreetarako, subjektu pasiboak lurralde jakin batean diharduela uste izango da lurralde horretan ondasun emateak eta zerbitzuak egiten dituenean, 16. artikuluan adierazitako irizpideen arabera.

_Lau. Jarduera hasi berria denean, lehenengo ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoari begiratuko zaio, eta lehenengo ekitaldia urtebete baino laburragoa izan bada, urte osoari dagokiona kalkulatu da dena ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta. Harik eta ekitaldi horretako eragiketak zenbat izan diren eta non egin diren jakin arte, halakotzat hartuko dira, ondore guztietarako, subjektu pasiboak aurrez kalkulatzeko dituenak, jardueraren hasierako ekitaldian ustez egingo dituen eragiketen arabera.

15. artikulua Zerga ordainaraztea.

_Bat. Foru aldundiei soil-soilik dagokie zerga egoitza Euskadin duten subjektu pasiboek Sozietateen gaineko Zerga ordainaraztea, baldin eta horiek aurreko ekitaldian eginak dituzten eragiketen zenbatekoa gehienez 6 milioi euro bada.

_Bi. Aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 6 milioi euro baino handiagoa denean, subjektu pasiboek, zerga egoitza edonon dutela ere, foru aldundiei, Estatuko Administrazioari edo bi administrazio horiei ordainduko diete zerga, ekitaldian horietariko bakoitzaren lurraldean egindako eragiketen zenbatekoaren heinean.

Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa kalkulatzeko hurrengo artikuluko arauak erabiliko dira, eta proportzioa ehunekoetan emango da, bi hamartarrekin biribilduta.

16. artikulua Eragiketak non egin diren.

Honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira:

A) Ondasun-emateak.

1go. Ondasun higigarri gorpuztunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzailaren esku jartzen direnean. Ondasunak eskuratzailaren esku jartzeko garraiatu egin behar badira, igorpena edo garraiaketa hasten denean ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela ulertuko da. Arau horrek honako salbuespenak izango ditu:

a) Ematen dituenak berak eraldatu baditu ondasunak, ematea euskal lurraldean egin dela ulertuko da baldin eta emandako ondasunak eraldatzeko azken prozesua lurralde horretan egin bada.

b) Emate horiek direla eta Euskaditik kanpora industri arloko elementuren batzuk instalatu behar badira, emateak euskal lurraldean egindakotzat hartuko dira baldin eta gertatzeko

eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egiten badira eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren %15 baino handiagoa ez bada.

Era berean, elementu industrialen emateak direla eta Euskadin instalazioren bat egin behar denean, gertatu eta fabrikatzeko lanak lurralde erkidean egiten badira eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren %15 baino handiagoa ez bada, emate horiek ez dira euskal lurraldean egindakotzat hartuko.

2gn. Energia elektrikoa ekoizten dutenek egindako emateak, energia hori sortzen duten zentroak euskal lurraldean baldin badaude.

3gn. Ondasun higiezinaren emateak, ondasunok Euskadiko lurraldean baldin badaude.

B) Zerbitzuak egitea:

1go. Zerbitzuak euskal lurraldean egindakotzat hartuko dira, hain zuzen ere lurralde horretatik abiatuta ematen badira.

2gn. Ondasun higiezinekin zerikusi zuzena duten zerbitzuak aurreko idatz-zatian xedatutakotik kanpora daude. Ondasun horiek euskal lurraldean kokatuta baldin badaude hartuko dira, zerbitzu horiek, Euskadin egindakotzat.

3gn. Aseguru eragiketak eta kapitalizazio eragiketak, era berean, aurreko idatz-zatietan xedatutakotik kanpora daude. Halako kasuetan, Ekonomia Itun honetako 32. artikuluan jasotako arauak bete beharko dira.

C) Aurreko A) eta B) letretan xedatutakoa kontuan hartu behar bada ere, honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira, eragiketak egiten dituen subjektu pasiboak zerga egoitza euskal lurraldean baldin badauka:

1go. Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustategiek edo arrantzuntzi armadoreek egindako ekoizkin emateak, ekoizkinak naturalak baldin badira, eraldatzeko prozesurik jasan ez baldin badute eta ustategien edo armadoreen landaketa, ustiapen edo harrapaketatik baldin badatoz zuzenean.

2gn. Garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi zerbitzuak eta garabi zerbitzuak ere.

3gn. Garraiobideak alokatzea.

D) Artikulu honetan zehaztutako irizpideen arabera atzerrian egindakotzat hartzen diren eragiketak administrazio batari edo besteari eratzikiko zaizkio, gainerako eragiketetan erabiltzen den proportzio berberarekin.

E) Hamalagarren artikuluko Bi idatz-zatiko bigarren paragrafoan jasotako eragiketak egiten ez dituzten erakundeek, zerga egoitza baldin badaukate, foru aldundiei ordainduko dizkiete zergak.

17. artikulua Zergaren konturako ordainketa.

_Bat. Sozietateen gaineko Zerga dela eta egin beharreko atxikipenak eta konturako ordainketak administrazio batari edo besteari egingo zaizkio, itun honetan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruz ezarritako irizpideen arabera. Gainera, 12. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, administrazio batari edo besteari kontura egindako ordainketen eraginkortasunari dagokionez.

_Bi. Zergak bi administrazioei ordaindu behar dizkieten subjektu pasiboek lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren araberrako proportzioan egingo dituzte zergaren zatikako ordainketak. Hori dela eta, Zergarako azken aitortpen likidazioan adierazitako proportzio bera erabiliko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, beste proportzio bat aplikatu ahal izango da, Ekonomia Itun honen III. kapituluko 2. atalean aipatutako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea jakitun jarri ondoren, eragiketa hauek egiten direnean:

a) Bategitea, banaketa, aktibo ekarpena eta balore trukea.

b) Lurralde erkidean edo foru lurraldean jarduera hastea, jarduerari uztea, hura zabaltzea edo murriztea, baldin eta horren ondorioz nabarmen aldatzen bada idatz-zati honetako lehenengo paragrafoan azaldutako irizpideari jarraituz kalkulaturako proportzioa.

Beti ere, aldakuntza nabarmena dela uste izango da lurraldeetariko edozeini aplikatu beharreko proportzioak ehuneko 15 gora edo behera, gutxienez, egiten duenean.

_Hiru. Administrazio bakoitzari benetan egindako zatikako ordainketa administrazio horri dagokion kuota zatitik kenduko da.

18. artikulua Zergak bi administrazioetan ordaintzen dituztenen kasuan, Zerga nola kudeatu.

Zergak bi administrazioetan ordaintzen dituztenen kasuan, honako arau hauek bete beharko dira:

Lehenengoa. Zerga likidatuta lortutako emaitza Estatuko eta Euskadiko administrazioei egotziko zaie, zergaekitaldi bakoitzean lurralde batean eta bestean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioan.

Bigarrenena. Zergak bi administrazioetan ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek behar diren aitorpen likidazioak aurkeztu behar dizkiete administrazio biei, arauetan agindutako epeak eta formalitateak errespetatuta. Aitorpen likidazio horietan, beti ere, aplikatu beharreko proportzioa zein den eta administrazio bakoitzari dagozkion kuotak eta itzulketak zeintzuk diren zehaztu beharko da.

Hirugarrena. Balizko itzulketak direla eta, administrazio bakoitzak bereak egingo ditu, dagozkion proportzioan.

19. artikulua Zergaren ikuskapena.

_Bat. Subjektu pasiboak Euskadin badu zerga egoitza, lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak egingo du Zergaren ikuskapena.

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 6 milioi eurotik gorakoa bada eta eragiketa guztien %75 edo gehiago lurralde erkidean egina bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da.

Halaber, zerga egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak egingo du baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 6 milioi eurotik gorakoa izan eta eragiketa guztiak euskal lurraldean eginak badira.

_Bi. Ikuskapenak egiteko lanetan, eskumena duen administrazioko arauak bete beharko dira, aurreko idatz-zatian ezarritakoaren arabera. Gainerako administrazioek lagundu egin diezaioke eskumena daukan administrazioari.

Ikuskapen lan horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen lan horiek egin dituen administrazioak kobratu edo itzuliko du. Dagozkion konpentsazioak gero emango dizkiote bata besteari, beharrezkoa bada. Eskumena daukan administrazioko organo ikuskatzaileek euren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

_Hiru. Aurreko idatz-zatian xedatutakoak ezin ditu foru aldundiek beren lurraldeetan egiaztapenak eta ikerketak egiteko dituzten eskumenak murriztu. Baina foru aldundien jarduera horiek ez dute, administrazio organo eskudunen jardueren ondorioz egindako behin betiko likidazioak direla eta, inolako ondorio ekonomikorik izango zergadunengan.

_Lau. Administrazio eskudunak egiaztapenetan zehaztutako proportzioak kitatutako betebeharrei dagokienean ere bete beharko ditu subjektu pasiboak. Horrek ez du esan nahi bi administrazioen artean behin betiko onartzen direnak bete behar ez direnik.

20. artikulua Interes ekonomikoko elkartzeak, aldi baterako enpresa elkartek eta zerga taldeak.

Bat. Euskadik ezarriko du interes ekonomikoko elkartzeen eta aldi baterako enpresa elkarteen zerga araubidea, halakoak osatzen dituzten erakunde guztiak foru arautegiaren menpe dauden kasuetan.

Erakundeok bazkideei egotziko diete lurralde batean zein bestean egindako eragiketetan dagokien zatia, eta bazkideek kontuan hartuko dute egotzi zaien zati hori, euren eragiketen proportzioa zehazterakoan.

Bi. 1. Zerga taldeak zerga baterakuntzaren foru araubidearen menpe egongo dira baldin eta sozietate nagusia eta menpeko guztiak foru arautegiaren menpe badaude banako zerga ordainketaren araubidean, eta lurralde erkideko zerga baterakuntzaren araubidearen menpe egongo dira, aldez, sozietate nagusia eta menpeko guztiak lurralde erkideko zerga araubidearen menpe badaude banako zerga ordainketaren araubidean. Hori dela eta, zerga taldetik kanpokotzat joko dira beste araubidearen menpe dauden sozietateak, halakorik badago.

Estatuaren unean uneko arautegia bera erabiliko da, beti ere, zerga taldea, sozietate nagusia, menpeko sozietateak, nagusitasun maila eta taldearen barne eragiketak definitzeko.

2. Honako arauak erabiliko dira zerga taldeei zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzeko:

Lehenengoa. Taldea osatzen duten sozietateek, Itun honetan aipatutako arau orokorrak betez, banako zerga ordainketaren araubideari dagokion aitorpena aurkeztuko dute.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren kalterik gabe, sozietate nagusiak zerga taldearen kontabilitate orri bateratuak aurkeztuko dizkie administrazio biei.

Bigarrena. Zerga taldeak lurraldeetako bakoitzean eginak dituen eragiketen zenbatekoaren heinean ordainduko dio zerga administrazioetako bakoitzari.

Hori dela eta, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, zerga taldeko sozietateek lurralde horretan egindako eragiketak batu egingo dira, eta gero taldearteko bidezko kenketak egingo dira.

4. atala EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

21. artikulua Aplikatu beharreko arauak.

Bat. Ez-Egoiliarren Errentaren gaineke Zerga itundutako zerga da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko.

Hala ere, atzerriko egoiliarren diren pertsona edo erakundeek Euskadin dituzten establezimendu iraunkorrei zerga honi buruzko arautegi autonomoa aplikatuko zaie, 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Zergadunak, aukerazko araubidea aplikatu ahal izateko Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritako baldintzak betetzen dituela eta, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaintzea aukeratzen badu, lurraldearen arabera eskumena duen foru aldundiaren arautegia hartuko da kontuan, baldin eta zergadunak lanetik eta ekonomia jardueretatik euskal lurraldean lortzen dituen etekinak Espainian lortzen duen errenta osoaren zatirik handiena egiten badute. Zergadunak itzulketarako eskubidea duenean, foru aldundi eskudunak egingo dio itzulketa, berdin da errentak Espainiako zein lekutan lortu dituen.

Bi. Pertsona fisiko edo erakunde batek establezimendu iraunkorraren bidez diharduela ulertuko da baldin eta, edozein titulu dela bide, edozein motatako instalazio edo lantokiren bat badu, ohikoa eta iraunkorra, eta bere jarduera bertan egiten badu osorik nahiz zati batean; edo bestela, subjektu pasibo ez-egoiliar horren izenean eta kontura agenteren batek egiten badu jarduera, kontratuak barne, subjektu pasiboak eskuetsita, eta agente horrek ohikoa badu subjektu pasibo ez-egoiliarren emandako ahalmen hori erabiltzea.

Establezimendu iraunkortzat joko dira, bereziki, zuzendaritzen egoitzak, sukurtsalak, bulegoak, lantegiak, tailerrak, biltegiak, dendak eta bestelako establezimenduak, meategiak, petrolio eta gas guneak, harrobiak, nekazaritza, basogintza eta abeltzaintzako ustategiak eta baliabide naturalak ustiatu edo ateratzeko beste edozein gune, eta hamabi hilabete baino gehiago dirauten eraikuntza, instalazio edo muntatze obrak.

22. artikulua Zergaren ordainarazpena.

Bat. Establezimendu iraunkorren bidez lortutako errentak zergapetzen direnean, administrazioetako batek ordainaraziko du Zerga, edo bestela biek batera, aurreko 15. artikuluan adierazitako eran.

Bi. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak zergapetzen direnean, lurraldea dela eta eskumena daukan foru aldundiak ordainaraziko du zerga, errentak Euskadin lortuak edo sortuak badira, hau da, ondoko baldintzak betetzen badira:

- a) Ekonomia ustiatzearen etekinak direnean, jarduerak euskal lurraldean egiten badira.
- b) Azterlan, egitasmo, laguntza tekniko, kudeaketarako laguntza, zerbitzu profesional eta antzeko beste zerbitzu batzuetatik lortutako etekinak direnean, zerbitzu horiek euskal

lurraldean egin edo erabiltzen badira. Eta euskal lurraldean erabilitako zerbitzuak hauek izango dira: euskal lurraldean gauzatzen diren enpresa jardueretan edo jarduera profesionaletan erabilitakoak edo lurralde horretan kokatutako ondasunekin burututakoak.

Zerbitzu hori ez baldin bada burutzen den tokian bertan erabiltzen, non erabiltzen den hartuko da kontuan.

c) Menpeko lanak ematen dituen etekinak direnean, lan hori euskal lurraldean egiten bada.

d) Artista edo kirolariak euskal lurraldean egindako lanaldi pertsonaletatik edo lanaldi horiekin zerikusia duen beste edozein jardueretatik ateratako etekinak, nahiz eta beste pertsona edo erakunderen batek hartu, artista edo kirolariak ez baino.

e) Euskal erakunde publikoetako fondo propioetan parte hartzetik ateratako dibidenduak zein bestelako etekinak, baita erakunde pribatuetako fondo propioetan parte hartzetik lortutakoak ere; baina, pribatuen kasuan, artikuluko honetako laugarren idatz-zatian zehaztutako kopuruen barruan.

f) Kapital higigarriak emandako korritu, kanon eta bestelako etekinak:

a') Ohiko egoitza Euskadin duten pertsona fisikoek edo euskal erakunde publikoek ordaindutakoak, baita erakunde pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaindutakoak ere, artikuluko honetako laugarren idatz-zatian zehaztutako kopuruen barruan.

b') Euskal lurraldean erabilitako kapital prestazioak ordaintzeko sariak direnean.

Irizpide horiek ez baldin badatoz bat, kapitala (ordaindutako prestaziokoa) non erabili den hartuko da kontuan.

g) Euskal lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo ondasun horiekin zerikusia duten eskubideetatik zuzenean nahiz zeharka ateratako etekinak.

h) Euskal lurraldean kokatutako hiri ondasun higiezinen titularrak diren pertsona fisiko zergadunei egozten zaizkien errentak.

i) Pertsonak edo euskal erakunde publikoek jaulkitako baloreen ondorioz gertatutako ondare gehikuntzak, baita erakunde pribatuek jaulkitako baloreen ondorioz gertatzen direnean ere, artikuluko honetako laugarren idatz-zatian zehaztutako kopuruen barruan.

j) Euskal lurraldean dauden ondasun higiezinen ondorioz, edo lurralde horretan bete behar diren edo erabil daitezkeen eskubideen ondorioz gertatutako ondare gehikuntzak. Zehatz-mehatz, letra honen barruan egongo dira:

a') Erakunde bateko eskubide edo partaidetzak direla eta gertatutako ondare gehikuntzak, baldin eta erakunde horren aktiboa euskal lurraldean kokatutako ondasun higiezinenez osatuta badago batez ere. Ez da kontuan hartuko erakundea egoiliarra den ala ez.

b') Erakunde bateko eskubide edo partaidetzak eskualdatu egin direla eta gertatutako ondare gehikuntzak, baldin eta eskubide edo partaidetza horiek euskal lurraldean kokatutako ondasun higiezinenez gozatzeko eskubidea ematen badiote titularrari. Ez da kontuan hartuko erakundea egoiliarra den ala ez.

k) Euskal lurraldean kokatutako beste ondasun higigarri batzuen ondorioz, edo lurralde horretan bete behar diren edo erabil daitezkeen eskubideen ondorioz gertatutako ondare gehikuntzak.

Hiru. Aurreko idatz-zatian zehaztutako irizpide horien arabera, errentaren bat bi lurraldeetan lortu dela pentsa badaiteke, lurralde historikoei egokituko zaie horien ordainarazpena, ordaindu behar duena pertsona fisikoa bada eta ohiko bizilekua Euskadin badu. Pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra bada, artikuluko honetako laugarren idatz-zatian xedatutakoa hartuko da kontuan.

Lau. Aurreko Bi idatz-zatiko e), f) eta i) letretan jasotako kasuetan eta Hiru idatz-zatian jasotako kasuan, erakunde pribatuak edo establezimendu iraunkorrek ordaindutako errenten honako kopuru hauek hartuko dira euskal lurraldean lortu edo produzitutakotzat:

a) Erakunde edo establezimendu iraunkor horiek zergak Euskadin bakarrik ordaintzen badituzte, ordaintzen dituzten errenta guztiak.

b) Erakunde edo establezimendu iraunkor horiek zergak bi administrazioetan ordaintzen badituzte, Euskadin egindako eragiketen zenbatekoaren arabera ordaintzen duten errenten zatia.

Hala ere, letra honetan jasotako kasuetan, likidazioa egoiliarra ez den horren izenean aurkezten duen pertsonaren, erakundearen edo establezimendu iraunkorraren ohiko bizilekua edo zerga egoitza dagoen lurraldeko administrazioak izango du etekin guztiak ordainarazteko eskumena, nahiz eta gero, behar bada, beste administrazioari konpentsazioa eman behar izan, beste administrazio horren lurretan egindako eragiketen zenbaterkoari dagokion heinean.

Era berean, likidazioa egoiliarra ez den horren izenean aurkezten duen pertsona nahiz erakunde edo establezimendu iraunkorraren ohiko bizilekua edo zerga egoitza dagoen lurraldeko administrazioak ordainduko ditu egoiliarrek ez direnei ordaindu beharreko

itzulketak, nahiz eta gero, behar bada, beste administrazioari konpentsazioa egin behar izan, ordaindu behar duen erakundeak beste administrazio horren lurretan egindako eragiketen zenbatekoari dagokion heinean.

Bost. Erakunde ez-egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Berezia, ondasun higiezinak euskal lurraldean badago, lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiari ordaindu behar zaio.

23. artikulua Konturako ordainketak.

Bat. Honako zerga hau dela eta establezimendu iraunkorrek euren errenten zioz egin behar dituzten zatikako ordainketak, atxikipenak eta konturako sarrerak goiko 2 eta 3. ataletan ezarritako arauak jarraituz eskatuko dira.

Bi. Establezimendu iraunkorrik gabe diharduten zergadunen errentei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak, berriz, errentak zein lurraldetan lortu, hango administrazioak eskatuko ditu, aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Ikuskarpena ere eskumena daukan administrazioaren organoek egingo dute, aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aurreko legeroaldean jartzen duena kontuan hartu behar bada ere, aurreko artikuluko Bi idatz-zatiko e), f) eta i) letretan jasotako kasuetan eta artikuluko bereko Hiru idatz-zatikan jasotako kasuan, foru aldundiek eskatuko dituzte, atxikipena egitera behartuta dagoenak Euskadin egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioan, aurreko 3. atalean ezarritako arauak erabiliz.

Hiru. Gainera, 12. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, administrazio batari edo besteari kontura egindako ordainketen eraginkortasunari dagokionez.

5. atala ONDAREAREN GAINEKO ZERGA

24. artikulua Aplikatu beharreko arauak eta zergaren ordainarazpena.

Ondarearen gaineko Zerga itundutako zerga da eta araudi autonomoari dagokio.

Lurralde historikoetako foru aldundi eskudunak edo Estatuak eskatuko du, zergaduna Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga bidez administrazio batari edo besteari lotuta dagoen kontuan hartuta, eta zergapean diren ondare elementuak zein lurraldetan dauden kontuan hartu gabe.

Zerga ordaintzeko betebeharraren erreala duten subjektu pasiboaren kasuan, ondasunen eta eskubideen baliorik gehiena euskal lurraldean baldin badago, foru aldundiei egokituko zaie zerga ordainaraztea.

Horretarako, euskal lurraldean kokatuta daudela ulertuko da, hain zuzen ere, lurralde horretan dauden, erabil litezkeen edo bete beharko liratekeen ondasun eta eskubideak.

Azken egoitza Euskadin izan duten ez-egoiliarrek Ondarearen gaineko Zerga norberaren betebeharraren arabera ordaintzea aukeratzen dutenean, lurralde erkidean edo foru lurraldean ordaindu ahal izango dute eta aukeratzen duten lurraldeko arautegia bete beharko dute.

6. atala OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGA

25. artikulua Aplikatu beharreko arautegia eta zergaren ordainarazpena.

Bat. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga itundutako zerga da eta araudi autonomoaren pean dago.

Lurraldea dela eta eskumena daukan foru aldundiak ordainaraziko du zerga hori honako kasu hauetan:

a) "Mortis causa" eskuraketetan, eta bizitza aseguruaren onuradunek aseguratuaren heriotzaren ondoren kopuruak hartzen dituztenean, baldin eta sortzapenaren egunean kausatzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago.

b) Ondasun higiezinaren dohaintzetan, ondasun horiek euskal lurraldean kokatuta baldin badaude.

Letra honetan xedatutakoa dela eta, ondasun higiezinaren dohaintzat hartuko dira Baloreen Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 108. artikuluan aipatutako dohaineko balore eskualdatzeak.

c) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, dohaintza hartzaileak ohiko bizilekua Euskadin baldin badauka sortzapenaren egunean.

d) Zergapekoak egoitza atzerrian daukanean, baldin eta ondasun edo eskubide guztiak euskal lurraldean kokatuta badaude, euskal lurraldean erabil badaitezke edo euskal lurraldean bete behar badira. Bizi aseguruetako hitzarmenetatik lortutako kopuruaren kasuan ere bai, hitzarmen hori egoitza Euskadin duten aseguru erakundeekin egin bada, edo euskal lurraldean egin bada bertan jarduten duten atzerriko erakundeekin.

_Bi. Aurreko idatz-zatiko a) eta c) letretan jasotako kasuetan, foru aldundiek lurralde erkideko arauak aplikatuko dituzte, kausatzaileak edo dohaintza hartzaileak egoitza Euskadin eskuratu zuenetik zerga ordaindu beharra sortu arte 5 urte baino gutxiago pasa badira.

Autonomia Estatutuaren 7.2. artikulua arabera izaera politikoz euskaldunak izaten jarraitu dutenei ez zaie arau hori ezarriko.

_Hiru. Agiri baten bidez dohaintza emaile bakar batek dohaintza hartzaile bati ondasunak edo eskubideak dohaintzan ematen badizkio eta, aurreko Bat idatz-zatiaren arabera, etekina lurralde erkidean eta euskal lurraldean sortutakoa dela pentsatu behar bada, eskualdatutako ondasun eta eskubide guztien balioari lurralde bakoitzean legokiokeen batez besteko aplikatuko da, bakoitzaren arauen arabera eta lurralde bakoitzari egotzitako dohaintzen balioaren etekinaren gainean, eta hortik aterako da lurralde bakoitzari dagokion kuota.

_Lau. Dohaintzak metatu behar diren kasuetan, Euskadiri zein kuota dagokion jakiteko, metatutako dohaintza guztien balioari legokiokeen batez bestekoa aplikatu behar zaio egun eskualdatuta dauden ondasun eta eskubideen balioari, bere arauen arabera.

Horretarako, metatutako ondasun eta eskubide guztiak honako hauek izango dira: aurreko dohaintzetatik datozenak eta egun eskualdatu direnak.

7. atala BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

26. artikulua Aplikatu beharreko arauak.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga itundutako zerga da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen eta sarrera ereduak onesteko eta likidazio aldi bakoitzeko sarrera epeak zehazteko gaitasuna izango dute. Baina eredu

horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

27. artikulua Zergaren ordainarazpena.

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira:

Lehenengoa. Euskal lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga guztiak dagokien foru aldundian ordaindu behar dituzte; eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dituzte.

Bigarrena. Lurralde erkidean eta euskal lurraldean jarduten duten subjektu pasiboek zergak bi administrazioetan ordaindu behar dituzte, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioan. Proportzio hori zehazteko, hurrengo artikuluan jasotako lotura-puntuak erabili beharko dira.

Hirugarrena. Aurreko urtean 6 milioi euro baino eragiketa kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zergak Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte, zerga egoitza lurralde erkidean baldin badaukate; eta zerga egoitza Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion foru aldundian.

Bi. Eragiketen zenbateko osoa haxe izango da: ondasunak ematerakoan eta zerbitzuak egiterakoan subjektu pasiboak lortu dituen kontraprestazioen zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errenergua alde batera utzita, halakorik badago.

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 6 milioi euroko kopurua zenbatzeko, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen zenbatekoa hartuko da kontuan.

Jardueran emandako lehenengo urtea ez baldin bada egutegiko urtebete, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketarik abiatuko da urte osoa kalkulatzeko.

Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela eta, subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela esan daiteke, 28. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan ondasunak eman edo zerbitzuak egiten baditu.

Lau. Ondasunen elkarte barruko trafikoarekin zerikusia duten eragiketen ziozko Zerga, artikulua honetako hurrengo idatz-zatietan aipatuko diren kasuetan izan ezik, aurreko Bat idatz-zatian azaldutako eran ordainaraziko da.

_Bost. Garraiobide berrien elkarte barruko erosketen ziozko Zerga, baldin eta erosketak egiten dituzten pertsona edo erakundeen eragiketak Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharretik erabat salbuetsita badaude edo zerga horren pean ez badaude, garraiobideak behin betiko matrikulatzen diren lurralde erkideko edo euskal lurraldeko Administrazioak ordainaraziko du.

_Sei. Jarraian azalduko diren eragiketak egiten direnean Estatuko Administrazioak edo lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak ordainaraziko du Zerga, subjektu pasiboaren egoitza non dagoen, lurralde erkidean edo foru lurraldean:

a) Ondasunen elkarte barruko eskuraketak, baldin eta eskuraketak zergapean badaude halaxe aukeratu delako edo Zergari buruzko arauetan ezarritako muga kuantitatiboa gainditu delako, eta horiek egiten dituztenak Zergari kenketa osoa edo partziala egiteko eskubiderik ez dakarten eragiketak soilik egiten dituzten subjektu pasiboak badira, edo enpresari nahiz profesional gisa ez diharduten pertsona juridikoak badira.

b) Ondasunen elkarte barruko eskuraketak, baldin eta araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian edo baliokidetasun-errekarguaren araubidean egiten badira.

28. artikulua Eragiketen lekua.

_Bat. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, honako arau hauek betetzen dituztenak hartuko dira, Zergari lotuta dauden eragiketen artetik, Euskadiko lurralde historikoetan egindakotzat:

A) Ondasun emateak.

1. Ondasun higigarri gorpuztunak euskal lurraldean eman direla esan daiteke, hain zuzen ere, lurralde horretatik uzten badira hartu behar dituenaren eskuetan. Aldiz, ondasun horiek garraiatu egin behar badira jaso behar dituenaren eskuetan uzteko, halakoetan, espedizioa edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, han egindakotzat hartuko da ematea.

Arau horrek honako salbuespen hauek izango ditu:

a) Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta ondasunak eman behar dituenak berak eraldatu baditu, ondasun horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira azken eraldatze prozesua Euskadin egin bada.

b) Emateak direla eta industriako elementuren batzuk Euskaditik kanpora instalatu behar badira, emate horiek euskal lurraldean egindakotzat hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira: gertatzeko eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egin behar

dira; eta instalatu edo muntatzeko kostuak ezin du kontraprestazio guztiaren %15 baino handiagoa izan.

Era berean, elementu industrialen emateak direla eta euskal lurraldean instalazioen bat egin behar denean, gertatu eta fabrikatzeko lanak lurralde erkidean egiten badituzte eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren %15 baino handiagoa ez bada, emate horiek ez dira euskal lurraldean egindakotzat hartuko.

c) Erkidegoko beste estatu batetik abiatuta igorri edo garraiatu behar diren ondasunak badira, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritako betekizunak betetzen badira urrutiko salmentaren araubidea aplikatzeko, ondasun ematea Euskadin egindakotzat joko da ondasunaren garraioa Euskadiko lurraldean amaitzen bada.

2. Energia elektrikoa ekoizten dutenen emateak, energia hori sortzen duten zentroak euskal lurraldean baldin badaude.

3. Ondasun higiezinaren emateak, ondasunok euskal lurraldean badaude.

B) Zerbitzuak egitea.

1. Zerbitzuak Euskaditik kanpokoei egiten zaizkienean lurralde horretan egindakotzat hartuko dira.

2. Ondasun higiezinekin lotura zuzena daukaten zerbitzuak aurreko idatz-zatian xedatutakotik kanpora daude, salbuespen modura. Ondasunak Euskadiko lurraldean kokatuta baldin badaude, Euskadin egindakotzat hartuko dira zerbitzu horiek.

3. Aseguru eragiketak eta kapitalizazio eragiketak, era berean, aurreko idatz-zatietan xedatutakotik kanpora daude. Halako kasuetan, Ekonomia Itun honetako 32. artikuluan jasotako arauak bete beharko dira.

C) Aurreko letretan xedatutakoa kontuan hartu behar bada ere, honako eragiketa hauetan, Zerga ordainarazteko eskumena Estatuko Administrazioak edo foru aldundi eskudunak izango du, subjektu pasiboaren zerga egoitza lurralde erkidean edo Euskadin dagoen kontuan hartuta:

1go. Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustategiek edo arrantzuntzi armadoreek egindako ekoizkin emateak, ekoizkinak naturalak baldin badira, eraldatzeko prozesurik jasan ez baldin badute eta ustategien edo armadoreen landaketa, ustiapen edo harrapaketatik baldin badatoz zuzenean.

2gn. Garraio zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi zerbitzuak eta garabi zerbitzuak ere.

3gn. Garraiobideak alokatzea.

_Bi. Artikulu honetan aipatutako eragiketak egiten ez dituzten erakundeek foru aldundiei ordainduko dizkiete zergak, zerga egoitza euskal lurraldean badute.

29. artikulua Zergaren kudeaketa eta ikuskapena.

_Bat. Zerga likidazioen emaitza dagokien administrazioei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita. Kontraprestazio horiek, hain zuzen ere, egindako ondasun emate eta zerbitzuei dagozkie, batzuetan zergapetu eta beste batzuetan salbuetsi egingo direnak eta, salbuetsitakoen kasuan, kenketa eskubidea dakartenak.

_Bi. Egutegiko urte bakoitzean behin-behingo aplikatu behar diren proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztuko dira.

Jarduera hasten den egutegiko urteko likidazio aldietan behin-behinean aplikatu behar den proportzioa subjektu pasiboak berak kalkulatu du, beraren ustez lurralde bakoitzean egingo dituen eragiketak kontuan hartuta, hala ere azkenean erregularizazioa egingo da.

Aurreko lerroaldean jartzen duena bete egin behar bada ere, honako kasu hauetan beste proportzio bat aplika daiteke behin-behingo, beti ere, Ekonomia Itun honetako III. kapituluko II. atalean aipatutako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari jakinarazi ondoren:

a) Aktiboak bategitea, bereiztea eta ekartzea.

b) Lurralde erkidean edo foru lurraldean jardueraren bat hasi, amaitu, zabaldu edo murrizten denean, baldin eta idatz-zati honetako lehen lerroaldean zehaztutako irizpidearen arabera kalkulatuako proportzioa nabarmen aldarazten bada.

Beti ere, aldakuntza nabarmena dela uste izango da lurraldeetarikoko edozeini aplikatu beharreko proportzioak ehuneko 15 gora edo behera, gutxienez, egiten duenean.

_Hiru. Subjektu pasiboak, egutegiko urte bakoitzean Zergaren gainean egindako azken aitorten likidazioan, behin betiko proportzioak kalkulatu ditu —garai horretan egindako eragiketen arabera—, eta aurreko likidazio aldietan administrazio bakoitzarekin egindako deklarazioak erregularizatu egingo ditu, dagokion moduan.

_Lau. Subjektu pasiboek Zergaren aitorten likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena daukaten administrazioei. Aitorten likidazio horietan, beti ere,

aplikatu beharreko proportzioak eta administrazio batari edo besteari dagozkion kuotak jaso beharko dira beti.

_Bost. Bidezkoak diren itzulketak egitea administrazioen lana izango da, bakoitzari dagokion proportzioan.

_Sei. Ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da:

a) Zergak foru aldundietan edo, hala badagokio, Estatuko Administrazioan, baina bietako batean bakarrik ordaindu behar dituzten subjektu pasiboak ikuskatzea administrazio horietako bakoitzeko zerga ikuskaritzen lana izango da.

b) Zergak lurralde erkidean edo euskal lurraldean egindako eragiketa kopuruaren proportzioan ordaindu behar dituzten subjektu pasiboak ikuskatzeko, honako arau hauek bete beharko dira:

Lehenengoa. Zerga egoitza lurralde erkidean daukaten subjektu pasiboak: Estatuko Administrazioko organoek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa. Administrazio horrek, era berean, subjektu pasiboak administrazio eskudun guztietan zergen aldetik duen egoera erregularizatzeko lana hartuko du, administrazio batari eta besteari dagokion zerga proportzioa barne.

Bigarrena. Zerga egoitza euskal lurraldean daukaten subjektu pasiboak: zerga egoitzari dagokion foru administrazioko organo eskudunek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa, Estatuko administrazioak laguntza eman badezake ere. Ondorioak eskumena duten administrazio guztietan bete beharko dira, administrazio horiei dagokien tributazio proportzioa barne. Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen %75 edo gehiago lurralde erkidean egina badu, zehaztutako lotura puntuen arabera, eskumena Estatuko Administrazioarena izango da, foru aldundiek laguntza eman badezakete ere.

Ikuskapen lan horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen lan horiek egin dituen administrazioak kobratu edo itzuliko du. Dagozkion konpentsazioak gero emango dizkiote batak besteari, beharrezkoa bada. Eskumena daukan administrazioko organo ikuskatzaileek euren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

Hirugarrena. Aurreko arauetan xedatutakoa bete egin behar bada ere, horrek ezin ditu foru aldundiei —nori bere lurralde barruan— egiaztapenak eta ikerketak egiteko dagozkien eskumenak murriztu. Baina, era berean, foru aldundien aktuazioek ezin dute, administrazio eskudunetako organoen aktuazioen ondorioz egindako behin betiko likidazioen inguruan, zergapekoen artean inongo ondorio ekonomikorik izan.

Laugarrena. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioak subjektu pasiboak ere bete beharko ditu, likidatutako betebeharren inguruan. Horrek ez du esan nahi administrazio eskudunen artean behin betiko zehazten dituztenak bete behar ez direnik, hala ere.

Zazpi. Europako Erkidegoaren barruan egindako emate eta eskuratzeen errekapitulazio deklarazioak, hain zuzen ere, subjektu pasiboari egiaztapenak eta ikerketak egiteko eskumena daukan zerga administrazioan aurkeztu beharko dira.

8. atala ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA

30. artikulua Aplikatu beharreko arauak.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga itundutako zerga da eta araudi autonomoaren pean dago, sozietate eragiketetan, truke letretan eta ordezkio balioa edo igorpen zeregina duten agirietan izan ezik; halakoetan arau erkideak beteko dira eta lurralde historikoetako erakunde eskudunen eginkizuna izango da aitortpenak eta sarrerak egiteko agiriaren ereduak onestea eta sarrerak egiteko epeak jartzea likidazio aldi bakoitzean. Dena dela, horiek guztiek ez dute alde handirik izango Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin.

31. artikulua Zergaren ordainarazpena.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordainaraztea dena delako foru-aldundiari dagokio honako kasu hauetan:

1. Ondasun higiezinak kostu bidez eskualdatzen direnean eta alokatzen direnean, eta ondasun horien eskubide errealak —baita bermekoak ere— osatu edo eskubide horiek kostu bidez ematerakoan, ondasunok euskal lurraldean kokatuta badaude.

Baloreen Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 108. artikuluan jasotako kasuetan, baloreak eskualdatzen dituen erakundearen aktiboko ondasun higiezinak euskal lurraldean badaude.

2. Ondasun higigarriak, aziendak eta kredituak kostu bidez eskualdatzerakoan eta horien gaineko eskubideak osatzerakoan eta eskubide horiek kostu bidez lagatzerakoan, baldin eta eskuratu behar dituen pertsona fisikoa bada eta ohiko bizilekua Euskadin badauka; edo, pertsona juridikoa bada eta Euskadin badauka zerga egoitza.

Aurrekoa hala bada ere, honako bi salbuespen hauek jarri dira:

a) Akzioak, harpidetza-eskubideak, obligazioak, antzeko tituluak eta gainerako baloreak zein sozietateen partaidetzak eskualdatzen direnean, eragiketa zein tokitan formalizatu den hartuko da kontuan.

b) Higigarrien hipoteka edo eskualdaketarik gabeko bahitura osatzerakoan edo tartean itsasontzi edo aireontziak dauden kasuetan, egintza horiek zein lurraldetan inskribatu behar diren hartuko da kontuan.

3. Mailegu soilak, fidantzak, higiezinenez bestelakoen alokatzeak eta pentsioak osatzen direnean, baldin eta mailegu hartzailea, fidantza hartzailea, errentaria edo pentsioduna pertsona fisikoa bada eta ohiko bizilekua Euskadin badu; edo pertsona juridikoa bada eta zerga egoitza Euskadin badu.

Maileguak berme erreala duenean, berriz, hipotekadun ondasun higiezinak euskal lurraldean badaude, edo lurralde horretan inskribatu badaitezke higigarrien hipotekak edo eskualdaketarik gabeko bahiturak.

Mailegu bat lurralde erkidean eta foru lurraldean kokatutako hainbat ondasun higiezinaren gaineko hipotekarekin bermatuta badago, edo lurralde bietan inskribatu daitekeen higigarrien hipotekarekin nahiz eskualdaketarik gabeko bahiturarekin bermatuta badago, batzuei eta besteei egozten zaien erantzukizunaren arabera proportzioan ordainduko zaio zerga administrazio bakoitzari, eta, zehaztapen hori eskrituran beren beregi jasorik ez badago, ondasunen balio egiaztatuen arabera proportzioan.

4. Ondasunen administrazio emakidetan, ondasun horiek Euskadin kokatuta baldin badaude; eta obrak burutu edo zerbitzuak ustiatu behar direnetan, baldin eta Euskadin egiten edo eskaintzen badira. Arau horiek beroriek aplikatuko dira administrazio emakidekin berdinesten direlako zergapean dauden administrazio egintza eta negozioetan ere.

Euskadiko lurralde eremua gainditzen duten ondasunak ustiatzeko emakidak direnean, euskal lurraldean okupatzen duten azaleraren arabera eskatuko da Zerga.

Euskadiko lurralde eremua gainditzen, duten obrak burutzeko emakidak direnean, euskal lurraldean egingo diren obren zenbatekoa kalkulatu da eta horren arabera eskatuko da Zerga.

Euskadiko lurralde eremua gainditzen duten zerbitzuak ustiatzeko emakidak direnean, ukitutako erkidegoen guztizkoaren gainean Euskadiko biztanleriak eta azalerak dauzkaten ehunekoen batez besteko aritmetikoaren arabera eskatuko da Zerga.

Euskadiko lurralde eremua gainditzen duten emakida mistoak badira, aurreko hiru paragrafoetan jasotako irizpideak emakida-zatiari aplikatuta eskatuko da Zerga.

Euskadiko lurralde eremua gainditzen duten administrazio emakidak badira, lurraldearen arabera eskumena duen foru aldundiak ikuskatuko du Zerga, baldin eta erakunde emakidadunaren zerga egoitza bertan badago.

5. Sozietate eragiketetan, honako gorabeheretariko baten bat nabari bada:

- a) Erakundeak zerga egoitza Euskadin eduki behar du.
- b) Erakundeak sozietate egoitza Euskadin eduki behar du, baldin eta benetako zuzendaritza egoitza Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko beste zerga administrazio bateko lurralde esparruan ez badago; edo, hala egonik ere, estatu horrek ez baldin badu sozietate eragiketa antzeko beste zergaren batekin kargatzen.
- c) Erakundeak eragiketa batzuk Euskadin ere egin behar ditu, baldin eta benetako zuzendaritza egoitza eta sozietate egoitza Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko beste zerga administrazio bateko lurralde esparruan ez badago; edo, hala egonik ere, estatu horrek ez baldin badu sozietate eragiketa antzeko beste zergaren batekin kargatzen.

6. Notarioen eskritura, akta eta testigantzetan, baldin euskal lurraldean baimendu edo ematen badituzte.

Aurreko paragrafoan jartzen duena bete egin behar bada ere, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko karga kuota gradualari lotuta dauden kasuetan, baldin eta ondasunak edo egintzak inskribatzeko erabili behar den erregistroa Euskadiko lurraldean badago.

7. Truke letra eta ordezkio balioa edo igorpen zeregina duten agirietan eta ordaindukoetan, bonoetan, obligazioetan eta antzeko tituluetan, Euskadin igortzen edo jaulkitzen badira; atzerrian igortzen badira, lehenengoz eduki dituenak ohiko bizilekua edo zerga egoitza Euskadiko lurraldean baldin badauka.

8. Anotazio prebentiboetan, Euskadin kokatutako erregistro publikoetan egiten badira.

9. atala ASEGURU SARIEN GAINEN ZERGA

32. artikulua Aplikatu beharreko arauak eta zergaren ordainarazpena.

Bat. Aseguru Sarien gaineko Zerga itundutako zerga da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko.

Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko eredueta datu berberak jasoko dira, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazio-aldi bakoitzerako, baina epe horiek ez dute alde handirik izango Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin.

Bi. Foru aldundiek ordainaraziko dute Zerga baldin eta arriskua edo konpromisoa, aseguru eta kapitalizazio eragiketetan, euskal lurraldean kokatzen bada.

Hiru. Hori dela eta, arriskua euskal lurraldean kokatuta dagoela uste izango da hurrengo baldintzak betetzen direnean:

Lehenengoa. Asegurua higieziei badagokie, ondasun higiezinak Euskadiko lurraldean egotea. Arau bera erabiliko da aseguru higieziei eta horien edukari dagokienean, baldin eta aseguru poliza batek berak estaltzen baditu higiezinak eta edukia. Aseguru higieziei dauden ondasun higikorrei soilik badagokie, merkataritzako igarobidean dauden ondasunak izan ezik, ondasun higikorrek barruan dituen higiezin hori Euskadiko lurraldean egotea.

Aseguru batek berak estaltzen baditu lurralde erkidean eta euskal lurraldean dauden higiezinak, lurralde bakoitzean kokatutako higiezinaren balioa kontuan hartuta kokatuko da bakoitzean.

Bigarrena. Aseguru edozein ibilgailu motari badagokio, ibilgailua bere izenean matrikulatuta daukan pertsonak edo erakundeak ohiko bizilekua edo zerga egoitza Euskadin edukitzea.

Hirugarrena. Aseguru bidaietan edo aseguru-hartzailearen ohiko bizilekutik kanpo gerta litezkeen ezbeharrei badagokie, eta aseguruaren iraupena gehienez lau hilabetekoa bada, aseguru hartzaileak aseguru kontratua euskal lurraldean sinatzea.

Laugarrena. Aurreko arauetan berariaz azaldu gabeko kasu guztietarako: aseguru-hartzailea pertsona fisikoa bada, beraren ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean egotea; eta bestela, kontratuan ageri den sozietatearen egoitza edo sukurtsala Euskadiko lurraldean egotea.

Lau. Konpromisoa euskal lurraldean kokatutzat joko da baldin eta, bizitza aseguruari dagokienez, aseguruaren kontratatzaileak lurralde horretan badu ohiko bizilekua, pertsona

fisikoa izanez gero; pertsona juridikoa izanez gero, euskal lurraldean izan behar du bere sozietate egoitza edo sukurtsala, kontratua sukurtsalari buruzkoa bada.

Bost. Aurreko zenbakietan kokapenari buruzko berariazko araurik egon ezik, aseguru eta kapitalizazio eragiketak euskal lurraldean eginak direla ulertuko da baldintza hauek betetzen direnean: kontratatzailea enpresari edo profesionala izatea; eragiketa horiek bere enpresa edo lanbide jardueretan ari denean hitzartzea; eta bere ekonomia jardueraren egoitza Euskadiko lurraldean edukitzea, edo establezimendu iraunkorren bat edukitzea lurralde horretan, edo, bestela, bere bizilekua bertan edukitzea.

10. atala ZERGA BEREZIAK

33. artikulua Aplikatu beharreko arautegia eta zergen ordainarazpena.

Bat. Zerga Bereziak itundutako zergak dira eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira horiek eraentzeko. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen eta sarrera ereduak onesteko eta likidazioaldi bakoitzeko sarrera epeak zehazteko gaitasuna izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Bi. Fabrikazio Zerga Bereziak foru aldundiek eskatuko dituzte, zerga horien sortzapena Euskadin baldin bada.

Kuota eskuratu duen administrazioaren eginkizuna izango da Fabrikazio Zerga Bereziak Itzultzea, eskatzen zaizkionean. Dena dela, ezin baldin bada jakin kuotak zein administrazioan sartu ziren, itzultzeko eskubidea duenaren lurraldeko administrazioak itzuli beharko ditu.

Euskadin dauden establezimenduak kontrolatzea eta horiei baimena ematea, araubidea edozein dela ere, kasuan kasuko aldundiaren eginkizuna izango da. Dena dela, aurretik jakinarazpena egin beharko zaie Estatuko Administrazioari eta Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari.

Hiru. Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia foru aldundiek eskatuko dute, garraiobideak euskal lurraldean matrikulatzen baldin badira behin betiko.

Aurreko Bat idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, lurralde historikoetako erakunde eskudenek karga tasak gehitu ahal izango dituzte, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen tasen %10eko gehikuntza izan arte, gehienez.

Matrikulazioa egiteko, gaiari buruz indarrean dagoen legeriak ezarritako irizpideak bete beharko dira. Zehazki, pertsona fisikoek ohiko bizilekua duten probintzian matrikulatuko dute garraibidea.

11. atala ZENBAIT HIDROKARBUROREN TXIKIZKAKO SALMENTAREN GAINEKO ZARGA

34. artikulua Aplikatu beharreko arauak eta Zergaren ordainarazpena.

Bat. Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga itundutako zerga da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arauak erabiliko dira hura eraentzeko.

Aurrekoa gorabehera, lurralde historikoetako erakunde eskudunek Zergaren karga-tasak ezarri ahalko dituzte, lurralde erkidean une bakoitzean indarrean dauden mugen barruan.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, halaber, aitorpen eta sarrera ereduak onesteko eta likidazio aldi bakoitzeko sarrera epeak zehazteko gaitasuna izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuako Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Bi. Foru aldundi eskudunak ordainaraziko du Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga kasu hauetan:

a) Zergaren eremu objektiboak barruan hartzen dituen ekoizkinen salmentak edo emateak, euskal lurraldean kokatutako txikizkako salmenta establezimendu publikoetan egindakoak, salbu eta ekoizkinok lurralde horretatik kanpo jaso eta kontsumitzeko beharrezko instalazioak dituzten azken kontsumitzaileei egiten zaizkien horniketak. Alderantziz, foru aldundiek ordainaraziko dute zerga, kanpotik ekarritako ekoizkinak Euskadiko lurraldean jaso eta kontsumitzeko beharrezko instalazioak dituzten azken kontsumitzaileei lurralde erkidean egiten zaizkien horniketak direla eta.

b) Zergaren eremu objektiboak barruan hartzen dituen ekoizkinen inportazioak eta Erkidego barruko eskuraketak, baldin eta inportatzaileak edo eskuratzailak berak zuzenean kontsumitzen baditu ekoizkinok, bere kontsumorako establezimenduan, eta establezimendu hori Euskadiko lurraldean badago.

12. atala ZEHARKAKO BESTE ZERGA BATZUK

35. artikulua Aplikatu beharreko arauak.

Zeharkako gainerako zergei dagokienez, Estatuak unean-unean ezarrita dituen oinarritzko abiaburu, arau substantibo, zerga egitate, salbuespen, sortzapen, oinarri, tasa, tarifa eta kenkariak eurak izango dira manuzkoak.

13. atala JOKOAREN GAINEKO ZERGA

36. artikulua Aplikatu beharreko arauak.

Jokoaren gaineko zergak itundutako zergak dira eta araudi autonomia aplikatu behar zaie, baimena Euskadin eman behar zaien kasuetan. Estatuak unean-unean ezarrita duen arautegia aplikatuko da zerga egitateari eta subjektu pasiboari dagokienez.

37. artikulua Zergen ordainarazpena.

Bat. Lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak ordainaraziko du Zori, Enbido eta Adur Jokoen gaineko Tasa, zerga egitatea Euskadin egiten denean.

Bi. Lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak ordainaraziko du Zozketa, Tonbola, Apustu eta Ausazko Konbinazioen gaineko Zerga Tasa, halako jokoak egiteko baimena Euskadin eman behar den kasuetan.

14. atala TASAK

38. artikulua Tasak ordainarazteko eskumena.

Foru aldundiei dagokie eska daitezkeen tasak ordainaraztea euren jabariko gune publikoen erabilera edo aprobetxamendu bereziagatik, zerbitzuak betetzeagatik eta Zuzenbide publikoko araubidean foru aldundiek eurek egiten dituzten jarduerengatik.

15. atala TOKI OGASUNAK

39. artikulua Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da. Zerga horrek kasuan kasuko lurralde historikoan dauden landa-ondasun eta hiri ondasunak zergapetuko ditu.

40. artikulua Ekonomia jardueren gaineko Zerga.

Bat. Ekonomia jardueren gaineko Zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da.

Bi. Lurralde historikoetan eskumena duten erakundeen eginkizuna izango da kasuan kasuko lurraldean aurrera eramandako jarduerengatik Ekonomia jardueren gaineko Zerga ordainaraztea, ondorengo arauak beteta:

- a) Gutxieneko udal kuotak direnean, edo gehitutakoak, kuota horiek lurralde historikoko udalen alde sortzen direnean.
- b) Probintzia kuotak direnean, jarduera lurralde historikoan burutzen baldin bada.
- c) Probintzia batean baino gehiagotan jarduteko aukera eskaintzen duten kuotak baldin badira, subjektu pasiboak ohiko bizilekua edo zerga egoitza Euskadin baldin badu, egoeraren arabera. Kuota hori lurralde erkideko edo foru lurraldeko administrazioari ordaindu ondoren, jarduera bi lurraldeetan eraman ahal izango da aurrera.

41. artikulua Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da, zirkulazio baimenean ageri den egoitza lurralde horretako udalerriren batekoa baldin bada.

42. artikulua Beste toki-zerga batzuk.

Lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek toki erakundeen gainerako zerga propioen araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute, bakoitzak bere lurraldearen barruan, ondoren aipatzen diren irizpideak beteta:

- a) Araubide erkideko tokiko zerga sistemarentzako ezarritako egitura orokorra eta egitura horren printzipioak kontuan izatea, gai honetan ezartzekoak izan eta 3. artikuluan aurreikusitako harmonizazio arauak errespetatuta.
- b) Araubide erkidekoen gainera, zeharkako bestelako zerga modurik ez ezartzea, zerga modu horien etekina Euskadiko lurraldetik kanpora beste batengan isla badaiteke edo eragina izan badezake.

16. atala KUDEAKETA ETA JARDUNBIDEKO ARAUAK

43. artikulua Ohiko bizilekua eta zergaegoitza.

Bat. Ekonomia Itun honetan xedatutakoari begira, Euskadin bizi izaten diren pertsona fisikoek ohiko bizilekua Euskadin dutela pentsatzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehenengoa. Lurralde horretan zergaren ezarraidiko egun gehien ematea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez; sortzapen egunaren bezperan amaitzen den urtebeteko egun gehien ematea, urtearen edozein egunetatik hasita zenbatuta, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari dagokienez.

Pertsona fisikoen ohiko bizilekua, gainerako zergei dagokienez, dena delako zergaren sortzapen egunean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoreetarako duten ohiko egoitza bera izango da.

Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela pentsatuko da bere ohiko etxebizitza bertan baldin badu.

Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezarpen oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare gehikuntzak, ez eta zerga gardentasunaren araubidean —profesionala alde batera utzita— egotzitako oinarriak ere.

Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

Bi. Espainiako lurraldean bizi diren pertsona fisikoen kasuan, egutegiko urtean zehar ez badute lurralde horretan 183 egun baino gehiago egiten, Euskadiko lurraldean bizi direla joko da bertan baldin badute enpresa edo lan jardueren edo interes ekonomikoen gune nagusia edo oinarria.

Hiru. Dena delako pertsona fisikoa Espainian bizi dela uste baldin bada, ezkontidearekin legez banandu gabe dagoelako eta ezkontideak eta haren menpe dauden adin txikiko seme-alabek ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean dutelako, pertsona fisiko horrek ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean daukala joko da.

Lau. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga egoitza Euskadin dutela uste izango da.

a) Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoak.

b) Pertsona juridikoak eta Sozietateen gaineko Zergaren menpean dauden gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute sozietate egoitza eta, beti ere, sozietate egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilita bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan.

c) Establezimendu iraunkorrak, Euskadin egiten badute euren negozioen administrazio kudeaketa edo zuzendaritza. Irizpide hori erabilita bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan.

d) Sozietate zibilak eta nortasun juridikorik gabeko izakiak, Euskadin baldin badute kudeaketa eta zuzendaritza. Irizpide hori erabilita zerga egoitza non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena zein lurraldetan duten hartuko da kontuan.

Bost. Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek eta erakunde ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek zerga egoitzaren aldaketak bi administrazioei jakinarazi behar dizkiete, baldin eta egoitzaren aldaketak honako zerga ordainarazteko eskumenean aldaketaren bat badakar. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, zergaren aitorpena aurkeztea nahikoa izango da jakinarazpen hori egiteko.

Sei. Zergapekoen egoitza zein den erabakitzeko orduan administrazioen artean auziak sortzen baldin badira, Arbitraje Batzordeak konponduko ditu arazoak, zergapekoek diotena entzun ondoren. Arbitraje Batzorde hori Ekonomia Itun honen III. kapituluko 3. atalean dago araututa.

Zazpi. Lurralde erkidean edo foru lurraldean bizi diren pertsona fisikoek beren ohiko bizilekua lurralde horietako batetik bestera aldatzen baldin badute, zerga betebeharrak bizileku berriaren arabera beteko dituzte aurrerantzean, bizileku berri hori lotura puntua baldin bada.

Gainera, idatz-zati honetan aurreikusitakoagatik bizilekurik ez dela aldatu pentsatu behar baldin bada, pertsona fisikoek kasuan kasuko aitorpen osagarriak aurkeztu beharko dituzte, eta atzerapenek sortarazitako korrituak ere gehitu beharko dituzte.

Bizilekua aldatzearen helburu nagusia zerga gutxiago ordaintzea baldin bada, aldaketa horiek ez dute ondorioz edukiko.

Bizileku berrian jarraian emandako denbora gutxienez hiru urtez luzatzen den kasuetan izan ezik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako, aldaketarik ez dela izan pentsatuko da ondorengo inguruabarrak gertatzen direnean:

- a) Bizilekua aldatzen den urtean edo hurrengoan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezarpen oinarria aldaketaren aurreko urtean izandako ezarpen oinarria baino 100eko 50 handiagoa izatea, gutxienez. Zerga ordainketa batera egiten denean, banakotzeari buruzko arauak erabiliz zehaztuko da.
- b) Egoera hori sortzen den urtean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoriozko tributazio efektiboa aldaketa izan aurreko lurraldean aplikatu beharreko araudiarekin gertatuko litzatekeen tributazio efektiboa baino txikiagoa izatea.
- c) Ohiko bizilekua berriz ere hasierako lurraldean edukitzea a) letran azaldutako egoera sortzen den urtearen hurrengoan, edo honen hurrengoan.

Zortzi. Kontrako frogarik egon ezik, pertsona juridikoen zerga egoitza ez dela aldatu ulertuko da baldin eta aldaketaren aurreko edo ondoko urtean batere jarduerarik egiten ez badute edo jarduerari uzten badiote.

Bederatzi. Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza aldaketa eragin ahal izango du. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio, jakin beharreko aurrekariak erantsita, eta bi hilabeteko epea emango dio egoitza aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko. Besteak proposamenari baietza ematen badio, administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio.

Bi administrazioak ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikuluko honetako Sei idatz-zatian azaldutako eran.

44. artikulua Delitu fiskala.

Zerga administrazioak uste baldin badu arau-haustea, Kode Penalean araututakoaren arabera, Ogasun Publikoaren aurkako delituak izan daitezkeela, eskumena duen jurisdikzioari bidaliko dio erruduntasun testigantza eta ez du jarraituko administrazio jardunbidearekin agintaritza judizialak epai irmoa eman arte, jarduketak itxi edo artxibatu arte edo Ministerio Fiskalak espedientea itzuli arte.

45. artikulua Finantza etxeen lankidetzaren zergen kudeaketan, eta zergen ikuskatzailtzaren jarduketak.

Bat. Euskadiko foru aldundien eskumenekoak diren zergak ordainaraztea dela eta, beren eginkizuna izango da bankako trafikoan edo maileguen trafikoan diharduten finantza etxeen eta pertsona fisiko eta juridikoen kontuak eta eragiketak, aktiboak zein pasiboak, zergen arloan ikertzea.

Aurreko paragrafoan aipatutako informazioa lortzeko jarduketei dagokienez, euskal lurraldetik kanpora egin behar badira, hurrengo Bi idatz-zatian xedatutakoa bete beharko da.

Bi. Ekonomia Itun honek Euskadiko foru aldundiei emandako eskumenak direla eta, daturen bat egiaztatzeko edo ikertzeko Euskadiko lurraldetik kanpora jarduketaren bat egin behar baldin bada, eginkizun hori Estatuko Zergen Ikuskatzailtzak eramango du aurrera, edo lurraldearen arabera eskumena duen autonomia erkidegoko ikuskatzailtzak, berari utzitako zergei buruz bada, foru aldundietan aginpidea duen organoak hala eskatzen dienean.

Estatuko edo foru-aldundietako zergen ikuskatzailtzak, egiaztatzeko edo ikertzeko jarduketaren ondorioz, beste administrazioan zergen arloan eragina duten gertakarien berri izaten baldin badute, horren berri emango diote batak besteari, arauz zehaztuko den moduan.

46. artikulua Informatu beharra.

Bat. Egiten diren atxikipenen eta konturako sarreraren laburpenak berauetan jaso behar diren atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko eskumena daukan administrazioari aurkeztu behar zaizkio, administrazio bakoitzaren arautegia betez.

Balore-errenten gordailu zainak edo haien kobrantzaren kudeatzaileak diren erakundeek, baldin eta, aplikatu beharreko arautegiaren arabera, errenta horiek direla-eta atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztu beharra badute, halako erakundeak egiaztatu eta ikertzeko eskumena daukan Administrazioari aurkeztu beharko dizkiote laburpenok, bakoitzari dagokion arautegia betez.

Estatuak eta foru aldundiek eska dezaketen Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak diren erakundeek atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenak aurkeztu behar dituzte, Ekonomia Itun honetako 7.Bat.c) eta 9.Bat.Lehenengoa.a) artikuluetan aipatutako etekinei dagozkienean, eta kasuan kasu Zerga ordainarazteko eskumena daukan administrazioak aitortzen aurkezteko lekuari, erari eta epeari buruz ezarritako arauak betez.

_Bi. Zerga informazioa orokorrean emateko betebeharrak betetzeko diren legez eskatutako aitorpenak Estatuko Administrazioari edo lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiari aurkeztu behar zaizkio, irizpide hauek kontuan harturik:

a) Zergadunek ekonomia jarduerak egiten badituzte, eurek egiten dituzten enpresa edo lanbide jarduerak egiaztatu eta ikertzeko eskumena daukan administrazioari.

b) Zergadunek ez badute ekonomia jarduerarik egiten, zerga egoitza non daukaten hartu behar dute kontuan, lurralde erkidean edo foru lurraldean.

_Hiru. Zentsu aitorpenak, bestalde, egin behar dituen pertsonak edo erakundeak bere zerga egoitzako administrazioari aurkeztu behar zaizkio, bakoitzaren arautegiaren arabera; baita pertsona edo erakunde horrek, Ekonomia Itun honetan ezarritako arauen indarrez, honako aitorpenen bat aurkeztu behar dion administrazioari ere:

- Atxikipenen eta konturako sarreraren aitorpena.
- Sozietateen gaineko Zergaren ziozko aitorpen likidazioa.
- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ziozko aitorpen likidazioa.
- Ekonomia jardueren gaineko Zergaren ziozko aitorpena.

47. artikulua Enpresak batzea eta banatzea.

Enpresak batzeko eta banatzeko eragiketetan, aurreko 14. artikuluan aipatzen diren zerga irizpideei jarraituta, kasuan kasuko zerga onurak bi administrazioek onetsi behar baldin badituzte, foru aldundiek aplikatuko duten araudia une bakoitzean lurralde erkidean indarrean egongo denaren berdina izango da, eta kasuan kasuko administrazio espedienteak izapidetuko dira administrazio bakoitzean.

II. kapituluua: FINANTZA HARREMANAK



II. kapitulua FINANTZA HARREMANAK

1. atala ARAU OROKORRAK

48. artikulua Printzipio nagusiak.

Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza harremanek ondoko printzipioak izango dituzte:

Lehenengoa. Euskadiko erakundeek euren eskumenak garatu eta erabiltzeko autonomia izango dute zergen eta finantzen eremuetan.

Bigarrena. Elkartasunari eutsiko zaio, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan ezarritako moduan.

Hirugarrena. Aurrekontu egonkortasunaren arloan Euskadiko erakundeak Estatuarekin koordinatuko dira eta berarekin lankidetzan arituko dira.

Laugarrena. Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren zamak direla eta, Euskadik kontribuzioa egingo du, Ekonomia Itun honetan zehaztu den eran.

Bosgarrena. Toki erakundearen eremuan Estatuak une bakoitzean egikaritzen dituen finantza tutoretzako ahalmenak Euskadiko erakunde eskudunei dagozkie; horrek ez du esan nahi, inola ere, Euskadiko toki erakundearen autonomia araubide erkidea duten toki erakundeena baino txikiagoa izango denik.

49. artikulua Kupoa: kontzeptua.

Euskadik Estatuari egindako ekarpena kupoa orokor bat izango da, eta kupoa hori lurralde historiko bakoitzari dagokionak osatuko du. Euskadiko Autonomia Erkidegoak bere egiten ez dituen estatuaren karga guztiei dagokien kontribuzioa da kupoa.

50. artikulua Kupoaren aldizkakotasuna eta eguneratzea.

_Bat. Bost urtero, Gorte Nagusietan bozkatutako legearen bidez, eta aldez aurretik Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak akordioa lortuta, bosturtekoan aginduko duen kupoa zehazteko metodologia zein izango den erabakiko da, Ekonomia Itun honetan jasotako printzipio orokorrekin bat. Era berean, bosturtekoaren lehenbiziko urteko kupoa ere onetsiko da.

_Bi. Lehenbiziko urtearen ondorengo urte bakoitzean, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak kupoa eguneratu egingo du, aurreko idatz-zatian aipatutako legean onartutako metodologia aplikatuta.

_Hiru. Itun honetan jasotako kupoa zehazteko metodologia bideratzen duten printzipioak aldatu egin ahal izango dira Kupoari buruzko Legean, unean uneko egoerak eta hura aplikatzean izandako esperientziek hala egitea gomendatzen badute.

51. artikulua Itundu gabeko zergak direla eta izandako diru sarreretatik Euskadiko toki erakundeei eman beharrekoa.

Itundu gabeko zergetan duten parte hartzea dela eta izan beharreko zeharkako ekarpenen kasuan, banaketako arau orokorren arabera banatu beharreko diru kopuruak foru aldundiek zabalduko dituzte beren lurralde historikoetako toki erakundeen artean.

2. atala KUPOA ZEHAZTEKO METODOLOGIA

52. artikulua Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko kargak.

Bat. Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko kargak Autonomia Erkidegoak hortaz baliatzeko benetan bereganatu ez dituen eskumenei dagozkienak dira.

Bi. Karga horien zenbateko osoa zein den zehazteko, eragiketa hau egingo da: kasuan kasuko dekretuetan finkatutako transferentzien efektibitatearen egunetik Autonomia Erkidegoak bereganatutako eskumenei estatu mailan dagokien aurrekontuko zati osoa kenduko zaio Estatuaren aurrekontuko gastu osoari.

Hiru. Beste batzuen artean, hauek hartuko dira Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko kargatzat:

a) Konstituzioaren 158.2. artikuluan aipatutako Lurralde arteko Konpentsazio Fondorako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan izendatutako kopuruak.

Karga hori dela-eta egin beharreko ekarpena Kupoari buruzko Legean zehaztutako bidearen arabera izango da.

b) Estatuak ente publikoentzako egindako transferentziak edo ente horiei emandako dirulaguntzak, baldin eta ente horiek dituzten eskumenak ez baditu Euskadiko Autonomia Erkidegoak bereganatu.

c) Estatuaren zorren korrituak eta amortizazio kuotak, Kupoari buruzko Legean zehaztutakoaren arabera.

Lau. Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko karga lurralde historikoen artean nola banatuko den jakiteko, hurrengo 57. artikuluan aipatzen diren indizeak erabili beharko dira.

53. artikulua Balio Erantsiaren gaineko Zerga kontsumoari doitzea.

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela eta lortzen diren sarreraren egozketa hobetzeko asmoarekin, Euskadiko zerga bilketarako ahalbidearen indizea eta kontsumo indizea elkarri doitzeko mekanismoa ezarri da.

_Bi. Doikuntza hori eragiketa matematiko honen emaitza izango da:

$$RF_{pV} = RR_{pV} + a * RR_{AD} + (a-b) * H$$

Non:

$$H = \frac{RR_{pV}}{b} \text{ baldin eta } \frac{RR_{pV}}{RR_{TC}} \leq \frac{b}{1-b}$$

$$H = \frac{RR_{TC}}{1-b} \text{ baldin eta } \frac{RR_{pV}}{RR_{TC}} \geq \frac{b}{1-b}$$

RF_{pV} = Urteko azken zerga-bilketa Euskadin.

RR_{pV} = Urteko benetako zerga-bilketa Euskadin.

RR_{TC} = Urteko benetako zerga-bilketa lurralde erkidean.

RR_{AD} = Urteko benetako zerga-bilketa inportazioak direla eta.

$$a = \frac{\text{Euskadiko Egoiliarren Kontsumoa.}}{\text{Estatuko Egoiliarren Kontsumoa.}}$$

(Kanariak, Zeuta eta Melilla kontuan hartu)

$$b = \frac{v - f - e + i}{V - F - E + I}$$

v = Euskadiko faktoreen kostuari erantsitako balio gordina.

V = Estatuko faktoreen kostuari erantsitako balio gordina (Kanariak, Zeuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

f = Euskadiko kapital-eraketa gordina.

F = Estatuko kapital-eraketa gordina (Kanariak, Zeuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

e = Euskadiko esportazioak.

E = Estatuko esportazioak (Kanariak, Zeuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

i = Euskadik Erkidegoan egindako ondasun-eskuraketak.

I = Estatuak Erkidegoan egindako ondasun-eskuraketak (Kanariak, Zeuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

_Hiru. Kupoari buruzko Legean zehaztuko da, epealdi bakoitzerako, aurreko Bat idatz-zatian aipatu diren indizeen balioa.

_Lau. Aurreko doikuntza behin-behinean egozteko eta hurrengo ekitaldian behin betiko erregularizatzeko, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak onetsitako eta une bakoitzean indarra duen prozedura erabiliko da.

54. artikulua Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezia kontsumoari doitzea.

_Bat. Alkoholaren eta Edari Eratorrien, Tarteko Ekoizkinen, Garagardoaren, Hidrokarburoen eta Tabako Moten Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezia direla eta lortzen diren sarreren egozketa hobetzeko asmoarekin, Euskadiko zerga-bilketarako ahalbidearen indizea eta kontsumo-indizea elkarri doitzeko mekanismoa ezarri da.

_Bi. Doikuntza hori eragiketa matematiko honen emaitza izango da, arestian aipatutako zergetariko bakoitzean:

$$RF_{PV} = RR_{PV} + c * RR_{AD} + (c-d) * H$$

Non:

$$H = \frac{RR_{PV}}{d} \text{ baldin eta } \frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \leq \frac{d}{1-d}$$

$$H = \frac{RR_{TC}}{1-d} \text{ baldin eta } \frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \geq \frac{d}{1-d}$$

RF_{PV} = Urteko azken zerga bilketa Euskadin, Alkoholaren, Edari Eratorrien eta Tarteko Ekoizkinen, edo Garagardoaren, edo Hidrokarburoen, edo Tabakoaren Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezia dela eta.

RR_{PV} = Urteko benetako zerga bilketa Euskadin, Alkoholaren, Edari Eratorrien eta Tarteko Ekoizkinen, edo Garagardoaren, edo Hidrokarburoen, edo Tabakoaren Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezia dela eta.

RR_{TC} = Urteko benetako zerga bilketa lurralde erkidean, Alkoholaren, Edari Eratorrien eta Tarteko Ekoizkinen, edo Garagardoaren, edo Hidrokarburoen, edo Tabakoaren Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezia dela eta.

RR_{AD} = Inportazioen ziozko urteko benetako zerga bilketa, Alkoholaren, Edari Eratorrien eta Tarteko Ekoizkinen, edo Garagardoaren, edo Hidrokarburoen, edo Tabakoaren Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezia dela eta.

$$c = \frac{\text{Euskadiko Egoiliarren Kontsumoa.}}{\text{Estatuko Egoiliarren Kontsumoa.}}$$

(zergaren ezarpen eremua)

$$d = \frac{\text{Euskadiko Bilketarako Ahalbidea.}}{\text{Estatuko Bilketako Ahalbidea.}}$$

(zergaren ezarpen eremua)

_Hiru. Kupoari buruzko Legean zehaztuko da, epealdi bakoitzerako, aurreko Bat idatz-zatian aipatu diren indizeen balioa.

_Lau. Aurreko doikuntzak behin-behinean egozteko eta hurrengo ekitaldian behin betiko erregularizatzeko, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak onetsitako eta une bakoitzean indarra duen prozedura erabiliko da.

55. artikulua Beste doikuntza batzuk.

_Bat. Zeharkako zergapetzea hobetzeko, doikuntza egingo da, Ekonomia Itun honen 9.Bat.Lehenengoa.b) eta 7.Bi artikuluetan ageri diren balizkoak kontuan hartuta ateratako kopuruen gainean.

_Bi. Halaber, Kupoari buruzko Legean, behar izanez gero, beste doikuntza mekanismo batzuk ezarri ahal izango dira, Euskadiri eta Estatuko gainerakoari egotzi beharreko sarrera publikoen zenbatespena hobetzeko.

_Hiru. Bidezkoak diren doikuntzak eginda ateratzen diren kopuruak izango dira lurralde historiko bakoitzaren kupoa.

56. artikulua Konpentsazioak.

_Bat. Lurralde historiko bakoitzari dagokion kupotik, konpentsazio gisa ondorengo kontzeptuei dagozkien kenketak egingo dira:

- a) Itundu gabeko zergen zati egozgarria.
- b) Izaera ez tributarioa duten aurrekontuko diru sarreraren zati egozgarria.
- c) Estatuaren Aurrekontu Orokorrek izan dezaten defizitaren zati egozgarria, Kupoari

buruzko Legean zehaztuko den moduan. Superabita izanez gero, justu kontrako moduan jardungo da.

_Bi. Halaber, lurralde historikoen kupoei kenduko zaio, konpentsazio gisa, Gizarte Segurantzako osasun arloan eta gizarte zerbitzuen arloan Euskadiri intsuldatu zaizkion eginkizunak eta zerbitzuak finantzatzeko diren sarreretatik Euskadiri egotzi behar zaion zatia. Sarrera horiek, lege hau indarrean jarri aurretik, Euskadiri ordaindu izan zaizkio Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren transferentzien bitartez, azaroaren 6ko 1.536/1987, urriaren 2ko 1.476/1987, abuztuaren 23ko 1.946/1996 eta apirilaren 2ko 558/1998 errege dekretuetan araupeutako aurrekontu araubidea aplikaturik.

_Hiru. Aurreko zenbakietan aipatu diren kontzeptuak egozteko, hurrengo 57. artikuluan ezarritako indizeak erabiliko dira.

57. artikulua Egozpen-indizeak.

_Bat. Aurreko 52, 55.Bi eta 56. artikuluetan aipatzen diren egozpenak egiteko indizeak lurralde historikoetako errenta eta Estatuko errenta erkatuta zehaztuko dira batez ere.

_Bi. Indize horiek Kupoari buruzko Legean zehaztuko dira eta lege hori indarrean dagoen artean aplikatuko dira.

58. artikulua Bereganatutako eskumenak aldatzeak behin-behineko kupoan duen eragina.

_Bat. Kupoa, aurreko araudiaren arabera zehaztuta, urtero indarrean dagoen bitartean Euskadiko Autonomia Erkidegoak eskumenen bat bereganatu badu, eta eskumen horren estatu mailako urteroko kostua Kupoaren behin-behineko kopurua zenbatekoa izango zen jakiteko erabili ziren Estatuaren kargen barruan sartuta baldin bazegoen, urteroko kostu hori murriztu egingo da, Euskadik aginpide horiek bereganatu dituen urteko unearen proportzioaren arabera. Era berean, eta aurrekoaren ondorioz, kupoa ere murriztu egingo da kasuan kasuko kopuruan.

Aipatu den murrizte proportzional horrek gastu arruntak benetan zenbatean behin sortzen diren kontuan izango du, eta baita Estatuaren inbertsioak benetan zenbateraino burutu diren.

_Bi. Modu berean jardungo da Autonomia Erkidegoak behin-behineko kupoaren zenbatekoa zehazteko orduan zituen eskumenen batzuk erabiltzeari uzten badio. Hala gertatuko balitz, kupoa bidezkoa den beste handituko litzateke.

59. artikulua Behin-behineko eta behin betiko likidazioak.

Hasieran eta behin-behingo kupo eta bidezkoak diren konpentsazioak zenbatekoak

izango diren zehazteko, kasuan kasuko urterako onetsitako Estatuaren aurrekontuko kopuruak hartuko dira kontuan.

Ekitaldia amaitu ondoren eta Estatuaren aurrekontuen likidazioa egin ostean, egin beharreko zuzenketa guztiak egingo dira Ekonomia Itun honetako 52, 55 eta 56. artikuluetan aipatzen diren magnitudeetan.

Zuzenketa horien ondorioz alde edo kontra izango diren ezberdintasunak ezberdintasun horiek gauzatu diren urtearen hurrengo urteko behin-behineko kupoa gehituko dira algebraikoki.

60. artikulua Kupoa ordaintzea.

Euskadiko Autonomia Erkidegoak ordaindu beharreko kopurua hiru zenbateko berdinetan abonatu zaio Estatuko Ogasun Publikoari. Urtero, maiatzean, irailean eta abenduan izango da hori.

III. kapitulua: EKONOMIA ITUNAREN BATZORDEAK ETA ARBITRAJE BATZORDEA



III. kapitulua EKONOMIA ITUNAREN BATZORDEAK ETA ARBITRAJE BATZORDEA

1. atala EKONOMIA TUNAREN BATZORDE MISTOA

61. artikulua Kideak eta erabakiak.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa honela egongo da osatuta: batetik, foru aldundietako ordezkari bana eta Eusko Jaurlaritzako hiru ordezkari; bestetik, Estatuko administrazioetik aurreko guztiak beste ordezkari egongo dira.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak erabakiak hartu ahal izateko, batzordekide guztien aho batezkoa behar da.

62. artikulua Eginkizunak.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Ekonomia Itunaren aldarazpenak erabakitzea.
- b) Aurrekontu egonkortasunaren arloko lankidetzak eta koordinazioari buruzko konpromisoak erabakitzea.
- c) Bosturteko bakoitzean kupoa ezartzeko metodologia erabakitzea.
- d) Kapitulu honetako 3. atalean araututako Arbitraje Batzordeko kideen izendapena eta araubidea erabakitzea, eta bai Batzordearen jardunbideari, biltzeko deialdiei, bilerei eta erabakiak hartzeko araubideari dagokiena ere.
- e) Zerga eta finantza gaiei buruz une bakoitzean hartu beharreko erabakiak hartzea, itun honetan ezarritakoa behar bezala aplikatu eta garatu dadin.

2. atala ARAUGINTZA KOORDINATU ETA EBALUATZEKO BATZORDEA

63. artikulua Kideak.

Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea era honetan egongo da osatuta:

- a) Estatuko Administrazioaren lau ordezkari.
- b) Autonomia Erkidegoaren lau ordezkari, Eusko Jaurlaritzak izendatutakoak; lau horietatik hiru foru aldundiek proposatuko dituzte, bakoitzak bana.

64. artikulua Eginkizunak.

Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Zergen arloko arauak Ekonomia Itunari egokitzen zaizkion aztertzea horiek argitaratu aurretik.

Hori dela eta, Ekonomia Itun honen 4. artikuluko Bat idatz-zatian azaldu den bezala administrazioek euren araugintza proiektuak elkarri erakusten dizkiotenean, proiektuotan jasotako proposamenak direla eta inork oharren bat egiten badu, Batzordean ordezkariak dituzten erakunde eta administrazioetariko edozeinek, idatziz eta zioak azalduz, Batzordearen bilerarako deialdia egin dadila eskatu ahal izango du. Deialdia egiteko eskatzen den egunetik hasita, Batzordeak 15 eguneko epean egin behar du bilera, proposatutako araudia Ekonomia Itunarekin bat datorren aztertzeko, eta ahaleginak egingo ditu, araua argitaratu baino lehen, bere baitan ordezkatuta dauden erakunde eta administrazio guztiek zerga araudiaren edukiaren inguruan desadostasunik balego akordioa lor dezaten.

b) Ekonomia Itun honetan aipatutako lotura puntuen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean kontsulta bera eta beraren ebazpenerako proposamena gainerako administrazio interesatuei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Inork ez badu oharrik egiten ebazpen proposamenari buruz, beste bi hilabete igarotakoan proposamena onetsitzat joko da. Inork oharren bat egiten badu, berriz, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeke Batzordearen bilerarako deia egingo da, eta batzorde horrek akordiorik lortu ezik proposamena Arbitraje Batzordeari helaraziko zaio.

c) Egoki deritzon azterlanak egitea araubide autonomikoa eta Estatuko marko fiskala egokiro uztartzeko, egituraren eta eginkizunen aldetik.

d) Administrazio eskudunei euren jardunak elkarri egokitzeko irizpideak, planak eta informatikako programak eskaintzea, eta lankidetzaren eta informazio trukearen printzipioa benetan gauzatu dadin erabili behar diren tresnak, bitartekoak, prozedurak edo metodoak artikulatzea.

e) Ikuskapen gaietan Estatuko Administrazioaren eta foru aldundien artean sortutako auziak edo arazoak aztertzeko, eta bai zergen ondoreetarako egindako balorazioen inguruko arazoak ere.

f) Txostenak egitea Ogasun Ministerioari, Eusko Jaurilaritzako eta foru aldundietako ogasun sailei eta Arbitraje Batzordeari, eskatuz gero.

g) Ekonomia Itun hau aplikatu eta betearaztearekin zerikusia duten beste eginkizun guztiak.

3. atala ARBITRAJE BATZORDEA

65. artikulua Kideak.

Bat. Arbitraje Batzordeak hiru kide izango ditu. Horien izendapena Ogasun Ministroak eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak formalizatuko dute.

Bi. Kide horiek sei urterako izendatuko dira. Aldi hori amaitutakoan ezin izango dira berriro hautatu kargurako, salbu eta karguan egin duten aldia hiru urte baino laburragoa denean.

Hiru. Karguren bat hutsik geratzen denean, izendapenerako prozedura bera erabiliko da hura betetzeko. Kargua utzi duen kideari agintaldia amaitzeko geratzen zaion denborarako izendatuko da haren ordezkari kide berria.

Lau. Arbitraje Batzordeko kideak itzal handiko adituak izan behar dira, zergen edo ogasunaren arloan lanbidez aritutakoak hamabost urtean, gutxienez.

66. artikulua Eginkizunak.

Bat. Arbitraje Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru aldundien artean edo hauen eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai zerga itunduen lotura puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Bi. Eskumenak direla eta gatazkaren bat sortzen denean, ukitutako administrazioek interesatuei jakinaraziko diete; horrenbestez preskripzio epea eten egingo da eta hortik aurrera administrazio horiek ez dute inongo jarduketarik egingo.

Gatazkak ebazteko prozedura arau bidez ezarriko da. Prozedura horretan interesatuei entzun egingo zaie.

67. artikulua Arbitraje Batzordearen erabakiak.

Arbitraje Batzordeak Zuzenbidearen arabera ebatziko ditu espediente bakoitzak agerian jartzen dituen auzi guztiak, exekuzio formulak barne direla, berdin da auzi horiek gatazkako alderdiek edo interesatuek aurkeztutakoak izan edo ez; eta ebazpenetan ekonomia, arintasun eta eraginkortasun printzipioen arabera jardungo du.

Arbitraje Batzorde horrek hartutako erabakiei, betetze indarrekoak badira ere, administrazio-auzigaietako errekurtoa baino ezin izango zaie aurkeztu Auzitegi Goreneko arlo horretako salan.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek Ekonomia Itun hau aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak ematen ez dituzten artean, lurralde erkidean indarrean dauden arauak aplikatuko dira. Arau horiek, dena dela, zuzenbide osagarri izango dira beti.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

_Bat. Ekonomia Itun honetan aldaketaren bat egin behar bada, bera onartzeko erabilitako bide bera jarraitu beharko da.

_Bi. Estatuak zergei buruz duen antolamendu juridikoan berrikuntzaren bat gertatuko balitz eta berrikuntza horrek zergen itunari eragingo balio, edo araugintzarako eskumenen banaketa aldatuko balitz eta aldaketak zeharkako zergapetzearen eremuari eragingo balio, edo zerga figura edo konturako ordainketa berriren bat sortuko balitz, bi administrazioek, ados jarrita, antolamendu horretan izandako aldaketetara egokituko lukete Ekonomia Itun hau.

Inoiz Ekonomia Ituna era horretara egokitzen bada, egokitzapenaren finantza ondoreak zehatz azaldu beharko dira.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiek 1906ko abenduaren 13ko Errege Dekretuaren 15. artikuluan onartu zitzaizkien ekonomia eta administrazio arloko ahalmenak izango dituzte, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusten den foru araubidea eguneratzeko prozesua dela eta indarrean daudenez. Dena dela, kontuan izan beharko dira Konstituzioaren 149.1.18. artikuluan aipatzen diren oinarriak ere.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskadin egin beharreko inbertsio batzuk elkarrekin finantzatzea erabaki dezakete Estatuak eta Euskadiko Autonomia Erkidegoak, era horretan jardutea komenigarria dela erakusten badute hainbat arrazoik: inbertsioaren zenbatekoak, balio estrategikoak, interes orokorrak,

Euskadiko Autonomia Erkidegoaz kanpoko beste lurralde batzuei ere eragiteak, edo beste arrazoi berezi batzuk egoteak.

Era berean, Euskadiko lurraldeaz kanpoko beste leku batzuetan egin beharreko inbertsioetan Euskadik parte hartzea ere erabaki dezakete Estatuak eta Euskadiko Autonomia Erkidegoak, aurreko paragrafoan aipatzen diren arrazoi berak gertatzen badira.

Egoera batean zein bestean, diru ekarpen horiek kupoan izango duten eragina kasu bakoitzean hitzartuko dena izango da.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lurralde historikoetan itundutako zergak kudeatu, ikuskatu, berrikusi eta biltzeko eskumena duten erakundeek Estatuako Ogasun Publikoak dituen ahalmen eta eskubide berak izango dituzte.

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ekonomia Itun honen 14, 15, 19 eta 27. artikuluetan aipatutako eragiketa kopurua bost urtean behin edo sarriago eguneratuko da, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartuko dituen erabakien bidez.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

Ekonomia Itun honetan eragiketen zenbatekoa zehazteko kopurua 2002ko urtarilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan aplikatuko da.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Ekonomia Itun hau indarrean jarri baino lehen sortzapena izan duten zergak direla eta, manuzkoak izango dira horien sortzapenaren unean indarrean egon ziren lotura puntuak.

Arau bera erabiliko da atxikipenekin, konturako sarrerekin eta zatikako ordainketekin ere, atxikipena, konturako sarrera edo zatikako ordainketa egin beharra Ekonomia Itun hau indarrean jarri aurretik sortua den kasuetan.

Ekonomia Itun hau indarrean jartzen denean burutu gabe egongo diren prozeduretan manuzkoa izango da eurak hasi zirenean indarrean zegoen arautegia.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Aurreko xedapen iragankorrean esandakoa gorabehera, Ekonomia Itun honen III. kapituluaren aipatu diren organoek erabakiko dituzte, honako honetan ezarri zaizkien prozeduren eta eskumenen arabera, Ekonomia Itun hau indarrean jartzen denean bi administrazioek konpondu gabe izan litzaketen auzi guztiak.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Ogasun Ministerioaren eta Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak osatutako Batzorde Misto Parekatuak zehaztuko du zenbateko konpentsazioa hartu behar duen foru aldundi horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko eskumenak garatzen eta zerbitzuak egiten diharduen bitartean, araubide erkideko probintzietan Estatuak egiten baititu lan horiek. Halaber, batzorde mistoak arauak ezarriko ditu konpentsazio hori urtero berrikus dadin, Euskadiko Autonomia Erkidegoari eskumenak eskualdatzeko egutegian oinarrituta.

Kompentsazioa zehaztu eta aplikatuko bada ere, horrek ez du eraginik izango kupoa zehazteari buruz itun honetan ezarri diren arauetan. Kompentsazioa, nolahi ere, Autonomia Estatutuaren 41. artikuluko Bi idatz-zatiko e) letraren arabera Arabari dagozkion kupoen zenbatekoak murriztuz gauzatuko da.

BOSGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Ekonomia Itun hau indarrean jarri aurretik eratutako ekonomia intereseko elkarteak eta aldi baterako enpresa elkarteak aplikatu beharreko zerga araubidea Euskadiri dagokiona bera izango da, baldin eta Euskadiko lurralde eremua gainditzen ez badute.

SEIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Zerga taldeek, baldin eta 2002ko urtarrilaren bata baino lehen zerga baterakuntzako araubidean eta arautegi erkidearen edo foru arautegiaren arabera ordaintzen bazuten zerga, zerga ordaintzaren araubide horri eutsi ahal izango diote 2006ko abenduaren 31 arte, maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak onetsitako Ekonomia Itunaren 25. artikuluan xedatutakoa dela bide. Beti ere, artikuluko hori beraiei aplikatu ahal izateko, zerga baterakuntzaren alorrean 2001eko abenduaren 31n indarrean zegoen arautegian ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

ZAZPIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Harik eta Tabako Moten fabrikazioaren eta salerosketaren egungo araubidea aldatu arte, Tabako Moten Fabrikazioaren gaineko Zerga berezia dela eta egin behar den doikuntza, Ekonomia Itun honen 54. artikuluan dagoena, hain zuzen ere, eragiketa matematiko honen bidez kalkulatu da:

$$RF_{PV} = RR_{PV} + c' * RR_{TC} + [(1-c') * RR_{PV}]$$

Non:

RF_{PV} = Urteko azken zerga bilketa Euskadin, Tabako Motak direla eta.

RR_{PV} = Urteko benetako zerga bilketa Euskadin, Tabako Motak direla eta.

RR_{TC} = Urteko benetako zerga bilketa lurralde erkidean, Tabako Motak direla eta.

$$c' = \frac{\text{Euskadiko tabako eta saltokiei emandako tabako motak.}}{\text{Zergaren ezarpen eremuan kokatutako tabako eta tinbre saltokiei emandako tabako motak.}}$$

AZKEN XEDAPENA

Zergei aplikatu behar zaizkien Ekonomia Ituneko arauak indargabetu edo aldatzeko aukera badago ere, horrek ez du aldaraziko administrazioek duten eskubidea lehenago sortutako zorrak aurretik zeuden lotura puntuen arabera eskatzeko.



VII TERMINOEN GLOSARIOA

Zenbait terminoren esanahia azaltzen dugu hemen testua errazago uler dadin; asmo dibulгатzailearekin eta zehaztasun tekniko gehiegirik gabe egina da, beraz.

Administrazio emakidak. Administrazioak partikularrei edo enpresei emandako zerbait da, dela jabari publikoko zer edo zertaz jabetzeko, gozatzeko edo modu pribatuan aprobetxatzeko, dela herrilanak egiteko edo ustiatzeko, dela Administrazioaren zerbitzuak antolatzeko, eusteko edo aprobetxatzeko.

Arautegi autonomoko zerga itundua. Zerga itunduak arautegi autonomokoak dira, lurralde historikoetako organo eskudunek haiek arautzeko gaitasuna dutenean; horregatik, kasu jakinetan, zerga horien ordainarazpena foru aldundiak berak arautua izan daiteke.

Horrek esan nahi du lurralde historikoetako erakunde eskudunek gaitasuna dutela lurralde komunean ez bezala arautzeko.

Banakotzeari buruzko arauak (indibidualizazio arauak). Zerga ondorioetarako, errenta batzuen titularitatea norbanakoari egozteko erabiltzen diren zerga arauak dira, ezkontzako erregimen ekonomikoaren arabera errenten titularitate zibila era batekoa nahiz bestekoa izan. (Adib.: Errenta Zergan, lanaren etekinak, sortzen dituen ezkontideari egozten zaizkio, ezkontzako erregimen ekonomikoa irabazpidezkoa izan arren).

Behin betiko likidazioak. Zergen Foru Arau Orokorrak (1/1985 Foru Arauak) 120. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek dira behin betiko likidazioak:

a) Egitate ezargarria eta haren balorazioa Administrazioak egiaztatu ondoren egindakoak, tartean behin-behineko likidazioa egina izan edo ez.

b) Zerga bakoitzaren foru arauan finkatutako epean egiaztatu ez direnak, preskripzioaren kalterik gabe.

Dohaintza hartzailea. Dohaintza egiten zaion pertsona.

Egozpen indizea. Estatua erreferentziazat hartuta Euskal Autonomia Erkidegoak duen errenta portzentajea adierazten du.

Emate eta eskuratzeen errekapitulazio deklarazioak. BEZaren subjektu pasiboek aurkeztu behar duten aitorpena da, 1992ko abenduaren 29ko 102/92 Foru Dekretuak, Gipuzkoako araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legera egokitzeak, 167. artikuluko Bost puntuan ezarritakoaren arabera. Bertan Batasunaren barruan egin dituzten eragiketak azaldu behar dituzte.

Enpresa erakunde publikoak. 1997ko apirilaren 14ko 6/97 Legeak, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzkoak, 53. artikuluan dioenari jarraiki, Administrazioak prestazio jarduerak egiteko, zerbitzuak kudeatzeko edo kontraprestazioen truke eman daitezkeen herri onurako ondasunak ekoizteko sortzen dituen organismo publikoak dira.

Enpresa erakunde publikoak Zuzenbide pribatuaren arabera arautzen dira, gai hauek kenduta: organoen borondatea eratzea, esleituak dituzten ahalmen administratiboak erabiltzea, eta lege horrek, erakundearen estatutuek edo aurrekontu legeriak haientzat bereziki araututako gaiak.

Eragiketen zenbatekoa (eragiketa bolumena). Ekonomia Itunaren Legeak 14.Bi artikuluan dioenari jarraiki, eragiketa bolumentzat honako hau joko da: subjektu pasiboak, bere jardueraren barruan egindako ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak direla-eta, ekitaldi batean izan dituen kontraprestazioen zenbateko osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errenergua kenduta, halakorik badago. (Errazago uler liteke honela: fakturazioaren edo salmenten zenbatekoa da, BEZa kenduta).

Erakunde autonomoak (organismo autonomoak). 1997ko apirilaren 14ko 6/97 Legeak, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzkoak, 45. artikuluan dioenez, organismo autonomoak organismo publikoak dira, mota jakin batekoak. Zuzenbide administratiboak arautzen ditu eta, zerbitzu publikoak sustatu, prestatu eta kudeatzeko xedez sortzen dira, beti ere eginkizunak deszentralizatuz eta Ministerioen jarduna aurrera eramateko programa bereziak betez.

Errenten egozpena. Zerga erregimen honen arabera, sozietate edo entitate jakin batek lortutako errentak edo oinarri ezargarrira, bere araudiaren arabera zehazten dena, bazkide edo partaideei egozten zaizkie, etekinak metatu diren edo haien artean banatu diren kontuan hartu gabe.

Errenten eratxikipena (errenten esleipena). Zerga erregimen honetan, sozietate batek, entitate batek, komunitate batek edo zergapetu daitekeen ondare berezitu batek lortutako sarrerak eta gastuak partaidetza portzentajearen arabera egozten zaizkio bazkide, partaide, komunitatekide edo kide bakoitzari; horrela, horietako bakoitzak bere zerga pertsonalen barruan tributatzeko dituen haiegatik.

Establezimendu iraunkorrak. Honako kasuan esaten da establezimendu iraunkor bidez jarduten dela: subjektu pasiboak edozein titulu bidez mota bateko zein besteko instalazio edo lantokiak dituenean modu jarraituan edo ohikoan, eta jarduera osoa edo haren zati bat bertan egiten duenean, edo, bestela, instalazio horietan subjektu pasibo ez-egoiliarren izen eta kontura kontratatutako baimenduta dagoen agente baten bidez aritzen denean. Agente horrek ohikotasunez erabili behar ditu subjektu pasibo ez-egoiliarren emandako ahalmenak.

Establezimendu iraunkorrak izango dira, bereziki, zuzendaritza egoitzak, sukurtsalak, bulegoak, fabrikak, tailerrak, biltegiak, denda edo antzeko establezimenduak, meatzeak, petrolio edo gas putzuak, harrobiak, nekazaritza, baso nahiz abeltzaintzako ustialekuak, baliabide naturalak aurkitu edo ateratzeko tokiak, eta eraiki, instalatu edo muntatzeko obrak, hamabi hilabete baino gehiago irauten badute.

Europako Erkidego barruko eskurapenak. 1992ko abenduaren 29ko 102/92 Foru Dekretuak, Gipuzkoako araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legera egokitzeak, 15. artikuluan dioenez, Batasunaren barruko ondasun eskurapena hauze izango da: eskualdatzaileak, eskuratzailak berak, edo aurrekoen izen eta kontura diharduen hirugarren batek, Batasuneko beste estatu batetik Zergaren aplikaziorako lurraldera eskuratzailari destinatuturik bidali edo garraiatutako ondasun higikor gorpuzdunak erabiltzeko ahalmena lortzea.

Familia unitatea. Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatutako erakundea, elkarren arteko ahaidetasunagatik PFEZren araudiak batera aitortzea onartzen diena. Adibidez, familia unitate bat osatzen dute:

Legez banandu gabeko ezkontideek eta honako hauek, baleude:

- a) Adingabeko seme-alabek, gurasoen onespenearekin haiengandik aparte bizi direnak salbu.
- b) Seme-alaba adindunek, judizialki ezinduak direnean eta gurasoen aginte luzatu edo birgaitupean daudenean.

Halaber, senar-emazteak legez banantzen direnean edo ezkontza loturarik ez dagoenean, familia unitatea gurasoetako batek eta aurreko paragrafoan aipaturiko baldintzak betetzen dituzten seme-alabek osatuko dute, norekin bizi diren alde batera utzita.

Finantza tutoretza. Lurralde historikoetako organoek udalen aurrekontu egoerak eta zorpetze mailak zaintzeko duten ahalmena eta eskuduntza, udaletako finantzak defendatu eta babesteko xedea duena.

Itundu gabeko zergak. Estatuak bakar-bakarrik ordainaraz ditzakeen zergak dira; hala nola, aduanako errentak eta inportazio kargak.

Kausatzailea. Testatzailea edo norberak duen eskubidea sortarazi duen pertsona.

Likidazio oinarria (oinarri likidagarria). Oinarri ezargarriari zerga bakoitzaren lege edo foru arauan ezarrita dauden murrizketak kendu ondoren ateratzen den emaitza da. Oinarri likidagarriari karga tasa aplikatzen zaio.

Lotura puntua. Kasu jakin bati begira zerga ezarpenerako eskumena nork duen edo aplikatu beharreko arautegia zein den zehazteko erabilitako irizpidea edo bitarteko teknikoa.

Beste era batera esanda, pertsona, gauza edo egintzen zerga harreman juridikoa Euskal Autonomia Erkidegoari ala Estatuari dagokion zehazteko balio duen zirkunstantzia.

Lurralde Historikoa. 1/1978 Erret Dekretuaz geroztik Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurraldeei, hots, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiari, ematen zaien izendapena.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunak. Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko 27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, 1.2 artikuluan dioen bezala, tradizio historikoari jarraituz, batzar nagusiak eta foru aldundiak dira lurralde historikoetako foru organoak.

"Mortis causa" eskurapenak. Heriotza baten ondorioz egiten diren eskurapenak dira; egin litezke herentzia bidez, legatu bidez edo beste edozein negozio juridikoren bidez, hala nola, "mortis causa" dohaintzaz.

Ohiko bizilekua. Ekonomia Itunaren 43. artikuluan zehazten da Itunaren ondorioetarako nortzuk duten zerga egoitza Euskadiko Erkidegoan. Oro har esan liteke zergaldiko egunik gehienak non egiten diren, hantxe izango dela ohiko bizilekua.

Ondasun emateak. Ondasun emaketzat hartuko da ondasun gorpuzdunak erabiltzeko ahalmena eskualdatzea, baita eskualdaketa hori ondasunen tituluak lagaz egiten denean ere.

Ondorio hauetarako, gasa, beroa, hotza, energia elektrikoa eta gainontzeko energia modalitateak izango dira ondasun gorpuzdunak.

Ordainarazpena. Zerga, prestazio, isun eta zorrak exijitzeko ekintza eta ondorioa da. Zergabilketa jarduerarekin du zer ikusia.

Pertsona juridikoa. Eskubide edo betebeharrak edukitzeko gai den izaki edo entitatea, pertsona fisikoa ez dena. Korporazioak, elkarteak eta fundazioak dira horren adibide. Legez ezarritakoaren arabera eratutako sozietate anonimoak eta sozietate mugatuak pertsona juridikoak dira, halaber.

Sortzapena. Zerga obligazioa noiz sortzen den adierazten du. Kasu batzuetan bat-batekoa izan daiteke, egitate ezargarria egiteak zerga ordaindu beharra dakarrenean (adibidez: salerosketa bat zergapetzen denean); beste batzuetan, berriz, aldizkakoa izan daiteke, data jakin batzuetan edo epe jakin bat igarotzen denean (adibidez: PFEZ edo Sozietateen gaineko Zerga).

Subjektu pasiboa. Legearen arabera zerga obligazioak betetzera beharturik dagoen pertsona natural edo juridikoa da, dela zergadun gisa dela ordezeko gisa.

Zerga. Herri administrazioei dagozkien zuzenbide publikoko diru sarrera arruntak.

Zerga egoitza (zerga helbidea). Ekonomia Itunaren 43.lau artikuluan definitzen da Itunaren ondorioetarako zer den zerga helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan edukitzea. Pertsona fisikoen kasuan, ohiko bizilekua da zerga helbidea; pertsona juridikoentzat sozietate egoitza da, baldin administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza sozietate egoitza horretan zentralizatuta badute.

Zerga itunduak. Izaera itundua dutelako, ordainarazteko garaian foru aldundien eskumenekoak diren zergak dira. Foru aldundiek eskumena zer kasutan duten irizpide batzuen arabera zehaztuta dago (lotura puntuak).

Beste era batera esanda, lurralde historikoetako erakunde eskudunek ezarri, arautu eta eduki dezaketen zerga erregimeneko zergak dira.

Zergak kontsumoari doitzea (kontsumoko doikuntzak). Neurri hau zerga bilketaren emaitza Euskal Erkidegoari esleitutako kontsumoarekin egokitzeko xedez ezartzen da. Horrekin zerga batzuen mekanika neutralizatu nahi da, alegia, kontsumoari kargak ezartzeko xedea duten baina zerga bilketaren garaian beste irizpide batzuen arabera ordainarazten diren zergena. Adibidez, Hidrokarburoen gaineko Zerga Berezia Gipuzkoan kontsumitzen diren hidrokarburoei aplikatzeko da, baina, fabrika, findegia, depositu edo zerga biltegiak non dauden, han ordaintzen dira kuotak.

VIII-13/2002 LEGEA, MAIATZAREN 23 KOA,
EUSKADIKO KUPOA 2002/2006 BOSTURTEKORAKO
ZEHAZTEKO METODOLOGIA ONARTZEN DUENA.

13/2002 LEGEA, MAIATZAREN 23KOA, EUSKADIKO KUPOA 2002/2006 BOSTURTEKORAKO ZEHAZTEKO METODOLOGIA ONARTZEN DUENA

ZIOZEN AZALPENA	91
artikulu bakarra	91
AMAIERAKO XEDAPEN BAKARRA	92

ERANSKINA

I. kapitulua: METODOLOGIAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA INDARRALDIA

1. artikulua	Metodologiaren araubide juridikoa eta indarraldia	92
2. artikulua	Sistematika	92

II. kapitulua: ABIABURU URTEKO KUPO LIKIDOA ZEHAZTEKO MODUA

3. artikulua	Abiaburu-urteko kupoa zehazteko modua	92
4. artikulua	Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko kargak	92
5. artikulua	Doiketak	93
6. artikulua	Konpentsazioak	93
7. artikulua	Egozpen indizea	94
8. artikulua	Kupo likidoa	94

III. kapitulua: BOSTURTEKOAREN BESTE LAU URTEETAKO KUPO LIKIDOA ZEHAZTEKO MODUA ETA KUPOEN BEHIN BETIKO LIKIDAZIOA

9. artikulua	Zehazteko metodoa	94
10. artikulua	Eguneratze indizea	94
11. artikulua	Bereganatutako eskumenak aldatzearen ondorioak	94
12. artikulua	Behin betiko likidazioa	95

IV. kapitulua: ARAU KOMUNAK

13. artikulua	Kupoa ordaintzea	96
14. artikulua	Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta egin beharreko doiketa	96
15. artikulua	Fabrikazio Zerga Bereziak direla-eta egin beharreko doiketa	96

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA	98
BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	98
HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	98
LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	98
BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	98
SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	99
ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	99
AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA	99
AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA	99

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BEHIN-BEHINEKO KUPOA	
ABIABURU URTERAKO – 2002. URTERAKO	100

VIII 13/2002 LEGEA, MAIATZAREN 23KOA, EUSKADIKO KUPOA 2002/2006
BOSTURTEKORAKO ZEHAZTEKO METODOLOGIA ONARTZEN DUENA.

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioak, lehenengo xedapen gehigarrian, foru lurraldeen eskubide historikoen babesa eta errespetua aldarrikatzen ditu, eta aipatutako foru araubidea Konstituzioaren eta autonomia estatuen esparruan eguneratuko dela agintzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak, 41. artikuluko 1. paragrafoan ezartzen duenez (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organiko bidez onartu zen estatutua), ohikoa den Ekonomia Itunaren sistemarekin arautuko dira Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko zerga harremanak; eta artikuluko horretako 2.d) paragrafoan xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuaren karga orokorre eusten lagunduko du lurralde historiko bakoitzari dagokion kupoa kupu orokor batean bilduta egindako ekarpenarekin.

Azkenik, aipatutako 41. artikuluko 2.e) paragrafoak adierazten duenez, Batzorde Misto batek zehaztuko du lurralde historiko bakoitzari dagokion kupoa, eta horietatik datorren kupu orokorra lege bidez onartuko da, Ekonomia Itunean finkatutako aldizkakotasunari jarraiki.

Espainiako Estatuaren eta Euskadiren arteko Ekonomia Itunak, maiatzaren 13ko 12/1981 Lege bidez onartuak, 48. artikulua lehen paragrafoan jasotzen zuenez, bost urtean behin, Gorte Nagusiek bozkatutako legearen bidez, eta Kupoaren Batzorde Mistoak akordioa hartu ondoren, bosturtekoan aginduko duen kupoa zehazteko metodologia onartuko da Ekonomia Itunean jasotako printzipio orokorren arabera. Era berean, bosturtekoaren lehen urteko kupoa ere onartuko da.

Kupoaren Batzorde Mistoak ere artikuluko hori bera jaso du 2002ko martxoaren 6an hartutako akordioan. Akordio horren bidez onartu dute 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo den Estatuaren eta Euskadiren arteko Ekonomia Ituna.

Agindu horiek bete beharrez, bada, bi administrazioak, ados jarrita, 2002-2006 bosturtekoan aplikatu beharreko kupoa zehazteko metodologia erabakitzeari eta 2002. urteko, hau da, bosturteko horretako abiaburu-urteko behin-behineko kupu likidua zehazteari ekin diote, Kupoaren Batzorde Mistoak hartu beharreko akordioak hartu ondoren, 2002ko martxoaren 6ko bilera horretan.

Artikulu bakarra. Onarturik geratu da Euskadiko kupoa 2002-2006 bosturtekorako zehazteko metodologia, Euskadiko Autonomia Estatutuko 41.2.e) artikuluan eta Estatuaren eta Euskadiren arteko Ekonomia Ituneko 50. artikuluan aipatu eta lege honetan eranskin gisa ageri dena.

AMAIERAKO XEDAPEN BAKARRA.

Lege hau "Estatuko Aldizkari Ofizialean" argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

ERANSKINA

I. kapitulua METODOLOGIAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA INDARRALDIA

1. artikulua. Metodologiaren araubide juridikoa eta indarraldia.
Datozen artikuluetan arauturiko metodologiaren bidez zehaztu behar dira 2002-2006 urteetako Euskadiko kupoak, lehen eta azken urtekoak barne. Metodologia horrek Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, 12/2002 Legearen bidez onartuak, II. kapituluko 2. sekzioan zehaztutako arauak aplikatzen ditu.
2. artikulua. Sistematika.
Aurreko artikuluan xedatutakoa betetzearren, bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa izango da hemen zehaztu beharrekoa; hurrengo ekitaldietarako, berriz, kupo hori eguneratuz joango da.

II. kapitulua ABIABURU URTEKO KUPO LIKIDOA ZEHAZTEKO MODUA

3. artikulua. Abiaburu-urteko kupo zehazteko modua.
2002-2006 bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen kargen zenbateko osoari egozpen indizea aplikatuz eta dagozkion doiketa eta konpentsazioak eginez kalkulatu da; hori guztia ondoko artikuluetan ezartzen den moduan.
4. artikulua. Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko kargak.
_Bat. Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko kargak Autonomia Erkidegoaren esku benetan geratu ez diren eskumenei dagozkienak dira.
_Bi. Karga horien zenbateko osoa zein den zehazteko, Estatuko aurrekontuko gastu osotik kopuru hau kenduko da: kasuan kasuko dekretuetan finkatutako transferentziak efektibo egiten diren egunetik Autonomia Erkidegoak bereganatutako eskumenek estatuko aurrekontuan duten diru-izendapen osoa.
_Hiru. Besteak beste, ondoko hauek izango dira Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen kargak:
a) Estatuaren Aurrekontu Orokorretan Lurraldearteko Konpentsazio Fondoei zuzendutako diru kopuruak.

b) Estatuak herri erakundeei ematen dizkien transferentziak edo dirulaguntzak, baldin eta erakunde horiek dituzten eskumenak ez baditu Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu.

c) Estatuaren zorren interesak eta amortizazio kuotak.

Lau. 7. artikuluan aipatzen den egozpen indizea aplikatuz egotziko zaie, lurralde historikoei, bereganatu gabeko kargei dagokien zatia.

5. artikulua. Doiketak.

Bat. Aurreko artikuluko laugarren zenbakian aipatzen den egozpenaren ondorioz ateratzen diren zenbatekoak egokitu egingo dira, Euskadiri eta Estatuari Ekonomia Itunaren 55. artikulua araberako egozgarri zaizkien zuzeneko zergen bidez lortzen diren sarreraren estimazioa hobetearren, hori guztia hurrengo 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe.

Bi. Aurreko bat puntuan araututako doiketarik ateratzen diren zenbatekoek eratuko dute lurralde historiko bakoitzaren kupoa.

6. artikulua. Konpentsazioak.

Bat. Lurralde historiko bakoitzaren kupotik honako kopuruak kenduko dira konpentsazio bidez:

a) Itundu gabeko tributuetatik egotzi daitekeen zatia.

b) Aurrekontuko sarrera ez-tributarioetatik egotzi daitekeen zatia.

c) Estatuko aurrekontu orokorraren defizitetik egotzi dakiekeen zatia.

Bi. Gizarte Segurantzako osasun gaietan eta gizarte zerbitzuen alorrean transferitutako eginkizun eta zerbitzuak finantzatzen dituzten sarreretatik Euskadiri egotzi behar zaion zatia ere lurralde historiko bakoitzaren kupoa konpentsatuko da aurrekontu erregimenean jasotakoari jarraiki. Erregimen hori honako errege dekretu hauetan dago arauturik: azaroaren 6ko 1.536/1987, urriaren 2ko 1.476/1987, abuztuaren 23ko 1.946/1996 eta apirilaren 2ko 558/1998 errege dekretuetan. Lege hau indarrean jarri aurretik, sarrera horiek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren transferentzien bidez ordaintzen zitzaizkion Euskadiri.

Hiru. Aurreko puntuetan adierazitako kontzeptuak 7. artikuluan ezarritako indizea aplikatuz egotziko dira.

7. artikulua. Egozpen indizea.
4. eta 6. artikuluetan aipatzen den egozpen indizea, funtsean lurralde historikoek Estatuaren aldean duten errentaren arabera zehazten dena, %6,24koa izango da bosturteko honetarako.
8. artikulua. Kupo likidoa.
Euskadiko 2002. ekitaldiko kupo likidoa, bosturtekoaren abiaburu-urteari dagokiona, 5. artikuluko doiketak eta 6. artikuluko lehen puntuan arauturiko konpentsazioak egin eta gero ateratzen den kopurua izango da.

Kupo likido hori behin kalkulatu ondoren, bi kopuru hauek kenduko zaizkio: aurreko 6.bi artikuluko konpentsazioen zenbatekoa eta Ekonomia Itunaren laugarren xedapen iragankorra aplikatzetik ateratzen dena.

III. kapitulua BOSTURTEKOAREN BESTE LAU URTEETAKO KUPO LIKIDOA ZEHAZTEKO MODUA ETA KUPOEN BEHIN BETIKO LIKIDAZIOA

9. artikulua. Zehazteko metodoa.
Abiaburu urtearen ondorengo lau urteetako kupo likidoa behin-behinean kalkulatzeko, kontzeptu horri eguneratze indize bat aplikatuko zaio.

Lege honen 6.bi artikuluan ezarritako konpentsazioarekin ere gauza bera egingo da abiaburu-urtetik aurrerako ekitaldietan.
10. artikulua. Eguneratze indizea.
Eguneratze indizea zatiketa hau eginez kalkulatu da. Zatikizuna: kupo likidoaren ekitaldian Estatuko Sarrerren Aurrekontuko I. eta II. kapitulueta zerga itunduengatik espero diren sarrerren aurreikuspena, autonomia erkidegoen esku utzi daitezkeen zergen sarrerena salbu. Zatitzailea: Estatuak zerga-kontzeptu berberengatik bosturtekoaren abiaburu-urterako aurreikusi dituen sarrerak, behar bezala homogeneizatuak.
11. artikulua. Bereganatutako eskumenak aldatzearen ondorioak.
_Bat. Bosturtekoaren beste lau urteen barruan Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen berriak bereganatzen baditu, eta eskumen horien estatu-mailako urteko kostua Estatuaren kargen barruan hartu bazen kontuan bosturtekoaren abiaburu-urteko kupoa, 8. artikuluan aipatzen dena, zehazterakoan, orduan, eskumen-aldaketa gertatzen den ekitaldian eskualdaketa estatuarentzat duen urteko kostu osoa ekitaldi horretako Estatuko Aurrekontu Orokorren arabera kalkulatu da.

Eskumen berria indarrean jartzeko eguna ekitaldiko urtarilaren 1a ez bada, eskualdaketa gertatu den ekitaldian estatuarentzat duen urteko kostu osoa hainbanatu egin beharko da; hainbanaketa Euskadik eskumen berriak bereganatu dituen egunetik aurrerako proportzioan egingo da, eta kalkulu hori eskualdaketa gauzatu den ekitaldiko kupoa zehazteko erabiliko da soilik.

Murrizketa proportzional horrek gastu arrunten benetako aldizkakotasuna hartuko du kontuan, bai eta Estatuaren inbertsioak zenbateraino gauzatu diren ere.

_Bi. Aurreko apartatuan adierazitako zirkunstantzia gertatzen bada, bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoari honako zenbatekoa kenduko zaio: eskualdaketa gertatu den ekitaldian estatuarentzat duen urteko kostu osoa 10. artikuluko eguneratze indizearekin zatitu ondoren ateratzen den zenbatekoari 7. artikuluko egozpen indizea aplikatzearen emaitza.

Bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likido berri hori izango da eskualdaketaaren ekitaldiko eta hurrengo ekitaldietako kupoa zehazteko erabiliko dena.

_Hiru. Euskal Autonomia Erkidegoak eskumenen bat erabiltzeari uzten badio, adierazitako prozedura bera jarraituko da, baina alderantziz.

12. artikulua. Behin betiko likidazioa.

_Bat. Aurreko artikuluetan xedatutakoaren arabera finkaturiko behin-behineko kupoak behin betiko likidatzeko, 10. artikuluan definitzen den eguneratze indizearen benetako balioa aplikatuko da, eta indize hori honela kalkulatu da: Estatuak, bai kupoaren ekitaldian, bai bosturtekoaren abiaburu-urtean, benetan lortu duen bilketa likidoa abiaburu-urteko behin betiko kupo likidoarekin zatituz.

Lege honen 6.bi artikuluan ezarritako konpentsazioa behin betiko likidatzeko ere modu berean jokatu da.

_Bi. Salbuespen gisa, bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoaren behin betiko likidazioa egiteko 10. artikuluan aipatzen den eguneratze indizea aplikatuko da. Kasu honetan, eguneratze indizea hauxe izango da: Estatuak bosturtekoaren abiaburu-urtean benetan lortu duen bilketa likidoa Estatuko Diru-sarreraren Aurrekontuan ekitaldi horretarako aurreikusitako bilketa homogeneoarekin zatituz ateratzen den balio erreala.

Modu horretan ere jokatu da lege honen 6.bi artikuluan ezarritako konpentsazioaren behin betiko likidazioa, bosturtekoaren abiaburu-urteari dagokiona, egiterakoan.

_Hiru. Estatuko Administrazioaren Kontuhartzailletza Nagusiak emandako egiaztagirian agertzen dena izango da Estatuak ekitaldi bakoitzean lortzen duen bilketa. Hartara, egiaztagirian aipatzen den urteari dagokiona hartuko da halakotzat, sortzapen-urtea edozein dela ere.

_Lau. Behin betiko likidazioa kupoari dagokion ekitaldia amaitu ondorengo urteko maiatzean egingo da, eta ekitaldi horretarako behin-behinean finkatutako kupo likidoarekin eta konpentsazioarekin agertzen dituen diferentziak maiatzean bertan erregularizatuko dira. Hilabete horretan ere hurrengo artikuluan aurreikusita dagoen diru-sarrerarekin batera konputatuko dira, hala badagokio.

IV. kapitulua ARAU KOMUNAK

13. artikulua. Kupoa ordaintzea.

Euskal Autonomia Erkidegoak ekitaldi bakoitzean ordaindu behar duen zenbatekoa hiru epe berdinetan abonatu zaio Estatuko Herri Ogasunari, urteko maiatzean, irailean eta abenduan hain zuzen ere.

14. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela eta egin beharreko doiketa.

_Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik Euskadin bildutakoari honako kopuru hauek gehituko zaizkio:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta aduanetan bildutakoaren %6,875.

b) Euskadiko diru-bilketa portzentajea Estatuak, aduanak kenduta, bildutako guztia baino %5,765 handiagoa bada: lurralde erkidearen benetako diru-bilketaren %1,110 zati %94,235; eta portzentaje hori baino txikiagoa bada: Euskadiko benetako diru-bilketaren %1,110 zati %5,765.

_Bi. Aurreko doiketaren behin-behineko egozpena, eta hurrengo ekitaldiko behin betirako erregularizazioa Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak onartu eta une bakoitzean indarrean dagoen prozedurari jarraiki egingo da.

15. artikulua. Fabrikazio Zerga Bereziak direla eta egin beharreko doiketa.

_Bat. Fabrikazio Zerga Bereziak direla eta (Alkohola eta Edari Deribatuenak, Tarteko Produktuenak, Garagardoarena, Hidrokarburoenak eta Tabako Laboreenak) Euskadin benetan bildutakoari honako kopuru hauek gehituko zaizkio:

a) 1. Alkohola, Edari Deribatuak eta Tarteko Produktuak direlaeta aduanetan bildutakoaren %7'130.

2. Euskadiko diru-bilketa portzentajea Estatuak, Aduanak kenduta, bildutako guztia baino %1,932 handiagoa bada: lurralde erkidean Alkohola, Edari Deribatuak eta Tarteko Produktuak direla-eta benetan bildutakoaren %5'198 zati %98'068; eta portzentaje hori baino txikiagoa bada: zerga berberak direla-eta Euskadin benetan bildutakoaren %5'198 zati %1,932.

b) 1. Garagardoaren gaineko zerga dela-eta aduanetan bildutakoaren %7,130.

2. Euskadiko diru-bilketa portzentajea Estatuak, Aduanak kenduta, bildutako guztia baino %1,731 handiagoa bada: garagardoaren gaineko zerga dela-eta lurralde komunean benetan bildutakoaren %5,399 zati %98'269; eta txikiagoa bada: Euskadin kontzeptu beragatik benetan bildu denaren %5'399 zati %1,731.

c) 1. Hidrokarburoen gaineko zerga dela-eta aduanetan bildutakoaren %6'560.

2. Zeinu negatiboa duela, Euskadiko diru-bilketa portzentajea %8'260 aldiz handiagoa bada Estatuak, Aduanak kenduta, bildutako guztia baino: Hidrokarburoen gaineko zerga dela-eta lurralde komunean benetan bildutakoaren %1,700 zati %91,740; eta portzentaje hori baino txikiagoa bada: Euskadin kontzeptu beragatik benetan bildutakoaren %1'700 zati %8,260.

d) Honako kendura hau: Kenkizuna: Tabako Laboreen gaineko zerga berezia dela-eta lurralde komunean benetan bildutakoa bider Euskadiko Tabako eta Tinbre Saltokiei bidalitako laboreen balioari urtean dagokion portzentajea. Kentzailea: bat minus esandako portzentajea, eta ateratzen dena bider Euskadin kontzeptu berberagatik benetan bildutakoa.

Bi. Euskadik lortzen duen benetako bilketak %7tik gorako aldea agertzen badu Hidrokarburoen gaineko Zergan, Estatuak, kontzeptu berberengatik, lortutako bilketari artikuluko honen Bat puntuko a).2, b).2 eta c).2 pasarteen azken lerroetako indizeak aplikatuz lortzen den emaitzaren aldean, eta diferentzia hori %10etik gorakoa bada Alkoholarekin eta Edari Deribatuen, Tarteko Produktuen eta Garagardoaren gaineko zergetan, aipaturiko indizeak zuzendu egingo dira diferentzia horiek agertzen diren urtean doiketak egitearren.

Zuzenketa hori egiteko, aurreko Bat apartatuko a).2, b).2 eta c).2 letren azken lerroetan adierazitako indizeei aurreko paragrafoan ezarritako mugak gainditzen dituen bariazio portzentajea aplikatuko zaie, positiboa zein negatiboa izan.

_Hiru. Aurreko doiketaren behin-behineko egozpena, eta hurrengo ekitaldiko behin betirako erregularizazioa Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak onartu eta une bakoitzean indarrean dagoen prozedurari jarraiki egingo da zerga bakoitzerako.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

2002-2006 bosturtekoan indarrean jarraituko du abuztuaren 4ko 37/1997 Legearen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Onarturik geratzen da Euskadiko 2002ko ekitaldiko behin-behineko kupo likidoa, metodologia honen eranskinean jasota ageri dena.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Estatuko zerga-araubidean aldaketarik gertatzen bada eta aldaketa horrek zergen hitzartze sisteman eragiten badu, araugintzako aginpideen banaketa aldatu egiten bada eta aldaketa horrek zeharkako ezarpenari ere eragiten badio, edo zerga edo konturako ordainketa berriak sortzen badira, orduan administrazio biek adostasunez bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa eta eguneratze indizea berrikusiko dituzte egoki den moldez eta kopuruz, eta horrek guztiak aldaketa gertatzen den urtetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Hala badagokio, bi administrazioek, itundutako zergaren izaera aintzat harturik, zerga horretarako egoki diren doiketa edo konpentsazioak ezartzea erabakiko dute.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Tabako laboreak egin eta merkaturatzeko gaur egun indarrean dagoen erregimena aldatu egiten bada, bi administrazioek, ados jarrita, 15.bat artikuluko d) letra berrikusiko dute.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ertzaintzaren kostua, 2002ko abiaburu-urteko kupoan bereganatutako karga gisa jasota dagoena, zerbitzu horri urte horretarako emandako balorazioari dagokiona da. Horren ondorioz, lege hau indarrean sartzen denetik aurrera, bereganatutako beste kargen tratamendu bera izango du.

Eranskinean Ertzaintzarako jasota dagoen zenbatekoak zerbitzu aktiboan dagoen ertzain kopuruari dagokion finantzazioa erakusten du. 2002ko urtarilaren 1a baino lehen hartutako hedaketa-akordioetatik dator finantzazio hori.

Ertzaintzaren gaur egungo plantila handitu egiten bada, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak erabaki beharko du handitze hori finantzatzea.

SEIGARRREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lege honen ondorioetarako, Kupoaren Batzorde Mistoak hartutako akordioak Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartu eta berretsi dituela joko da. Kupoaren Batzorde Mistoa maiatzaren 13ko 12/1981 Lege bidez onartutako Ekonomia Itunaren 49. artikuluan dago aipaturik, eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa, berriz, maiatzaren 23ko 12/2002 Lege bidez onartutako Ekonomia Itunaren 61. artikuluan.

ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera, Gizarte Segurantzaren osasun-laguntza eta gizarte zerbitzuak direla eta Euskadira eskualdatutako zeregin eta zerbitzuen finantzazioak bereganatutako beste kargen tratamendu bera izango du. Hori dela eta, azaroaren 6ko 1536/1987 Errege Dekretuan, urriaren 2ko 1476/1987 Errege Dekretuan, abuztuaren 23ko 1946/1996 Errege Dekretuan eta apirilaren 2ko 558/1998 Errege Dekretuan zehaztutako aurrekontu erregimena lege honetan ezarritakora egokituta dagoela ulertuko da.

AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA

Salbuespen gisa, lege honen indarraldia behin amaiturik oraindik ez bada hurrengo ekitaldietarako kupoa zehazteko metodologia arautuko duen beste legerik onartu, 2007ko ekitaldian eta hurrengoetan lege honek jasotzen duen metodologia bere osoan aplikatuko da lege honen 6.bi artikuluan eta Ekonomia Itunaren laugarren xedapen iragankorrean aipatzen diren kupo likidoak eta konpentsazioak behin-behingo zehazteko.

Aurreko paragrafoan aipatutako legea behin onartu ondoren, ezarritako kupo eta konpentsazioen orde z lege berrian xedatutakotik ateratzen direnak aplikatuko dira.

AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA

Metodologia honetan xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren xedapen gehigarri, iragankor eta amaierakoetan jasotakoaren kaltetan gabe doala ulertzen da, horiek indarrean baitiraute beren horretan aplikagarri gertatzen diren neurrian.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BEHIN-BEHINEKO KUPOA ABIABURU
URTERAKO – 2002. URTERAKO

	Mila eurokotan	
Estatuaren aurrekontua. Gastuak.		144.104.165,08
Autonomia Erkidegoak bereganaturiko kargak (1)		77.411.615,88
Bereganatu gabeko kargak, guztira.		66.692.549,20
Bereganatu gabeko kargei aplikatu beharreko indizearen egozpena (66.692,20ren %6,24)		4.161.615,07
Kendu beharreko konpentsazio eta doiketak:		
Itundu gabeko tributuengatik (3.097.191,36 bider %6,24)	-193.264,74	
Beste sarrera ez-tributarioengatik (8.718.927,49 bider 6,24)	-544.061,08	
Aurrekontuaren defizitagatik (32.916.367,94 bider %6,24)	-2.053.981,36	
Zuzeneko zerga itunduengatik	-279.643,41	
		-3.070.950,59
Kupo likidoa		1.090.664,48
Kupoaren Legeak 6.bi artikuluan jasotako konpentsazioak		-53.042,35
Arabako konpentsazioak: Ekonomia Itunaren laugarren xedapen iragankorra.		-2.996,05
Ordaintzeko likidoa		1.034.626,08

(1) Zenbateko honen barruan Ertzaintza dela-eta estatu mailan egin den 6.172.355,79 mila euroko balorazioa bereganatutako karga gisa sartu da.

IX-GALDERARIK OHIKOENAK

IX GALDERARIK OHIKOENAK

(Erantzun labur-zehatzak. Galdera gehienak zeharka erantzunda geratuko dira, PDF elkarreragilean txertatutako hitz-bilatzailearen bitartez)

1. Zein da Ekonomia Itunaren oinarritzko egitura?

- Zergak (araugintzarako eta kobrantzarako ahalmenaren erabilera arautzen du, zerga bakoitzerako ezarritako lotura-puntuen arabera)
- Finantza harremanak (Finantza harremanak edo mugimenduak arautzen ditu, kupoa eta Estatuaren karga orokorreari eusteko ekarpenak barne)
- Ekonomia Ituneko Batzordeak eta Arbitraje-Batzordeak (Erakundeak koordinatzeko, elkarlanean jartzeko eta gatazkak saihesteko bitartekoak eta mekanismoak arautzen ditu, Ituna judizializatzeko)

2. Ba al du zerikusia Itunak Lurralde Historikoen legearekin?

Ekonomia Ituna formalki lege itundua da, Estatuak eta Euskadik (Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek ordezkatuta) adosten dutena eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren arteko harremanak arautzen dituen ekonomia, finantza eta zerga alorretan. Baina zergen gaia foru araudiaren funts nagusietako bat denez gero, Itunak oso kontuan hartzen du alor horretako araugintza eta exekuzioa lurralde historikoei dagokien eskumena dela.

Lurralde Historikoen Legea (Eusko Legebiltzarraren 27/1983 Legea), ordea, Euskal Herriko legea da eta Euskadik dituen eskumenetako eginkizunak banatzen ditu, hain zuzen ere erkidego osorako erakundeen (Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza) eta lurralde historikoetako erakundeen artean.

3. Zer da Lurralde Historikoa?

Lurralde historikoak Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba dira. Izendapen hori 1/1978 Errege Lege-Dekretuan erabili zen lehenengo aldiz.

4. Zein dira Euskal Ekonomia Itunaren ezaugarri nagusiak?

- Sistema itundua izatea
- Zerga alorreko araugintzarako ahalmena
- Zergak kudeatzeko autonomia
- Arrisku aldebakarra
- Elkartasuna

5. Zein dira lurralde historikoetako erakundeen eskumen nagusiak?

Lehenengoz, foru izaera berezia dutelako dagozkie eskumen garrantzitsuak. Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria aitortzen die izaera hori, eta Euskal Autonomia Estatuak

gauzatzen du, bere 37. artikuluan zenbait eskumen xedatzen baititu lurralde historikoen alde. Agindu nagusi hori garatuz onartu zuen Eusko Legebiltzarrak 27/1983 Legea, Lurralde Historikoen Legea izenez ezagutu ohi dena.

Autonomia Estatutuak berak aipatzen du, 41. artikuluan hain zuzen, harreman horiek usadioaren arabera Itun edo Hitzarmen bitartez arautuko direla.

Zergen alorrean, bera, lurralde historikoei eskumen hauek dagozkie:

- Zergen araubidea ezartzea, mantentzea eta erregulatzea.
- Zergen kudeaketa orokorra egitea.

Azkenik, foru aldundiei badagozkie, baita ere, toki araubideko gaietan legeriak (7/1985 Legeak) lurralde arruntean diputazio probintzialesi aitortzen dizkien eskumenak.

6. Zertan dira Estatuaren eskumenak zerga gaietan?

12/2002 Legeak xedatzen duenez, Estatuari bakarrik dagozkio Inportazio eskubideak eta kargak, BEZ eta Zerga Berezietan hain zuzen.

Ekonomia Itunaren aplikazioari buruzko goi ikuskaritza dagokio baita ere, horretarako txosten bat egin behar duelarik euskal erakundeekin elkarlanean. Dena dela, orain arte ez da inoiz egin horrelako txostenik, 1981. urteaz geroztik aurreikusita egon arren.

7. Nola egituratzen da udalen finantzaketa Ekonomia Itun berrian?

Udal zergei dagokienez, Ekonomia Itunak dio lurralde historikoetako erakunde eskudunek erregulatuko dituztela, udal zergen gaiaren egitura eta harmonizazio arauak errespetatzeko irizpide orokorren barruan jokatuta.

Finantza harremanei dagokienez, 48. artikulua bakarrik dio Euskadiko erakunde eskudunei egokituko zaizkiela Estatuak unean-unean dituen finantza tutoretzako ahalmenak, eta horrek ez duela inoiz ekarriko Euskadiko udal erakundeen autonomia maila araubide arruntekoena baino apalagoa izatea.

Hori osatuz, azpimarra daiteke udalek finantzabide desberdinak dituztela. Garrantzitsuenak hauek dira, besteak beste:

- Udal tributuak (JEZ, OHZ, Tasak)
- Zerga itunduetan dagokien partaidetza, Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren bidez banatzen dena.
- Kreditu eragiketak
- Beren ondaretik eta zuzenbide pribatutik eratorriak

8. Zein harreman organo daude?

- Arbitraje batzordea.
- Araugintzako koordinazio eta ebaluaketa batzordea.
- Ekonomia Ituneko batzorde mistoa.

9. Zein dira ituntzen diren zergetan garrantzitsuenak?

- PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga
- BEZ, Zerga Bereziak, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga.
- Tasak
- Udal zergak

10. Zeini dagokio tributuen tutoretza finantzarioa?

Lurralde historikoetako foru aldundiei.

11. Zer erakunde mota da Foru Aldundia?

Foru Aldundia, alde batetik, toki erakundea da eta, beraz, lurralde arruntean diputazio probintzialei dagozkien eskumen guztiak ditu, baina, gainera, baditu eskumen gehiago ere, foru araubideak aitortzen dizkionak, lurralde historikoaren erakundeetako bat denez gero.

Horrela, Batzar Nagusiak lurralde historikoaren ordezkaritza eta herri-partaidetzaren organo gorena da eta lege-araugintzaren agintea dagokio, eta Foru Aldundia, berriz, lurralde historikoaren gobernua edo aginte exekutiboa da eta erregelamenduak garatzeko ahalmena du.

12. Zer eginkizun dute foru aldundiek Ekonomia Itunaren barruan?

Funtsezko zeregina betetzen dute foru aldundiek Ekonomia Itunean. Ekonomia Itunak Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko zerga eta finantza harremanak arautzen ditu, eta foru erakundeek zerga gaietan duten ahalmena da euskal araubide bereziaren ezaugarri nagusietako bat. Ahalmen horren arabera, Euskadiko lurralde historikoetako foru erakundeek zerga sistema propioa jarri, eduki eta arautu dezakete. Horrexegatik, hain zuzen, Ekonomia Itunak lurralde historikoei aitortzen die araugintzarako ahalmena eta foru aldundiei zergen ordainarazpen eta bilketarako ahalmena.

13. Ba al da beste Ekonomia Itunik Espainiako Estatuan?

Bai, antzeko Ekonomia Ituna du Nafarroako foru erkidegoak ere. Bi sistema horiek eredu bakarra osatzen dute Europan.

14. Zer etorkizun du Itunak?

Ekonomia Itunaren sistema egonkorra da eta, azkena onartu den Ituna epe mugagabekoa da, hain zuzen.

15. Zer da Kupo?

Ekonomia Itunaren 49. artikulua xedatzen duenez, kupo Euskal Herriak Estatuari ematen dion ekarpen globala da, eta lurralde historikoei dagozkien kupoen batura da. Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuko kargen ordaina da kupo. Funtsean, Estatuak euskal autonomia erkidegoaren lurraldean ematen dituen zerbitzuengatik Euskadiri dagozkion gastuak Estatuak berak Euskal Herrian dituen zerga sarrera murriztekin erkatuta zehazten da kupo. Erkaketa emaitza negatiboa bada, defizit hori konpentsatzeko transferentzia ekonomikoa egiten diote Estatuari euskal erakundeek. Hori da kupo, hain zuzen ere.

16. Zer lotura dago Itunaren eta Euskal Autonomia Estatuaren artean?

Autonomia Estatutuko 41. artikulua aditzera ematen du Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko zerga harremanak foru sisteman usadiozkoa den ekonomia itun edo hitzarmenen bitartez gauzatuko direla, eta Itunaren edukiak printzipio hori errespetatzeko duela eta hartara egokituko dela.


- Lurralde historikoetako foru erakundeek, beren lurraldearen barruan, zerga araubidea jarri, eduki eta arautu ahal izango dute, Estatuaren zerga egitura orokorra, Itunean bertan Estatuarekiko koordinazio, harmonizazio eta elkarlanerako ematen diren arauak eta, xede berorrekin, Eusko Legebiltzarrak autonomia erkidegorako ematen dituen aintzat hartuz.
- Lurralde historiko bakoitzaren barruan Foru Aldundiari dagokio zerga guztien ordainarazpena, likidazioa, bilketa eta ikuskapena egitea, Aduanen gaineko Errentakoak eta gaur egun monopolio fiskalen bitartez biltzen direnak izan ezik.
- Euskadik Estatuari egindako ekarpena kupo orokor bat izango da, eta kupo hori lurralde historiko bakoitzari dagokionak osatuko du. Euskal Autonomia Erkidegoak bere egiten ez dituen estatuaren kargei dagokien kontribuzioa da kupo.

17. Zer harreman mota dute Estatuko Ogasunak eta foru ogasunek?

Ogasunen arteko harremanen printzipio orokorrak Ekonomia Itunaren Legeko 2. artikuluan jasota daude eta hauexek dira: elkartasuna errespetatzea, Estatuko zerga egitura orokorra zaintzea, Estatuarekin koordinatuta, harmonizatuta eta lankidetzan jokatzeko eta Espainiako Estatuak sinatu eta berretsi dituen Nazioarteko Itunak betetzea.

18. Zein da baliabideak banatzeko eredu orokorra?

Baliabideak biltzeko eta banatzeko eredua honela adierazi daiteke grafikoki:



19. Zer irabazten da dezentralizazioarekin? Itunaren funtsa.

Gobernu erakundeak gizartera gerturatzea, hartara herritarrengandik gertuena dagoen eta, hortaz, bere lurraldean bizi den jendetzaren bereizgarritasunak, egitura eta problematika ondoen ezagutzen duen erakundeak finkatuko baititu behar diren neurri egokienak. Orobat, berak ezagutzen du ondoena diru sarrerak egiteko modua eta hori garatzeko era.

20. Itunak elkartasun eza al dakar?

Inola ere ez, izan ere horretarakoxe daude jarrita mekanismo zuzentzaileak eta gobernuarteko transferentziak, elkartasun fondoez gauzatu daitezkeenak edo, Euskal Ekonomia Itunaren kasuan, kupoaren bitartez.

21. Zer da zerga federalismoa? Ba al da horrelakorik Europan?

Kontuan hartuta gobernu maila desberdinak daudela (zentrala edo estatala, eta azpizentrala edo autonomikoa) eta horiek besteak beste eginkizun hauek dituztela:

- Beharrak atenditzea: herritarrei zerbitzuak emanez (osasuna, heziketa eta abar).
- Baliabideak banatzea: Errenta eta aberastasuna norbanakoen eta lurraldeen artean banatzea eta orekatzea.
- Bilakaera egonkortzea: ziklo ekonomiko desberdinek sor ditzaketen ondorioak l eta gora-beherak leuntzea.

Zerga federalismoari dagokio aztertzea zein den gobernu azpizentralen finantzaketa egokiena, hau da, diru sarrera dependenteak (gobernuarteko transferentziaz) edo independenteak edukitzea komeni den aztertzea eta bai zerbitzuak emateko bai zerbitzuok finantzatzeko baliabideak biltzeko gobernu maila egokiena zein den jakiten saiatzea.

Halaber, egon daitezkeen desberdintasunak orekatzen eta, konpentsaziozko neurrien edo gobernuarteko transferentzien bitartez, horiek neutralizatzen saiatu behar du.

